

Euskeraren erri akademia / Academia popular de la lengua vasca
Lacademie populaire de la langue basque

Euskerazaintza

LXX Zenbakia • 2012. urtea-2

Thomas Merton, *Kentucky-ko monjea*

Euskerazaintza

Gure irakurleari:
Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.
Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: "Len",
oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza emten digutenak "laguntzaille" taldera sartuko ditugula esaten da gendun.
Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke "urtero" 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.
Gure kontuen zanbakiak onek dira:
BBVA: 0182-1296-00-0201538669
KUTXA: 2101-0200-46-0006681589

EUSKERAZAINTZA
Euskeraren Erri-Akademia
Colón de Larreategi 14, 2ª eskuma
48001 - BILBAO
e-mail: *aeuskerazaintza@gmail.com*
www.euskerazaintza.org

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759
Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.
Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena
(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132– 1318
Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: IBEGRAFIK
www.ibegrafik.com

Laguntzaille
BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

aurkibidea

Atarikoa 7

THOMAS MERTON, KENTUCKY-KO MONJEA 11

BAKIOKO TOPONIMIA 19

Zer da toponimia? 19
Bakioren ganeko zertzeladak. 19
Erriko toponimia batuteko elburuak. 20
Metodologia. 21
Arazoak, oztopoak. 23
Egindako bearraren emoitza-argibide batzuk..... 24
A.– Soziolinguistika arlokoak:..... 24
B - Erriko berbetearen ezaugarri toponimiko batzuk: 26
Agoskerea:..... 27
Toponimia atzizki batzuen agoskerea Bakioko euskeran:..... 27
Azentua:..... 27
Toponimian agertuten diran atzizkiak: 28
Izenetik eratorritako atzizki edo aurrizkiak (zer/non):..... 28
Adjektiboetatik eratorritako atzizki eta aurrizkiak (zelangoa): 30
Toponimiagaz zerikusia dauan batutako lexikoa (espazio geografikoa): 30
Fitonimoakaz zerikusia dauan batutako lexikoa (fitotoponimoak):..... 31
Oronimoak (lurraren gorabeerak eragindako leku-izenak):..... 31
Idronimoak (uragaz zerikusia dauken leku-izenak): 31
Fitotoponimoak (landarakaz zerikusia dauken leku-izenak):..... 32
Zootoponimoak (abereakaz zerikusia dauken leku-izenak):..... 32
Odonimoak edo komunikazionagaz lotutako leku-izenak:..... 32

Lurgintzeagaz zerikusia daukenak: 32
Antrotoponimoak edo pertsonakaz (izen, abizen edo ezizenak) lotutako leku-izenak: 32
Agiotoponimoak edo santuen izenakaz zerikusia dauken leku-izenak: 33
Toponimiaren azentu arazoa. Adibide praktikoa. Ikerketea (Iñaki Gaminde). 34
Diptongazino eta silabifikazinoa 36
Azentuerea eta intonazinoa 37
Izen azentubakoak 37
Erdaldunak 39
Euskaldun barriak 40
Euskaldun zaarrak 40
Bakiotarrak 41
Guztiak 41
Edo beste era batera: 41

KLARETARRAK EUSKAL ERRIAN 43

1. Karisma baten iraupen istorikoa 43
Euskalerriko leen klaretarrak 44
Euskalerrian klaretarrek sorturiko leen ezarkuntzak.... 45
1882: Balmaseda 47
1886: Bilbo 47
1910: Beire 48
1914: Tolosa 49
1918: Agurain 49
1920: Donostia 50
1942: Bilbo-Areeta 51
70-eko amarkadan sortutako ezarkuntzak 52
Irunea (1970) 52
Gasteiz (1972) 52
Leioa (1975) 53
Getxo (1977) 53

Klaretar Misioa Bolibiako Potosi Iparrean (1974) 54
d) Gomutagarri diren klaretarrak..... 54
e) Misiolari Jarduera..... 56
f) Andrazkoen jarduera 57
2. Euskalerriako klaretar Erkidegoaren lurralde eta apostoliku egituraketa. 58

LANDAJUELA, ANTON..... 63
1.– Arratia deritxon aranean 1914gn urtean lotzaillaren 4an jayo nintzan..... 63
2.– Aldi artan ene jayoterri 64
Bideak. 65
3.– Mizkin eta mizkinkeriak..... 67
4.– Urtean birritan dirutsu..... 68
5.– Txarria 69
6.– Mixinoyak..... 70
Aste guren: 71
7.– Agate deuna 72
Eskiljoteari buruz zerbait geiago 73
8.– Illeta 73
9.– Uguzta, bateoa..... 74
10.– Elizakoak 74
11.– San joan-suak..... 75
12.– Sañoa 75
13.– Azoka, zeia..... 76
14.– Salerosketa 76
15.– Errotak..... 78
Igorrebaso, basauntz-ako eta santa luzialdeko astoak. 78
16.– Jostaketak..... 79
17.– Kastorran jokatzea..... 80
19.– Kinkin..... 82
20.– Tronpa 82
21.– Izerrean..... 84

22.– Fubola 85
23.– Pelota 85
24.– Txoriak..... 85
25.– Karramatoa (goitibera) 86
26.– Tranbia (tximistburdia) 86
27.– Beste jolasketa bat..... 87
28.– Txantela 88
29.– Uger-egitea 88
30.– Amaren azarikeria 89
31.– Neskatil ugerlariak..... 89
32.– Txitxiburruntzi, basokoipetsu 89
33.– Txirritxirriak, Kirkillak 90
34.– Bola ta txirlo 91

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: "Len",

oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza emten digutenak "laguntzaille" taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke "urtero" 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.

Gure kontuen zanbakiak onek dira:

BBVA: 0182-1296-00-0201538669

KUTXA: 2101-0200-46-0006681589

Atarikoa 2013

Lau irakurgai daukodaz begi aurrean.

Lenengoa, *Tomas Merton, Kentucky-Monjeari* buruzkoa 1tik – 11 ño orrialdeduna.

Bigarrena, *Toponimia* gaiari yagokona,19tik 41ñoko orrialdeduna.

Irugarrena, *Karisma baten iraupen istorikoa* dakarrena:43tik 59-rañoko orrialdeduna.

Laugarrena, *Landajuela jaunaren Kontakizunak*: 43tik 58 ñoko orrialdeduna.

Batak zein besteak euskerearen edertasuna erkusten dabe eta bide batez Euskalerriaren nortasuna ,jatortasuna ,jakituri ta dotoretasuna.

Or dozue,adibidez, *Merton Jaunari* buruz egindako lana. Eginkizun orretan agertzen jaku euskal idazlearen argitasuna, bere bizitzan jorratu ebazan arloak aztertzerakoan. Esanaldi mamitsu,esanguratsu, sakonez batera euskal-jozkera jatorriaz jantzitakoa.

E

Bigarren idazlanean Toponimiari buruz ekiten dautso idazleak. Beronek azaltzen dauskunez, “leku-izenen jatorria ikertuten dau toponimiak. Beste alde batetik, leku ta sasoi jakineko multzoa be erakusten dau toponimiak”.

Toponimoak gure kultur-ondarearen oñarrizko osagarriak dira. Inguruaren lekukoak ez eze, gure arbasoen berbeta, ekandu ta bizikera lekukoak be badira. Inguruaren giza-estalgitza jo geinkez. Askotan gizaldietan bizikera ta siniskerak (gomutapen istorikoa). Alkarregaz datoz. Alan, bada,izadia (lurrazala) zein giza-artu-emonak bideratutako bizimoduagaz zerikuisi arteza daukie.

Euskalerrian ugari be ugari dira, Euskerearen ondasun eta altxorraren alderdietariko bat egiten dabela, arbasoak geuri itzita..

Irugarrenean datorren irakurgaia “Karisma baten iraupen istorikoa” ondo ulertzeko, bearrrezko dozu jakitea Jaungoiko Aitak bere Seme Jesikristo bialdu ebala mundura, mundua salbatzeko asmoagaz. “Bidali” berbea, latiñez “misio” esatea da, eta erderaz “ misión” “misionero” ta euskeraz “mixiolari”. Laburbilduz, esan geinke Jesucristo, Jainko Aitaren Semea, bere gizartean mundu guztirako “misioa” betetan asi zala jarraitzale-apostoluekaz batera. Geroago batean mundun guztira zabalduten alegindu zala “mixiolari” lanaren bitartez.

Alango batean Euskalerrian be, agertu ziran orretiko “mixiolariak” karisma baten iraupen istorikoan tinkatuz.

Idazlan sakon, sendo, ondo taiutua, euskera jaio, oparo ta ederrez ornitutakoa.

Laugarren irakurgaiak Landajuela jaunaren kontakizunak erakusten deuskuz. Guztiz ondo ikusten dira gizon onen bizitzaren bidez, ze oiturak egozan Bizkaiko Igorren eta zelango berbetea erabilten zan elkarren artuemonetan: jolasean, ikastean, sinistean, era abar ta abar.... Itzelezko trebetasunaz jatorku Landajuela Jauna, etxean edo eleizan, eskolan naiz kalean egiten zan euskerea gaurkotasunez jantzirik. Gozamenez irakurri leikez, eskuz idatzita itzi euskuzan bere bizitzako kontakizunak.

Klaudio Barroeta,klaretarra.
EUZKERAZALEAK Elkarteko Lendakaria.
Bilbao 2012.XII.

E

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adiskideentzat jarritako oar bar agertu zan, arpidedunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago degu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak "laguntzalle" taldera sartuko ditugu.

Gure kontuen zenbakiak onek dira:

BBVA 0182-1296-00-0201538669

KUTXA 2101-0200-46-0006681589



Thomas Merton, Kentucky-ko monjea

1968. urtean il zen, Bangkok-en, 53 urte zituela. Urte berean izan ziren erailak Martin Luther King eta Robert Kennedy. XX. mendeko monje bezala bere bizitza eta lana "gizarteari eskainitako amodiozko gutun bat" bezala ar daiteke. Erlijioan, politikan eta kulturan eragin zabalekoa izatera eldu zen monjea.

Bere eraginaren adibide batzuk:

* New York Times aldizkariak Lutero geroztik monje baliotsuena bezala azaldu zuen.

* Apaiz anglikano baten esanetan giza barneko eta munduko bizitzaren arteko bakegile baliotsua.

* Askoren ustez benetako zubia luzatu zion Kontzilio aurreko Elizari etorkizunera begira jarriz.

Mertonek berak dio zeren bila aritu zen: "Antzematen dudan egiaren berri beti eman, nolanaikoa bada ere, eta ogeigarren mende onetakobizitzan Kristoren argitik ala orretatik kanpo aurkitutakoaren lekuko izatea".

Eta beste testu batean dio: "Dagokigun zeregin garrantzitsuena gure garaiko gizon-emakumeekin beren basamortu espiritualean topo egitea da, eta oraingoz ulergaitzak zaizkien galdera berriak egiten lagundu".

Mertonen gurasoak artistak izanik, beraiengandik artea eta naturarekiko sentiberatasuna jaso zuen. Sei urte zituenean galdu zuen ama, eta bere aitarekin Frantzia eta Ingalaterran ibili zen. Cambridgen frantsesa eta italiar izkuntzak ikasi zituen. Aita Londresen buruko tumore batez il zenean Mertonek 18 urte zituen. Ogei urte betetzean Estatu Batuetara itzuli zen, Columbiako unibertsitatean ikasketak egiteko.

Gaztedi komunistarekin arremanetan ibili zen. Monje hindu bat izan zen kristau erlijioaren aberastasunaz oartarazi ziona. Ogeita iru urterekin, gaztaro mugitu baten erdian, Eliza Katolikoan bataiatua izatea eskatu zuen, eta poeta bati buruzko doktoretza ikasketak asi zituen. Urte orretan Kubara bidaiatu, eta an bizipen erlijioso sakona izan zuen, autobiografian kontatzen duenez, nobiziadora joateko kezka sortu zitzaiola. Frantziskotarrek ez zuten onartu, sasiko seme bat izateagatik. Getsemaniko abadian aldi batez gogoeta egin ondoren, Trapenseetan nobizio bezala onartu zuten. Or aurkitu zuen bere egoitza espirituala, ainbeste bear zuen "barkamen elkartea".

Monasterioan aldi auek bizi izan zituen: nobiziadoa, botoak, apaiz egitea, sarberrien ezitzaile, nobizioen zuzendari (11 urte), eta bakarraldia (monasterioaren esparru barnean, ia kilometro batera zegoen ermita batean bakartuta bizitzeko

E

baimena eskatu zuen). Orduan idatzi zuen Basamortuko Jakinduria; monasterioko bizitzan ekintzari erabat emateari egon eta barne bizitza uztearen arriskuetaz mintzo dena. Iru urte geroago bakarleku izango diren ermita berriak autatzeko eskatzen diote eta Nueva Mexiko, Kalifornia eta Alaskara bidaiatzen du. Urte orretan bertan Asian beneditar eta zistertar monjek duten topaketa batera doa Bangkok -era. An aizegailu baten korronte elektrikoak eraginda il zen.

II. Mundu Gerratea ostean, Amerikako monasterioetan bokazio berri ugari sartzen da. Ezinezko zen kopuru guzti ura bear bezala autatu eta ezitzea. Monasterioak zaratatsu bilakatu ziren, ekintza eta lanak geiagotuz. Mertonek monasterioen oiko balioen galera sumatu, eta gizarte amerikarraren ametsak sartzen ari direla oartzen da. Berak ongi aski jarraitzen du gizartearen nondik norakoa, antzinako ikaskide batzuekin arremanetan jarraitzen duelako, eta profeta bakartiaren kezka eta ezinegona sentitzen asten da. 1960. urtean monasterioko esparruan zegoen ermita batean bakartzeko baimena eskatu, eta andik lan emankorra zabalduko du. Bakardade eta ausnarketatik beste lider erlijioso batzuekin batera gizarte amerikarrari mezuak bidaltzen dizkio: zein garrantzizkoa den barne bizitza, armagabetasuna eta bakea, elkartasuna. Garai artan amerikar agintekeriak gora egin nai zuen.

Urte batzutan monje eta aldi berean idazle izatearen dialektika eta tentsioa bizi izan zuen. Ondorioztatu zuen bere idazkiak otoitz-kera bat zirela, beretik zabaltzeko komunikabide sakona. Bere idazkietan arrigarri gertatzen dena ez da kantitatea ala kalitatea, baizik zein ongi artuak izan ziren jende oso anitza eta zabal baten artean. Katoliko ez ziren irakurleak zituen. Zergatik pizten zuten interesa bere idazkiak? Bere idazkien zintzotasun eta zabaltasunagatik.

Bat-bateko idazlea, eta jakin-mina andiko. Monastegiko bakartasunetik gutunak bitartez arreman oso zabala zuen, eunka pertsonekin, eta egunerokoa idazten zuen. Zorrotz eskatu zuen bere egunerokoa il osteko 25. urtea baino leen ez argitaratzea, eta 1995. urtean eman zen argitara egunerokoaren Leen Zatia. Bere idazlan ugaria erradikala eta zuzena da aldi berean; tradizioari lotua eta bere garaian errotua; oso kritika zorrotzekoa baina begirunez azaldua.

40 liburu baino geiago argitaratu zuen, poesiazko beste 11 liburu, eta 500 inguru artikulu. Baita zenbait itzulpen latinetik, frantsesa eta gazteleratik. Isilpean mamitutako azaleratzeko gaitasuna izan zuen. Sei motatako idazkiak dira bereak: santuen biografiak, egunerokoa, ausnarketa teologikoak, saiakerak, idazle klasikoen itzulpenak eta nobela bat. Orrez gain, 5 liburuki zenbait idazle eta beste zenbaitekin trukatutako gutunez.

Monasterioko bakartasunean ez zen mugatua sentitzen, eta gaur egun erlijio joera zein arlo intelektual desberdineko jendek onartua da.

Bere garaiko gizartearekiko izan zuen atxikimendua argi geratu da zenbait idaztietan gerrate nuklearraz, arrazakeriaz, indarkeria ezaz, indio ameriketarretaz, eta zientzia al teknologiaz, exiztentzialismoaz edota ekialdeko jakinduriatik jaso dezakegunaz. Era berean aztertu zituen monasterioko espiritualtasunari lotutako gaietaz: gogoetak, Bibliatik jasotako pentsakizunak, Gurutzeko San Joan, Norwich-eko Juliana eta San Bernardoren espiritualtasunaz... eskolastikako jakitune-

taz, basamortuko aitzin monjeetaz, sufi mistikoak, zen espiritualtasuna, eta abar.

1) Zein pentsaeratik jasotzen du bere lanerako: basamortuko aitzin monjeak eta San Agustinengandik. Basamortuko Jakinduria liburuan antzinako monjeen esaerak komentatzen ditu. S. Agustinengandik, berriz, eragin andia jaso zuen.

2) Baita eragin andia jaso zuen Erdi Aroko ainbat pentsalariengandik: S. Bernardo, S. Buenaventura, Duns Escoto, eta denen gainetik Santo Tomas, baita mistikoengandik: Eckhart, Taulero, Ruysbroeck eta Juliana Norwich-ekoa.

3) Bere espiritualtasunean garrantzi andikoa gertatu zitzaizkion Loiolako S. Inazio, Santa Teresa eta Gurutzeko San Joan.

4) Azken mendeko espiritualtasunezko liburuen artean eragingarri izan zitzaizkion beste auenak: Etienne Gilson, Maritain, Rahner, Teilhard de Chardin, Tillich eta Gabriel Vahanian

5) Irurogeiko amarkada erdialdean idazlan andana irakurri zuen, batez ere gizarte artaz kritiko zirenen liburu ezagunak. Egile auen lanak:

Willian Faulkner, Orwell, Camus, Julien Green, André Malraux, Sartre, Jung, Simone Weil, Gabriel Marcel, Bertold Brecht, Hannah Arendt eta Mahatma Gandhi.

6) Estatu Batuetako beltzei begirune andia zien, eta euren arazoa obeki ulertzeko Luther King eta beste lider batzuen lanak irakurri zituen.

7) Beste literaturgileek ere eragina izan zuten: Dante, Shakespeare, William Blake, Eliot, baita hippy mugimenduko poeta batzuk: Ginsberg eta Kerouac

8) Ernesto Cardenal nobizio ikaslearen bitartez Egoamerika eta espainiar izkuntza poeta auen eragina jaso zuen: Cesar Vallejo, Rafael Alberti, baita Fernando Pessoa portugaldarrarena.

9) Bere garaiko pertsonai ezagunekin beintzat gutun bidezko arremana izan zuen: Esatu Batuetako Johnson presidentea, Jacqeline Kennedy, Martin Luther King (onek Getsemaniko monastegia bisitatzeko asmotan zegoen il aurretik), Joan XXIII eta Paulo VI aita sainduak, Helder Camara

10) Bere bizitzako azken urtetan garrantzi andiko eragina jaso zuen espiritualtasuneko pertsonai esanguratsuetatik, bai anglikanoak, zein judaismokoak (Erich Fromm), ortodoxoak, protestanteak (Tillich), sufi mistika, induismoa, zen budista (William Johnston, Suzuki) eta budismo tibetarra (Dalai Lama). Baita Ipar Ameriketako jatorrizko indioen buruzagi Cyrus Lee-rekin. Gainera, taoismotik esan izan da Merton dela "pentsaera txinoa obekien ulertu duenetako bat".

James Forest, Catholic Worker aldizkariko zuzendariari deigarria egin zitzaion Mertonek zuen kemena, eta eukaristiari buruz esan zionak sortu zion zirrara: "Eukaristiari buruz mintzatzen asi zela bereala bururatu zitzaion meza dantza zela, non eternitatea (betierekoa) orainaldian murgiltzen den, eta orainaldia betierekoan.

Dom Flavian Burns, 1968 urtean Getsemaniko abate zenak, Asiarako egindako bidaiaren arduraduna, Mertonen bizia eta lana Jainkoaz zuen kontzientzia eta gizartearekiko zuen irrikaz beteta zegoela. Orregatik uste du Merton ain autobiografikoa izatea: Jainkoak sortua eta bizitzera deitua zela sentitzen baitzuen.

Bizitzaren azken aldian, Mertonek onelako irizpidea zuen monastegien zereginaz:



"Niri dagokidanez gero eta uste andiagoa dut nire zeregina barnenetik bizi dudan tradizioa argitzea dela: jakinduria eta espirituz betetako tradizioa, ez dela soilik mendebaldeko kristautasunekoa, baita ere ortodoxoetan, eta antzeko eran Asian eta Islaman. Zentzuzko izatea, oreka eta bakea lotuta daude iraganean baliozko izandakoari jarraitzea. Baina au ez da soilik banakoen zeregina. Benetako garrantzia du Eliza eta munduarentzat"

Mertonen ikasle nobizio eta apaizgai izan zen Ernesto Cardenal-ek dio asiera maisuarekin zituen elkarrizketa espiritualak utsean uzten zituela, sarritan Nikaraguako egoera kultural eta politikoaz albisteak mintzatzen aritzen zirelako. Baina aurrerago Mertonek ikusarazi zion ez zuela bere garaiko egoerak aaztutzat eman bear, ez zegoela bateraezintasunik bizitza kontenplatiboa eta ekintzazkoa artean.

Cardenal-ek Nikaraguan Solentinameko elkartea sortzean Mertoni argibideak eskatu zizkion. Eta onek erantzun leenengo betebearra zela betebearrik ez jartzea. Agian idealismoz beterik, Mertonek egitura gutxiko eta Espirituak mugitutako elkarte baten ametsa zuenJoan Baez kantariak Thomas Mertonek bere anaia John Paulen, II. Mundu Gerratean ildakoaren gomutaz sortutako poema abesti bezala musikatu zuen.

Californiako Santa Barbarako Erakunde Demokratikoetarako Ikasguneko sortzailea zen Ferry dio Mertonek munduari emandako leen begirada maitasunezkoa zela, eta gero jakinduriazkoa, eta azkenik ironiazkoa. Bere iritziz, Merton ez zen soilik pertsonai erlijioso eta morala izan, batez ere gizon andi bat izan zen. Dalai Lamak "gehe" deitu zion. Au da: "jakituna" "katolikoa" eta "gizon santua". Eta gaineratzen du santua dela dakiena praktikara zintzoki eramaten duena, eta asko jakiteaz gain bizitza arrunta eta xumea daramana, besteak errespetatuz.

Jean Jadot, ez-kristauentzako Batikanoko Idazkaritzako buruak iru balio sakon antzematen zituen Mertonengan: leena, naturarekiko arremana, bigarren barnetasunerako joera, gizaki guztientzat bearrezko dena, eta azkenik arreman pertsonalak, besteekin bateratzeko eta komunikatzeko bide bezala.

John Eudes Blamberger, 1950 urtean Mertonen nobizio ikasle izandakoa, eta gerora Getsemaniko monastegira atxikitako Nueva Yorkeko beste monastegian 1971. urtean abate zenak zioen Merton monjearen izaeraren muina barkatua izatearen bizipena zela.

Blamberger-ek oroitarazten du Mertonek autobiografian kontatzen duela bere aita il eta gutxira Erroman hoteleko gelan zegoela, aita ustekabean azaldu zitzaiola. Aita margolaria izan zen, eta buruko tumoreagatik azkenaldira ezin zuen itzik egin. Mertonek ospitalean bisitatu zuenean aita irudi txikiak marrazten ari zen ñsantu bizantinoak- erlijiotasun sakoneko ikonoak. Bere aita Erroman espiritualki presente egitearen gertaera orrek bere barnean aldaketa sakonak eragin zizkion. Bestalde, eguneroko bizitzan Mertonengan jarrera kontrajarriak aurkitu zituen: umore onekoa eta aldi berean leorra, besteei begirunea eska eta eska, urbila eta aldi berean urruna San Bernardoz asko idatzi eta aditua den Jean Leclerq-ek dio Mertonen espiritualtasuna bizitza osoa otoitz-bide bezala zuzentzean laburbiltzen dela.

Monica Fulong-ek Mertonen biografiaren azken atalean onen nortasunaren ezaugarri batzuk agertzean bizitza bete eta landua izan zuela aipatzen du. Baita aldi berean xume eta pobrea. Goizegi umezurtz geratzeak bizitza onetatik aratagoko bizilekua bilatzeari etengabe ekin zion. Oreka lortzeko zuen bear biziak ulertarazi diezaguke bazterrean bizitzeko joera, bakartasunerako jarrera eta ain abegikorra izatea, oreka zailean garatzen zuen errukitasuna eta urruntasuna. Laster sentitu zuen bizitzan zeregin "berezira" deitua zela, batzutan era erromantikoan ulertua,

E

bestetan ia puntako neurosian. Bultzatzen zuen asmoaren anditasunak eta zituen gatazka, frustrazio, okerbideak bere idazlanetan ain argi eta biziki adierazteak ispilu lana gertatu zitzaion, non askok ikus genezake gure duintasun andiaren txikitasuna, gure izaera bikoitza galdua eta orbangabea. Bere garaiko eta gizartekoa zela onartuz, gainditu nai izan zituen bere ni-a aurkitzeko, monastegia alboratu nai zuen munduaren bertsio obetua bezala ulertzen zuen. Monastegi bizitzak isolamendua bazekarkion jatorrizko esanai erlijiosoa galtzeko arriskua zekarkion, eta itxuraz obetu gizateriarekiko gorrotoa, beldurra eta errudun sentimendua. Dena den, maitasunezko bateratze asmoak balizko isolamendua litekeena urbiltze eta elkartze-bide egin zitzaion.

Fulong berak nabarmengarritzat ematen ditu ezaugarri auek: oiko osasun arazoak, mugarik gabe lan fisiko eta intelektualerako jarrera, irakur eta idazteko gaitasun aparta, monastegiko Arauei benetako leialtasuna, egunero otoitza eta gogoeta eginbearrak zintzo betetzea, eta yoga eta zen bideko auto-ezagutza ariketa.

Denok ados dira Merton bere autuari guztiz leial eldu ziola, leialtasun ori bizitza monastikoan bizi zuela, eta ortik Jainkoarekiko bidea egiten saiatu zela.

Tradizio ezin obe ezagutzen zuela, eta zenbaitetan bizitza monastikoa berritzearen aldeko aotsa izanik, ez zein inoiz geratu azaleko xeetasunetan. Bein eta berriro errepikatu zuen ongi prestatutako monjeak, eldutasun eta prestatuak zirenak, elkarrizketa sendoa izan bear zutela barne mailan giza obekuntzaz eta bizipen espiritualaz arduratuta zeuden pertsonekin: poetak, filosofoak, psikiatrak, artistak, monjeak euren antzeko "profesionaltzat" ar zitzaten, naiz eta egunerokoaren ikuspegi eta bizipen desberdinak izan.

Ezaugarri auek nolabaiteko arriskua dute guk geure irudimenez bere nortasun itxura bat egiteko, agian idealizatuz. Komeniko zaigu bere izaera zeatza ezagutzea, monastegikide zituen aipamenak kontutan artuz: esku eta anka txikikoa zen, janzkera landugabekoa, itz egiten zuenarekin beti adeitsu, begirada bizia, umore on eta alaitsuko mintzoa bazuen ere asko eskertzen zituen isiluneak tartekatzea, eta izketak geiago ematen ez zuela sentitzean amaiera bereala ematen ziona. Denbora aurrezteko joera trinkoa zuen, eta besteekin egoteari uko egiten ez bazion, ez zuen inola ere denborarik galdu nai. Sakon konzentratzen zen, eta lanean antolamendu onekoa zen. Egunerokoak xeetasun osoz prestatzen zituen. Izketan atsegina, eta beti ikuspuntua interesgarriak ematen zituen, gaia edozein zela ere.



Errespetu andiz entzuten bazuen ere, zerbaitetaz iritzirik bazuen oso zaila izaten zitzaion ikuspuntuz aldatzea. Oso azkar idazten zuen, eta ez zuen sekulan siestarik egiten. Baina ez zuen onartzen ez beretzat ez nobizioentzat lanagatik otoitzik denbora murriztea. Eguberri eta Corpus Christi jaietako apaingarriak oso desatsegin zitzaizkion.

Gaueko otoitza oso gogoko zuen. Pertsonak eta natura biziki maitez ituen. Basoan ibiltzeak zoriontsu sentiarazten zuen. Nekazal tresneria ez zuen gustuko, eta landetxeko lanak geiago begiratzen zituen ikuspuntu erromantikotik praktikotik baino. Beste arlotan teknologia miresten zuen. Eskulanak estimu andian zituen, naiz eta bera ez izan orretan trebe. Sukalderako ez zuen gaitasun andirik, eta erremintak erabiltzen aldrebesa. Elkarte bizitzan ez zitzaion garrantzirik ematen, eta batek baino geiagok urteak igaro ondoren jakin zuten konbertsioa kontagai zuen "Zazpi zirkuluen mendia" liburu arrakastatsu eta best-seller-aren egilea aita Louis, monje bezala erabiltzen zuen izena, zela.

Liburu orretan Kentucky-ko Getsemani monastegitik era unkigarrian kontatzen du katolizismora egindako ibilbidea.

Ernesto Cardenal bere nobizio izandakoak uste du Mertonek Estatu Batuetaz ikuspegi ezkorra zuela, eta Latinamerikako egoera ekin ziola, kultura ura obeto ezagutzeko. Esanekoa zen, agintzen zitzaiona betetzeko prest. Ala ere, desadostasun nabariak izan zituen bere nagusiekin. Baina beti amore eman zuen, nagusien zeregin berezia salbamenaren mugimenduan kokatzen baitzuen. Intuizioz beteriko pertsona bezala, ausarta zen asmoak errealitatera ekartzerakoan, anka sartzeko beldurrik gabe, eta batzutan okerrak izan zituen. Bere elkartekideek zatitzaile bezala izan zuten, ditxosozko "eztabaidatzailea", galdera irekia eta erantzun gabekoa; gizon libre bat. Berarekin bizitako monje batek zioen "elkartearen leen lerroan kokatua zegoela", baina beste batzuk bazterrean bizi zen "iraultzazale" bezala ikusten zuten. Profeten ezaugarria.

Bizitzaren amaiera aldera erizain gazte batekin arreman delikatua izan zuen. Gertatutakoa aiturtu zuen, eta bere zenbait biografietan ageri den pasartea da. Bere elkarteak zuur eta ulermen andiz jokatu zuen, eta bokaziotik urrundu baino erabat eta sakonkiago bokazioari eldu ziola onartu zuten.

Mertonen pentsaera bi iruditan oinarritzen da: bidaia eta ni-a. Betiko biziaren eguzki argi bila doa monje ororen bizitza. Bizitza monastikoa ibilera da, eta benetako ni-aren bilaketa bakardadean egiten da. Bi irudi auek Estatu Batuetako literatur tradizioan geri dira, kolonizazio garaietatik. Estatu Batuetan norbanakoek etika protestantea eta zorroztasun kalbinistaren eraginez betebear espirituala eta jainkotasuna oso kontutan izaten dute. Eta orrek zenbaitetan zapalketa eta menderatze politika onartezinetara eraman du. Naiz eta Mertonek tradizio puritano orretatik etorri, bere idazlanetan "berekoitasunaren" zirrikitu sotilak argitzen aalegintzen da.

Banakoen berekoitasunak ekonomia mailan kapitalismo gordinera eraman duenez, Mertonek teologia prometeika deitzen dio.

Teologia orrek gizakiek jainkoei sugar sakratua lapurtzea onesten du... baina gizakiak Adanetik ona jaso du dagokion izaera benetakoa.

Mertonek barne isiltasunean murgiltzeko ausardia eskatzen du, baita bakarti den baino Jainkoaren bila dabiltzan besteekin bakardadea partekatzeko arriskua. Bakartasun orretan jardunez itzetik aratago dagoena antzeman genezake. Bide orretan, benetako ausardia ez da soilik barne bakardadean egotea, baita besteekin partekatzea ere.

Bizitako ibilerak erakutsi zion konbertsioa amaiera gabeko bidea dela, eta "garena izaten" datzala, au da, era xumean.

Thomas Merton ikastegia inauguratzera joan zenean, Merton berak esan zuen idatzia zuen guztia egi mamitsu batean laburbildu daitekeela:

Jainkoak guztioi berarekin bat egitera deitu gaituela, eta gure artean Kristo bidez gorpu mistikoa den Elizan batzera.

Mertonentzat gizartea orriaren alde bat da, eta bestea bakardadea. Bietan historiaren erantzukizuna ezbairik gabe geure gain dugu.

Biziaren zuaitza betierean, eternitatean, errotua badago ere, orainaldira zabaltzen ditu adarrak. Mertonen aburuz, historian egin bear dugu gure bidea, eta kristau bezala dagozkigun betebearrak zuurtasunez bete bear ditugu.

Patxi Otamendi



Bakioko Toponimia

Zer da toponimia?

Leku-izenen jatorria eta esangurea ikertutea da toponimia. Beste alde batetik, leku eta sasoi jakineko leku-izenen moltsoa be bada toponimia.

Toponimoak gure kultura ondarearen oinarrizko osogarriak dira. Ingurunearen lekukoak ez eze, gure arbasoen berbeta, ekandu eta bizikeren lekukoak be badira. Ingurunearen giza-estalgitzat jo geinkez. Askotan, gizaldietan bizitako jazokera eta siniskerak (gomutapen istorikoa) igordita dagoz. Alan bada, izadia (lurrazala) zein giza-artuemonak bideratutako bizimoduagaz zerikusi arteza dauke. Euskalerrian ugari be ugari dira. Euskerearen ondasun eta altxorraren alderdietariko bat egiten dabe. Arbasoak geuri itzita. Aberastasun bakarra da, bakuna, daukazan ezaugarriak daukazala.

Bakiok, kasu onetan, edota beste edozein errik be, munduan berak baino ez daukana, beraren langorik inon ez dagoan Toponimia. Izan be, toponimoak inguru geografiko jakin bateko agozkotasunaren emoi artezak dira, geure kasuan euskalkiaren emoi artezak. Eta euskalkiak euskerearen errealidade, istoria, askotasun eta jatortasuna gorde egiten dabez. Euskerearen mundu sinbolikoa, atan be.

Bakioren ganeko zertzeladak.

Bakio Uribealdeko eleizatea izan da. Udalerriak 16,8 km2-ko azalerea dauka, bertan, apur gorabeera, 2.300 biztanle egonkor dagozala (2010). Bakiogazko mugan Bizkaiko itsasoa iparraldean, Bermeo sortaldean, Mungia egoaldean, Mungia eta Jatabe sartaldean dagoz. Luzeran 6 km-ko itsasertza dauko Bakiok, bertan 982 m-ko aretzea eta **Gaztelugatxeko** biotopo babestutako ingurua dagozala. Bakio inguruan dagozan mendiak **Burgoa, Garbola, Tallu** eta **Jata** dira. Udalerriko auzo

E

istorikoak, bestetik: **Artzalde, Goitisoloalde, Elexalde, Urkitzaurrealde, Zubiaurrealde, Gibelortzagako San Pelaio.** Bertakotzat artu leitekezan abizenak: **Artetxe, Azeretxo, Barturen, Benguria, Elexpuru, Errenteria, Gabantxo, Garai, Gaubeka, Jauregizar, Lorra, Ormatza, Ugalde, Uriarte, …**

Euskaldunen kopurua %50ekoa da, ia euskaldunak %15a, erdaldunak %35a. Azkenengo 10 urte oneetan ia 1000 bizilagun geiago etorri dira errira, geien-geienak erdaldunak, euskaldunen kopuruari beerantza egin eraginez. Bizitoki eta turismo gune biurtu da Bakio, udan 18.000 biztanle (udatiarrak-aretzea) egoteragino, geien-geienak be erdaldunak. Lurgintzak badauka euki zeozelango lebarik erriko ekonomian, batez be, txakolin-maastiak eta ortuariak dirala-eta, baia, leengo sasoien aldean txikerra. Ostera, zerbitzu arloa nagusi da gure errian.

Bakio, bilbotarren diruari dantza dagio.

Bertako berbetea bizkaierea da, sartaldeko bizkaierearen barruan, Plentziako aldaerea deritxonaren barruan sartuten izan da.

Bakio, aparta akio, aal baakio; lapa-salda dario.

Erriko toponimia batuteko elburuak.

Zergaitik? Bakio erri euskalduna da. Euskaldun nortasuna berezkoa izan da bertan. Nortasun ori jagon bear eta jagon egin gura dogu. Toponimiari eutsi eta bera jagon ezkeroan, berezko nortasun ori indartuko da, igaroaren lekukoak aurrerantzean be bizirik iraun daian.

Gizaldietako bilakaera istorikoak eragindako okerkeriak arteztu bear dira. Jatorrizko leku-izenak atzera eskuratuaz batera, kolonizazinoak (administrazino arrotza) ekarritakoak errotik kendu gura doguz, akulturizazino eta asimilizazino prozesuari galgea sartu aal izateko. Ainbat eta ainbat dira, zentzubakokeria edo ezjakinkeria dirala eta, itxuraldatu zein errotik ezabatuta dagozan benetako toponimoak.

Erdaldunen (udatiarren) eragin erdalzaleak eragin deutso nortasun orreri, kalterako eragin be. Eragin laskin (agozkoa zein idatzizkoa) ori lotu bear dogu: Alto de Baquio **(Landabarrena)**, Peñas Rojas **(Axkorriak)**, El Barranco del Infierno **(Zarraga)**, Fuente Helada **(Buztindiko iturria)**, La Fuente de la Capilla **(Makatzeko iturria)**, La Isla de los Conejos **(Aketxe)**, El Calero **(Karabia)**, El Cabo **(Birjilandape)**, Los Canales **(Ortutxu)**, Eneperi **(Urizarretako landea)** (dagonilaren 31-Mungialdean), …

Azentu eta agoskerea: Játa / **Jatá-dxatá**, Báquio / **Bakió-bakidxó, ...**

Alandaze, askotan erabilten diran idazkera, agoskera, azentu eta joskera arrotzak baztertu egin bear dira. Eta berezkoari eutsi, au da, euskerazkoari.

Galdu baino leen batu bearreko arloa izan da eta bada (zaarrak, baserritarrak). Alan bada, batez be agozko toponimia batzea erabagi genduan 2000. urtean, aalik eta informazinorik zabalena, atan be. Gazterik geienak arean gitxi edo tutik be ez dakie arlo orretan. Berton transmisinoa be lotu egin da. Bakion ez eze, Euskalerri osoan be egoera bardintsu dagoalakoa daukagu.

Zertarako? Geure-geureak diran leku-izenok geurean euskeraz erabili bear dira, euskerearenak diralako.

Leku-izen bakotxaren agozko eta idatzizko aldaerak batu, euren artean izen normaldua aukeratuteko. Leku-izen baten agozko eta idatziko izenak sarritan ezbardinak izaten dira.

Toponimoak batu ostean, normaldu eta ofizialdu bear dira (berbakuntzearen normalkuntza geografikoa).

Elburu praktiko-didaktikoak: normalizazino administratiboa, erriko eskolea, liburua, CD-ROMa, mapak… Informazino ori ez galtzea.

Erabilera praktikoa: kanpo zein barruko seinalizazinoa (bideetako iragarkiak), agiri-idatziak, mapak, testu-liburuak (erriko eskolea), edabideak, …

Berbakuntza elburuak: agoskerea, azentua, etxekoek darabilezan deiturak, erriko euskerea ikertutea, ... berbeta transmisinoari eutsi aal izateko, azken baten.

Agozko erabilerea ez galduteko (fonetika, fonologia): **Karabia / kárabidxe** (kare+obia), ... Orregaitik grabaketak egitea, gero informazino ori CD-ROM formatuan atarateko, orren garrantzizkoa izaten da.

Zer batu? Toponimia nagusia: itsasoa, erriaren izena (Bakio), albo-errien izenak, mendiak, inguruak, erreka nagusiak, ugarteak, auzoak, bide nagusiak, mendi -lepoak, trokak, aretzea, …

Toponimia txikia : etxeak, soloak, basoak, adar-errekak, iturriak, bideak, tokiak, sakostak, atxak, itsasoko atxak, kurutzeak, mailadiak, zubiak, arrobiak, atxuloak, errotak, olak, eleizak, baseleizak, ugarte txikiak, urtokiak, …

(oronimia, idronimia, fitonimia, zoonimia, oikonimia, agionimia…)

Toponimia batu ez eze, toponimia bera kokatu be egin bear da, ezin egin leiteke bear au gitxi gorabeeraka, toponimia gauza zeatza da eta.

Metodologia.

Agozko Toponimia. 2000. urteko irailean asi gintzazan bear onegaz, agozko toponimia batuten, Iñaki Gaminde taldeko buru zala, Ester Elgoibar, Ander Olalde eta laurok. Taldean egindako bearra izan zan, bada.

Alkarrizketak egiteko, laguntza eran, bear ziran: argazkiak, planoak, mapak, barriemoileak.

Etxearen izenetik asi eta albokoetara, auzokoetara, beste auzoetara igaroten gintzazan: etxeko soloak, auzokoenak, inguruak, errrekak, mendiak,… Izenak argazki edo mapetan kokatuten genduzan.

E

Barriemoilearen perfila: aalik eta zaarrena, baserritarra, andrazko zein gizonezkoa, euskeraz alfabetatu bakoa bazan obeto (esaterako, Jesusa Ormaza - Otsategikoa: etxeko soloa ez zan solo bat berak azkenengoz eraitakoa, orregaitik ekian berak, Jesusak, solo aren izena).

Barriemoilearen zertzeladak: izen -abizenak, urteak, nongoa (etxea), aita -amak nongoak (erria, etxea). Barriemoilearen argazkia.

Non: Bakion bertan batez be, nozonoz be alboerrietara (Mungiara, Bermeora eta Bilbora) joan bear izan genduan arren. Etxe guztietara joan bear izatea (norberaren soloak bakarrik jakin). Or ikusi genduan barriemoile asko eta askoren mugea. "Eragin esparrua" esan izan geuntsan orreri. Toponimia txikerrari jagokonez, kontuan artuteko arazoa da. Toponimia nagusian be arazoa agertuten da. Aitatutako eremu orretatik kanpo barriemoileak nekez eta zeaztasun barik jakin eta kokatu leikeez leku-izenak.

Noz: Astean bein. Egunean 3 edo 4 alkarrizketa, ordu betekoak. Urte bete eta iru ilabeteko bearra (≈120 alkarrizketa) izan zan. Grabazinoak egin zein aldi beratan agozkoa idatzizko informazinoa be batuten ibili gintzazan (3 lagun).

Digitalizazinoa (Iñaki Gamindek). Itaunketarik geienak grabatuak izan ziran. Orretarako Minidisc deritxon grabagailua erabili genduan, kanpoko mikrofono bategaz. Au da, grabazino guztiak digitalak izan ziran. Gero, grabatutako materiala irauli egin zan ordenagailura COOL Edit Pro deritxon soinu editorearen bidez. Material ori CDetan gordeta dogu. Transkripzinoak egiteko Bilboko Ingeniaritza Eskoleak garatutako AHOT aztergailua erabili genduan.

Idatzizko Toponimia. Idatziz dagoana batutea: planoak, mapak, liburuak, jaubego paperak, agiritegiak (Eleizearena, udalenak, Foru Aldundiarena, ofizialak, kartografia arlokoak, bibliografia, …), agiriak, toponimia arlokoak, … (lagun bakarra ibili da). Bear luze, sakon eta arean gogaikarria dalako, eroapen andia eskatuten dau. Arlo onetan ez genduan orduan, asikeretan, lar sakondu, leenengo-leenengo agozkoa batutea elburu nagusitzat euki gendualako. Toponimia idatzia batuteari gerogarrenean ekin geuntsan (lagun bakarrak), sakon eta etenbarik 2002. urtetik aurrera (eta daborduko amaitu barik dago). Izan be, bear-bearrezkoa da arlo ori be jorratutea, toponimiaren ganeko ikuspegi zabala edo osoa euki aal izateko.

Alan bada, orain artean, idatzizko toponimia batuteko urrengo agiritegietan egin dogu bear urteotan, bearra eurotan oraindinikarren amaitu barik badago be:

Bakioko Udal Agiritegia	**(BAUA)**
Bermeoko Udal Agiritegia	**(BEUA)**
Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegia	**(BFAA)**
Bizkaiko Eleizearen Historia Agiritegia	**(BEHA)**

Bizkaiko Agiritegi Historiko Probintziala (BAHP)
Gernikako Jaubetza Erregistroa (GJE)

Euskalerriko eta Euskalerritik kanpoko beste agiritegi batzuetara joatea eta an ikerlana egitea be aurreikusi dogu.

Datuak batu eta gero, informazinoa eratu, atondu eta kokatu egin bear da (mapak, toponimia arloak, liburua, CD-ROMa…). Batutako toponimiaren txostena eta mapa batzuk egin genduzan Udalari eta Euskaltzaindiari aurkeztuteko, erriko toponimiaren normalizazinoari begira, jakina. Alan bada, Bakioko kale-izendegia (inozkorik leenengoa) egiteko, batez be, erriko toponimian oinarritu zan (2005). Ori baino leenago, Inaki Gamindek, CD-ROM formatuan, Bakioko toponimiaren ganeko material didaktikoa atondu eban erriko eskolan erabilteko.

Arazoak, oztopoak.

Eskrituretako eta bestelango agirietako leku-izenen transkripzino txarraren ondorioa (eskribau erdaldunak, idazkera txarra): izen desitxuratuak. Gizaldi askotako gatxa izan da. Administrazino euskaldunik ezaren argibide garbia. Kolonizazinoaren ondorioa eta bidea, aldi beratan.

Leku-izen askoren itxuragaltze ori eskuz idatzitako agirien kaligrafia txarra edota ulergatxa dala-eta dator. Idatzi be, XX. gizaldira arte eskuz idazten ziran jaubego eta osterantzeko agiriak be. Au berau eta arteragokoan aitatutako eskribau erdaldun edo erdaldunduak sortutako naastea izan dira leku-izen askoren itxuragetzearen errudunak. Adibide batzuk aitatutearren:

Artechebanda	→	**Artetxelanda**
Asteneca	→	**Arterreka**
Astocillo	→	**Artezillaga**
Ozagas	→	**Oiaga**
Solorragosi	→	**Solonagosi**

Udal administrazinoaren urte askoko itzikeria: aurreko gizaldiko 5. amarkadako jaubeen zerrendea, oraindinokarren, eguneratu barik dago. Erriko parzelazinoa jaubeen izenen arabera eginda dago, baina lurren izenak kontuan artu barik. Lurrak saldu-erosikeran, geien-geienetan, ez dira lurren izenak aitatuten, alan bada, askotan be, ezta saltzailearen jaubego paperak aurkezten.

Erriko lur asko Aldundi edota Udalarena da (erri-lurrak, erri-basoak). Udala erriko lurren jaubeen artean andienetarikoa izanda, udalak ez daki ze izen dauken berarenak diran lur guzti orreek, artxiboaren zati andia orain dala ogei urteko urioletan galdu zalako, aurki.

Katastroa guztiz naastuta dago. Lurrak saldu eta saldu, azkenean, lur orreen izenak galduz joan dira. Sarritan lurron deskripzinoa baino ez da egiten, euron izenak aitatu barik. Lur-saila bat beste txikiago batzuetan zatituten danean, esate baterako. Aldundiaren mapak bata besteagaz batera etorri ez, mapa baterik bestera agiriko alde eta oker andiak dagoz ("apur gorabeerako" eskalak).

Leku-izenak kokatu egin bear dira (mapak, argazkiak). Askotan arazoak egon dira toponimoen benetako lekua zein dan jakiteko (basoak), au da, leku-izena be-

E

raren lekuan kokatuteko. Barriemoileen ezbaiak ortxe zerikusia euki dabe. Batzuetan, barriemoileen adinak eraginda, arazoak izan genduzan lekui-zenak argazki edo mapetan bear dan lekuan iminteko (ikusmen urria, mapak erabilteko oiturarik eza, …).

Etxe batzuk utsik egozan eta ezin izan genduan or barriemoilerik idoro. Alan bada, or agozko datuak batzerik ez zan egon. Bizimoduaren aldaketa sakona dala eta (orain dala 40 urte azkenengoa), ondorio lazgarria.

Barriemoile batzuen ezjakintasuna, kulturarik eza, zekenkeria, konfiantzarik eza ("bazatoze bakez?"), udalagazko asarre bizia, … dirala eta, ezin izan genduan euretatik ezer andirik be lortu (Esan bear da, baia, olango 4 kasu baino ez zirala izan).

Onetan, aitatu bear da batez be, Bakioko Udalak erabili dauan eta darabilan urigintza politikea dala eta, etxe askotan asikerako deskonfiantza (beginorkeria) eta bildurra goitu bear izan genduzala, gero ondo be ondo esan baeuskuen be. Egia biribila bada, errian asko eta asko bape bat ez datozana Udalagaz arlo orretan. Orrek zer pentsaurik eragin bearko leuskio bateri baino geiagori.

Egindako bearraren emoitza -argibide batzuk.

A.– Soziolinguistika arlokoak:

Gizaldietan ostenduz joan jakuz leku-izen istorikoak, izkuntzearen barruko ordezkatze prozesua dala-eta: San Juan/Gaztelugatxe, San Migel/Zumetzaga, …

Administrazino eta ezkuntza erdaldunaren eragin sakona. Gaur eguneko euskaldunen kulturan izen ofizialak erderazkoan esateraginokoa, eurek erriko berbetan eta oiko artuemonetan beste era batera, euskeraz, entzun, esan eta erabili arren: súbidxorre / Zubiaur … Abizenak bardin ebaten dabez: Larrazabal, Ormaza, Zugazaga, …

Toponimoak zein antroponimoak ebateko era ori jasoago eta jatorragotzat dauke, betiko ebakerea ostera, euskerearena atan be, askok baserritarkeria eta arlotekeriatzat emoten dabe.

Ezin dogu aaztu be, urtean-urtean milazak kanpotarrak joaten dirana Bakiora, udan batez be. Kanpotar orreek, geienak, erdaldunak dira eta euren oitura fonologikoak erabilten dabez Bakioko lekuizenak esaterakoan. Ori luzetara igarri egiten da eta egin egin da daborduko. Eurok euskaldunak izanda be, nekez jakiten dabe zeintzuk diran izenen jatorrizko azentuerea eta akoskerea, erderearen arau fonologiko arrotzak erabilten dabezalako:

Báquio ⟶ **bakidxó / Bakio**

Leku-izen asko dira etxekoen artean erabilteko modukoak, bigarren mailako toponimotzat artuten dabez, eskrituretan beste izen bat dakarrela. Agirietan agertuten diran izenak eta etxean erabilten diranak askotan, bada, ez datoz bat (soloak, basoak). Izen barriak, erosoagoak, erabilten dabez. Zaarragoak eta benetakoak, eurok jakin arren be, baztertuta, aaztuta, galduta lotuten dira (paperetako leku-izenak inoz agozkoak be izan dira, zaarragoak):

tionikolasen soloá

sarrátu/mungílleta (Ormatzako Migelen aitak)

Toponimo asko mugatuak dira, paperetan zaarrenak, eta gaur egun, agozko erabilkeran, mugabakoan erabilten dira.

Zer dala eta galdu da "-a" artikulu mugatzailearen betekizuna?:

Bazterretxea / *bastérretze*	Beitia / *beitxí*
Bengouria / *bengúri*	Etxebarria / *etzébarri*
Goikoetxea / *goiketzé*	Goikolea / *goikolá*
Goitia / *goitxí*	Zaitua / *saitxú* …

"-a" artikulu mugatzailea agertuten da beste askotan be, solo eta basoen izenetan, batez be. Baina badira izen orreek benetako toponimoak ala etxean erabilteko deitura utsak? Non dago bien arteko mugea?

Goikosolo / Goiko soloa
Solotxiki / Solo txikerra …

Oikonimia: Etxeen izenetan egon da benetako ordezkatzea, benetako izenak ostuta eta ezezagun lotu dirala. Gure uste apalean, fenomeno au 100 urterik onantzakoa da. Erriko etxe asko euroi ezizena iminita izendatuak izan dira azken 150 urteotan. Eta orretarako "-ENE/-ENA" atzizkia erabilten izan da (normalean, etxeko biztanleren baten izen edota ezizenetik eratorritako etxe-izenak dira):

Alardone / Aurrekoetxea
Galone / Mintegigoikoa
Gerekane / Larraskoagagoikoa

E

Indxarrane / Larraskoaga
Panadiene / Errotatxu
Patxuelene / Bekoetxe …

Ez danak (benetakoak, oso zaarrak diralako): Gortena/Kortateta, Muxikena, Zaituena, Ostiena/Ostiga, …

Beste batzuetan, ostera:

Bastei / Luzarragagoikoa
Martinetzea / Urizarreta
Sandxoalde / Erkoreka
Larrondo / Larrazabala
Martinpoda / Garaietxe
Euntzerri / San Pelaio …

Erriko toponimia/antroponimia. Erritar askoren abizenak erriko etxeen toponimiagaz bat egiten dabe. Batzuetan, etxearena eta etxekoen abizena izen bera izaten da, orain dala 300 urte oikoa zana: Agirre, Altzaga, Artetxe, Azeretxo, Barturen, Benguria, Elexpuru, Erkoreka, Errenteria, Gabantxo, Garai, Gaubeka, Goitia, Jauregizar, Larragan, Olazar, Ormatza, Ugalde, Uriarte, Zabala, …

Leku-izen Istorikoak (Muxika zein Butroi etxekoak oinaztarrak ziran, alantxe izan zan Bakio be): Butroetxe, Muxikena, …

Toponimo zaarrak/toponimo barriak. Leku-izenik geienak Erdi Arokoak ei dira. Zeintzuk dira zaarrenak? Normalean, mendi, inguru andi, erreka eta etxe zaarren izenak, beste batzuen artean. Barrienak, ostera, soloen izenak izaten dira. Toponimo zaarren artean: Amutzaga, Armurua, Azeretxo, Bakio, Basigo, Barturen, Erkoreka, Garrakola, Gaubeka, Jata, Minitua, Zarratxo, Zeuba, Zumusu, … Toponimo barrien artean: Arbebaso, Erdikoetxe, Garaisolo, Iparragirre, Lurbarria, Makuena, Solobarri, …

(-AGA/-ETA; -TI/-DI Urezanti/Urezandi)

Esangura ezezaguna/iluna dauken leku-izenak (leku-izenik zaarrenak, aurki): Amutzaga, Anadio, Andiño, Armurua, Armuki, Azeretxo, Bakio, Basigo, Barturen, Burdingotza, Erkoreka, Gabantxo, Garrakola, Gaubeka, Gorozo, Izuntza, Jata, Minitua, Zeuba, Zeukidi, Zumusu (Zubimusu?), …

Ingurune andietan, bakotxak izena euki badauka be, euren barruan dagozan solo edota basoak be, bakotxak izena eukiten dau: Amundegi /amúndi, Anbieta, Luarreta, Bidetxalde, Idarraga, …

Orain dala 100 urtera arte, XIX. gizaldian (karlistaden ondorioz) batez be, Euskalerriko beste leku batzuetatik artzain etorri ziran lagun asko gure alderdira (gipuzkoar eta naparrak): Ansorregi, Armendaritz, Erauzkin, Imatz, Iturain, Lasa, Sasiain, … Ze eragin euki dabe eurok Bakioko berbetan? Eta erriko toponimian?

B - Erriko berbetearen ezaugarri toponimiko batzuk:

Euskalkiaren ezaugarri orokorrak: -aga, baltz, barren, barri, bedar, burdi, -dui, eleiz, gan/gana, gorta, aretx/aritx, idar, iko, leizar, mustur, solo, toki, txarri, -txu, -tza, uri, zilo, …

Izkuntza berezitasunak:

saila/sail (Saillaluze / txorisail, …)
zulo/zilo (Lukizillo, Txakurzulo, …)

Berba fosilizatuak toponimian: Aldapa (aldapa/aldats-sin.), Belategi (bele/erroi-sin.), Ibarra (ibar/vega-erd.), Lorrekoibi (ibi/⊠-gal.), Nazape (naza/urbide -sin.), Usategi (uso/paloma-erd.), Zintadui (zinta/⊠-gal.) …

Beste euskalkien eraginak (Gipuzkoa eta Naparroako artzainak): Aldapa/Aldatsa, Lurberri/Lurbarri, …

Agoskerea:

Toponimia atzizki batzuen agoskerea Bakioko euskeran:

-AGA/A(+azentua), -IA/IDXE (+azentua):

Karabiaga / karábia
Karabia / kárabidxe
Altzaga / áltza
Amutzaga / amútza
Areaga / aría
Eitzaga / éitza
Idarraga / idérra
Luzarraga / lúsarra
Oiaga / óidxa
Osinaga / usíña
Piperraga / pipérra
Pozuaga / pósoa
Txikoarriaga / txikoarrídxa …

-ALDAI: Aldai / áldei
Faraldai / fáraldei
Mendialdai / mendiálde …

-TEGI/-TEI: Bastegi / bastéi
Belategi / bélatei
Garategi / gáratei
Otsategi / otzatéi
Pipertegi / pípertei
Usategi / úsatei …

-DUI/-DI: Arextui/Arexti …

-ONA atzizkidun leku-izenak (etxeak):

Besondona / besondá
Gorrondona / gorrondá

"J"-ren agoskerea: dxéurisarre / Jauregizarra
dxatá / Jata
dxéuri / Jauregi
dxolapitxiñé / Joanlopetxena
sandxoanálde / Sanjoanalde …

Leku-izen asko, agozkoagaitik, jatorrizko izenetik itxuragetuta eldu dira gure egunotara arte. Orretan azpieuskalkiaren arau fonetiko-fonologikoak garrantzi andia euki dabe. Sarritan, agiri zaarretan gorde dira jatorrizko izenak. Esate baterako:

Zintadui ➔ sintxedui ➔ sintxedi ➔ sintxeri ➔ sintxíri
Mintegi ➔ mintxegi ➔ mintxeri ➔ mintxíri

Azentua:

bakidxó (Bakio), údxerte/udxerté (Uriarte), dxatá (Jata), bélatei (Belategi), kárabidxe (Karabia), …

Atzizki aurreazentuatzaileak (-AGA, -TEGI, -TXU):

Idarraga / idérra Luzarraga / Lúsarra
Belategi / bélatei Usategi / úsatei
Garaitxu / gáraitxu Zaitutxu / saitxútxu

Beste batzuk eurak batuten dabe azentua (-ÁLDE), atzizki azentubatzaileak:

Mendialde / mendiálde
Etxebarrialde / etzebarriálde

(azentuaren barri zeatazgo jakiteko, ikusi 7. atala)

E

Toponimian agertuten diran atzizkiak:

-a (artikulu mugatzailea): Karabia, Bengolea, …
-aga (ugaritasuna): Piperraga, Ametzaga, Oiaga, …
-d(u)i/-t(u)i (ugaritasuna): Sagardi, Amezti, Arextui,..
-eka (bakartasuna): Erkoreka, Gaubeka, …
-ena (etxea): Muxikena, Ostiena, …
-eta (ugaritasuna): Elorrieta, Otandieta, …
-ika (ark.): ⊠
-i(t)z (izen propiotik): Baratiz, …
-kada (ugaritasuna): Saillakada, Axkada, …
-ko (nongo): Aldekoa, Zarrakoa, …
-ola (ugaritasuna): Garrakola, …
-pe/-be (beean): Nazape, …
-tegi (lekua): Usategi, Pipertegi, …
-tsu (ugaritasuna): Urtsu, …
-txu (txikitasuna): Zaitutxu, Garaitxu, …
-tza/-za (ugaritasuna): Urkitza, Maillukitza, …
-zu (ugaritasuna): ⊠

Izenetik eratorritako atzizki edo aurrizkiak (zer/non):

-aldai: Mendialdai, Faraldai, …
-alde: Txirrikalde, Artzalde, …
-baso: Erlebaso, Urkitzabaso, …
-bide: Trabesbide, Andiñobide, …
-bizkar: Solobizkarra, Landatxubizkarra, …
-erreka: Matxaerreka, Ustaerreka, …
-errota: Bekoerrota, Azeretxokoerrota, …
-etxe: Artetxe, Bekoetxe, …
-ezkina: Errekaezkiña, …
-gan(a): Koplagana, Larragan, …
-garai: Ibaigarai, …
-arri: Munarri, Potorroarri, …
-atx: Lukiatxa, Itsastxoriatxa, …
-erri: Auntzerri, …
-ibi: Arextuibi, Lorrekoibi, …
-iturri: Ametzagaiturri, Kandelaiturri, …
-landa: Birjilanda, Andiñolanda, …
-larra: Otalarra, …
-leku: Orbeleku, Lapalekua, …
-lur: Lapikolurra, …
-mendi: Jatamendi, Gaubietamendi, …
-muna: Basamuna, Txitxirritamuna, …
-mustur: Idimusturra, Irumusturra, …
-ola: Goikolea, Bengolea, …
-ortu: Goikortu, Mariortu, …
-potongo: Buruzkoen potongoa, …
-sakon: Gazadiko sakona, Idarragako sakona, …
-solo: Zubisolo, Uribesolo, …
-toki: Abioren tokia, …
-torre: Amantorre, …
-uri: Bengouria, …
-zilo/zulo: Atxulo, Lukizillo, …
-alde: Errekalde, Iturrialde, …
-albo: Etxalboa, …
-arte: Uriarte, Errekarte, …
-atze: Mintuatze, Suteatze, …
-aurre: Ibillaurre, Urkitzaurre, …
-azpi: Etxeazpi, Elorrietazpi, …
-barren: Solobarrena, Andiñobarrena, …
-barru: Esparrua, Gazparrua, …
-beeko: Uribarribekoa, Ibarrabekoa, …
-be/-pe: Uribe, Birjilandape, …
-buru: Arbeburu, Elexpuru, …
-goien: Ormagoiena, Etxegoiena, …
-goiko: Ortubegoikoa, Ugartegoikoa, …
-goiti: Azeretxogoitia, Larraskoagagoitia, …
-guren: Mendiguren, Ibarguren, …
-ondo: Zubiondo, Kontxaondo, …

aurre-: Aurrekosolo, Aurrekoetxea, …
barru-: Barrukosolo, …
beeko-: Bengolea, Bekoerrota, …
erdi-: Erdikosolo, Erdikobenta, …
goien-: Goienburu, Goienetxea, …
goiko-: Goikolanda, Goikosolo, …
goiti-: Goitipe, Goitisolo, …
andiko- (adb.): Andikoetxea, Andikosolo, …
argi-: Argilla, …
baso-: Basarte, Basigo, …
bazter-: Bazterretxea, …
benta-: Bentabarri, Bentazar, …
bide-: Bidezarreta, Bidezabal, …
bizkar-: Bizkarreko soloa, …
bolin-: Bolintxu, …
burdi-: Burpidieta, …
buztin-: Buztindi, Buztiñasolo, …
eleiz-: Elexalde, Elexpuru, …
ermita-: Ermitondo, Ermitaurre, …
erreka-: Errekondo, Errekalde, …
errota-: Errotabarri, Errotatxu, …
etxe-: Etxegorri, Etxeburu, …
gan-: Ganbiribilla, Gantxu, …
garai-: Garaikoetxea, Garaitxu, …
gatz-: Gaziturri, Gazadi, …
gorta-: Gortena, …
aize-: Aixederra, Aixeta, …
are-: Aremuna, Arietxe, …
arri-: Arbe, Arkotxa, …
atx-: Axnabarra, Atxategi, …
egi-: Egiaetxebarri, …
erri-: Errialde, Erripe, …
orma-: Ormatza, Ormazarreta, …
ibai-: Ibaigane, Ibaiondo, …
ibar-: Ibartxueta, Ibarrondo, …
iturri-: Iturrialde, Iturritxu, …
karabi-: Karabizarra, Karabialde, …
koba-: Koba, Kobarte, …
korta: Kortaeta, …
kukutz: Kukutza, …
kurutze-: Kurutzedero, Kurutzeko atxa, …
laba-: Labaondo, Labatzeko soloa, …
landa-: Landabaso, Landabarrena, …
larra-: Larrabe, Larrondo, …
lur-: Lurgorri, Lurbarri, …
mendi-: Mendialde, Mendiguren, …

muna-: Munaondo, Munarri, …
naza-: Nazape, …
ola-: Olalde, Olatxu, …
ortu-: Ortube, Ortukalde, …
osin-: Osinaga, …
palatu-: Palatuondo, Palatugana, …
patin-: Patiña, Patiñeko soloa, …
portu-: Portukosolo, Portuondo, …
pozu-: Pozuilluna, Pozuaga, …
saila-: Saillaluze, Saillamakurra, …
solo-: Soloburu, Solobarrunagusi, …
suerte-: Suertetxikerra, …
taberna-: Tabernazarra, Tabernatxu, …
teila-: Teillaluze, Teilleria, …
torre-: Torrezarra, Torreaurreta, …
tuntur-: Txuntxurra, …
ur-: Urgitxi, Urgura, …
uri-: Uriarte, Uribe, …
zelai-: Zelaiederreta, …
zubi-: Zubiaurre, Zubieta, …
aume-: Aumerreka, …
auntz-: Auntzerri, …
ardi-: Artetxe, …
bazpi-: Bazpibasoa, …
bele-: Belategi, Beleta, …
buruzko-: Buruzkoen potongoa, …
eper-: Epersolo, …
erle-: Erlebaso, Erlieta, …
euli-: Eulisolo, …
atxarrano-: Atxanarrobaso, …
idi-: Idimusturra, …
itsaspotorro-: Itxaspotorroatxa, …
itsastxori-: Itxastxoriatxa, …
lapa-: Lapalekua, …
luki-: Lukiatxa, Lukizillo, …
muxarra-: Muxarratxa, …
otso-: Otsategi, Otsategitxu, …
potorro-: Potorroarri, Potorroatxa, …
txakur-: Txakurzulo, …
txarri-: Txarrisolo, …
uso-: Usategi, Usobekoa, …

Adjektiboetatik eratorritako atzizki eta aurrizkiak (zelangoa):

-bakar: Arixbakarra, …
-baltz: Ikobaltzaga, Zubibaltza, …
-barri: Etxebarri, Egiaetxebarri, …
-biribil: Saillabiribil, Axbiribilla, …
-eder: Zelaiederrak, Aixederra, …
-gorri: Etxegorri, Lurgorri, …
-andi: Atxandia, Maastegiandia, …
-ilun: Pozuilluna, …
-laban: Arrilabana, …
-luze: Landaluze, Saillaluze, …
-makur: Saillamakurra, …
-motz: Axmotz, …
-nabar: Axnabarra, …
-nagusi: Solonagusi, Axnagusia, …
-on: Larraona, …
-oker: Atxokerra, …
-txiki: Solobarrutxiki, Atxagatxiki, …
-sakon: Subiltegisakona, Zabalsakona, …
-zabal: Solozabala, Larrazabala, …
-zaar: Torrezarra, Jauregizarra, …
-zuri: Etxezuria, Zurtzuri, ...
argal-: Argalbaso, …
eder-: Ederiturri, …
gorri-: Gorri-gorri, …
matxar-: Matxaerreka, …
txatxar-: Txatxaerreka, Txatxarre, …
zabal-: Zabalsolo, Zabalondo, …
zear-: Zearratxa, …

Toponimiagaz zerikusia dauan batutako lexikoa (espazio geografikoa):

abadetxe, abaro, adar-erreka, aldapa, aldats, alde, alderdi, aldetxe, alborabide, andabide, andapara, argi, arlo, arkupe, arro, artezbide, aurbeera, auzo, auzodi, auzune, barren, basatza, baserri, baso, basobide, bazter, bedarleku, bedartza, benta, beresi, bestalde, bide, bidekurutze, bidezidor, bizitza, bizkar, bolaleku, bolatoki, bolin, botxo, burdibide/burpide, burre, buztin, buztindi, buztingorri, eguzkibegi, erreka, erreka -mustur, eleiz, ermita, erreka, errekarte, errekatxu, erromara/erromada, erro-ta, ertz, estrata/estratza, etxalde, etxe, etxeatze, etxeburu, ezkina, galtzada, gane/gan, garai, gerizpeleku, goi, gorta/korta, are, aremune, aretza, arkidi, arri, arribola, arritxingor, atx, atxarte, atxulo, egi, erri, erribaso, erribide, orma, ibai, ibar, ibi, igeltseri, ikazleku, inguru, iraleku, itsaso, iturri, jauregi, kale, kantoi, karabi, karatx, koba, kontrasol, kukutz, kurutze, kurutzedero, laba, landa, lantzar, larra, lauune, leixibaleku, leixibarri, leku, leunada, leunune, leza, lezazulo, lorrintza, lupetza, lur, lurbarri, lurbeera, maila, mendi, mintegi, montor, mota, munarri, muna, mustur, naza, oinatz, oinbide, oinezbide, oinezko bide, ola, ortu, osin, palatu, patin, pika, portu, potongo, potxingo, pozu, presa, saila, saka, sakaste, sakon, sakondi, sakonune, sakosta, sasiarte, sastegi, sastraka, solo, suerte, taberna, teila, toki, tontor/tuntur, torre, troka, txabola, unada, unekada, urbide/ubide, uri, uriauzo, urlotu, urune, urzabal, zarratu, zatarri, zelai, zidor, ziikintzi, ziikizti, ziikiztiune, ziipilo, ziiporra, ziipotzi, ziipuzti, ziitzeri, zilo/zulo, zordanbide, zordunbide, zotazal, zubi, …

Fitonimoakaz zerikusia dauan batutako lexikoa (fitotoponimoak):

Arantzadi, artedi, gaztainadi/gaztainari, gurbiztidi, altzadi, otadi, pinudi, sagardi, urkidi, ziidui/ziitzadi, zintadui/zintxiri, …

Amezti, gisasti, gorosti/gorostoi, gurbizti, arexti/arextui/arixti, maasti, sagasti, ziikizti, ziipuzti, …

Gorostei/gorostegi, gurbiztei/gurbiztegi, arixtei/arixtegi, maastei/maastegi, maustegi, mintei/mintegi, …

Eitza/iitza, idartza, gaztaiñatza, mailukitza, mintza, pagatza, urkitza, ziitza, zumetza, …

Ametzaga, amutzaga, eitzaga, elorreaga/elorriaga,

Gorostiaga, altzaga, idarraga, ikobaltzaga, intxaurraga, luzarraga, oeaga, piperraga, sagarraga, saratsaga, urkitzaga, zarraga, zumetzaga, …

Ametzeta, aritxeta, elorrieta/elorreta, gaztaineta,

Iraeta, leizarreta, sagarreta, zumarreta, zuzuneta, …

Ametz, amu, arantza, arkazi, arte, atxiko, azkar, bedar, beresi, elor/elorri, gaztain, ginarra, gisats, gorosti, gurbiza, altz, aretx/aritx, idar, ii, iko, ikobaltz, intxaur, ira, kainabera, laranja, leizar/luzar, maats, mailuki, makatz, maus, mimen, min, oe, okaran, orbel, ota, otabar, pago, pinu, piper, sagar, sagats/sarats, sasi, sekulabedar, urki, urretx, zarra, zii/ziipor, zil, zinta, zugatz, zumar, zume, zurtzuri, zuzun, …

Oronimoak (lurraren gorabeerak eragindako leku-izenak):

Aldapa, Arbaillo, Arbe, Areaga, Areagakolanda, Aremuna, Arezabal, Arkotxa, Arriagane, Arrilabanaga, Arriluze, Arroa, Artetxelanda, Artza, Atxaga, Atxarteak, Atxulo, Axbiribilla, Basaguren, Basamuna, Basarte, Basotxuaga, Bedartzako sakona, Buztindi, Errekalde, Errekaondo, Ganbieta, Ganbiribilla, Ganeta, Ibarra, Ibarreta, Ibarrondo, Ibartxueta, Iturrialde, Iturriondo, Landatxubizkarra, Landeta, Larramendi, Larraoneta, Larraskoaga, Longa, Lorrekoibi, Luarreta, Lukizillo, Lurgorri, Mendialde, Mendibiribilla, Mendiguren, Mota, Munaondo, Munarri, Sakona, Sokatxa, Tiromuna, Txikoarriaga, Txuntxurra, Udondo, Ugalde, Ugarte, Urkuillu, Zabala, Zabalondo, Zearratxa, Zelaia, …

Idronimoak (uragaz zerikusia dauken leku-izenak):

Arterreka, Aumerreka, Errekatxu, Gaziturri, Iturriaga, Iturribarri, Iturritxu, Kandelaiturri, Lorrekoibi, Matxaerreka, Osinaga, Pozuaga, Txatxaerreka, Udondo, Ugalde, Ugarte, Urbieta, Uradariona, Urazandi, Ureta, Urgitxi, Urgorri, Urgura, Urzabal, Ustaerreka, …

Fitotoponimoak (landarakaz zerikusia dauken leku-izenak):

Altzaga, Ametzaga, Ametzeta, Amezti, Ameztibarrena, Amutzaga, Arantzadi, Ardantza, Arexti/Arextui, Arextitxu, Aritxamieta, Aritxeta, Arixbakarra, Arixpe, Arixpeta, Arixtegi, Arixtondo, Artezillaga, Artatxu, Artezilla, Azkarreta, Eitzaga, Elorrieta, Elorritxu, Gaztaiñadi, Gaztaiñalde, Gaztaiñatxueta, Gaztaiñatzarreta, Gisasti, Goikomaasti, Gorostiaga, Gurbizondo, Idarraga, Intxaurraga, Ikobaltzaga, Irabiengorrieta, Iraeta, Iraleku, Iramieta, Iruaretxeta, Leizarreta, Elorreaga (Lorréa), Luzarraga, Maastegia, Maillukitza, Makatza, Mimenarte, Mimenondo, Mintegi, Mintzazarra, Miruotabarri, Oiaga, Okarantxueta, Otalarra, Otandieta, Otazadi, Pagatza, Piperraga, Piñupe, Sagardi, Sagarraga, Sagarreta, Saratsaga, Urkidi, Urkitza, Urkitzaga, Urkitzaurre, Urrezilla, Zarraga, Zarrakoa, Zarratxo, Ziialde, Ziitza, Zintadui (Sintxíri), Zumarretako landea, Zumetzaga, Zurtzuri, …

Zootoponimoak (abereakaz zerikusia dauken leku-izenak):

Artetxe, Atxanarrobaso, Aumerreka, Belategi, Beleta, Erlebaso, Erlieta, Idimusturra, Itxaspotorroatxa, Itxastxoriatxa, Lapalekua, Lukiatxa, Lukizillo, Mandabide, Miruotabarri, Muxarratxa, Otsategi, Otsategitxu, Potorroarri, Sardiñaiturri, Txakurzulo, Txarrisolo, Txorietxe, Usategi, …

Odonimoak edo komunikazionagaz lotutako leku-izenak:

Aldai, Andiñobide, Arextuibi, Aritxetako zubia, Aterriko mailak, Benta, Bentabarri, Bentaurre, Bentazar, Bidegana, Bideganekoa, Bidekurtzio, Bideokerreta, Bidetxe, Bidezabal, Bidezarreta, Burpidieta, Erdikobenta, Faraldai, Karabizarreko zubia, Kurtziperioko mailak, Lapikolurreko mailak, Larraziñako bidea, Lorrekoibi, Mandabide, Portuondo, Trabesbide, Zubiaurre, Zubibaltza, Zubibarri, Zubieta, Zubiondo, Zumusu/Zubimusu, …

Lurgintzeagaz zerikusia daukenak:

Andikosolo, Ardantza, Aretzasolo, Aurrekosolo, Barrukosolo, Bedartzako sakona, Bekortu, Bekosolo, Erdikosolo, Esparragerea, Etxeaurrekosolo, Garategi, Goikomaasti, Goikosolo, Goitisolo, Gortaeta/Kortaeta, Ikobaltzaga, Karabia, Karabizarra, Landaluze, Larragan, Larraona, Larraoneta, Larraskoaga, Larrondo, Lurbarri, Lurgorri, Maastegia, Mintegi, Munarri, Ogietalde, Ortua, Ortube, Ortuondo, Ortutxu, Otalarra, Palatugana, Palatuondo, Piperraga, Portukosolo, Saillaluze, Solobarrena, Solobarri, Solobarrunagusi, Solobarrutxiki, Solobiribil, Solobizkarra, Soloburu, Sololuze, Solonagusi, Solotxiki, Solotxu, Solozarra, Suertetxikerra, Urkuillu, Zabalsolo, Zarratua, Zelaia, …

Antrotoponimoak edo pertsonakaz (izen, abizen edo ezizenak) lotutako leku-izenak:

Abadetxea, Abadesolo, Abioren tokia, Aititasolo, Alardone, Alkortane, Amamasolo, Andramarieta, Andramarietazpi, Antonsolo, Atsosolo, Balentinatxa, Barberurenkurutze, Bartolosolo, Batxibaso, Benguriena, Birjilanda, Birjilandape, Bixentesolo, Butroetxe, Dukebaso, Elbiraetxe, Felipane, Frailatxa, Fulgensoloa, Gatikena, Gerekane, Gortena, Indarrena, Iparragirre, Joanlopetxena, Katxoena, Kontxaondo, Kristoren oiñatza, Luisena, Luisenarixti, Makuena, Maribarri, Mariortu, Markes-solo, Martinlanda, Matxinbaso, Morroskona, Muxikena, Ostiena, Patxosolo, Patxuelena, Paulogorriena, Perdiotxena, Petramuna, Pilarsolo, Sakristauetxe, Santiena, Sotaren basoak, Tioluisen soloa, Tionikolasen soloa, …

Agiotoponimoak edo santuen izenakaz zerikusia dauken leku-izenak:

Andramarieta (etxea), Basigoko Andramari (eleizea), Birjilanda (ingurua), Birjilandape (itsasoko atxak), Birjinetxe, Gaztelugatxeko San Joan (baseleizea), Gibelortzagako San Pelaio (auzoa eta eleizea), Jandonemartin (soloa), Jandonemartinalde (ingurua), Kristoren oiñatza, Kurtzeperioko mailak, San Esteban (baseleizea), San Kristobal (baseleizea), San Martin (beseleizea), Sanmartinsolo, Sanjoanalde (ingurua), Sanjoanalde (etxea), Santa Katalina (baseleizea), Santa Katalalinako zubia, Santa Ursula (baseleizea), Zumatxagako San Migel (baseleizea), …

Toponimiaren azentu arazoa. Adibide praktikoa. Ikerketea (Iñaki Gaminde).

(4 etxe-izen aukeratu. Ikerketea egiteko banandu entzuleen artean orritxu bat izenokaz, bakotxak izen bakotxean azentua uste dauan lekuan imini daian. Alderatu emoitzak errealidadeagaz. Arazoa izkuntzearen erabilkereagaz lotuta dago.)

Toponimiaren agozko erabilkerea zelan dagoan ikusita, azentuerea dala-eta, ikerketa txiki bat egitea bururatu jakon Iñaki Gaminderi. Ikerketa orren barri zeatzagoa eta osoa BAT aldizkariaren 42. zenbakian argitaratu dabe, inork ori alan gura izan ezkeroan. Atal onetan, barriz, Iñaki Gamindek egindako bearraren laburpena baino ez dakargu.

Toponimoen agoskerea eta, batez be, azentuerearen egoerea neurtutea

izan da, bada, ikerketa onen elburua. Euskalerriaren akulturizazinoa eta asimilazinoa, au da, espainierearen interferentzia neurtuteko euskal berbetearen arloetariko bat aztertutea, atan be.

Ikerketea etxeen izenetara mugatu genduan. Eurotan sistemearen azentuerearen ezaugarriak oso-osoan gordetan dira-eta.

Bakiotarrak, euskaldunak, espainieraz eskolatuak izan dira, gizaldirik gizaldi. Alan bada, irakurteko, eurona ez dan beste berbeta baten arauak erabilten ikasi dabe. Euskeraz guztiz analfabetoak dira. Beste alderdi batetik, baina, eurak dira euskeraz ondoen egiten dabenak eta informazinorik sinisgarriena emon dabenak. Euskaldun alfabetatuak, ostera, ez dabe euskal fonologiaren arauen arabera irakurten ikasi, euskal berbak espainierearen arau fonologikoaren arabera oguzten dabez (era ori jatorra dalakoa dauke, betiko euskaldunen ebakera jatorra baserritarkeriatzat artuten dabela).

Barriemoile berberak etxe baten izena "*bengurjéne*" dala esango deusku, au da, izena inoz idatzita ikusi dauan eran esango deusku "*je*" diptongoa eginda, eta gero, berbetan izen berbera ***"bénguridxene"*** esango dau berez-berez. Aurkaesan ori fonologia arau ezbardinak erabilkeran sortuten da. Sarritan, euskaldun alfabetatuen artean batez be, izena ain ezaguna ez danean agoskatu bear badabe, espainierearen arau fonologikoen arabera egingo dabe.

Au dala eta, berbadun talde ezbardinen arteko aldea zelangoa dan ikertutea bururatu ekigun. Ikerketeak **etxeen izenetan** azentuerearen ezaugarriak zelan beteten diran erakutsi desuku.

Bakioko euskerearen fonologiaren arau nagusiak urrengo onetan ikusiko dira:

ezpanetakoak	aginetako/albeolokoak		sabaikoak	belokoak		bokalak	
p	**t**			**k**		**i**	**u**
b	**d**			**g**		**e**	**o**
m	**n**	**ñ**			**a**		
f		**s**	**x/dx**	**j**			
		tz	**tx/dx**				
	l	**ll**					
	r/rr						

Bakioko euskerearen ezaugarri fonetiko-fonologikoen adibide batzuk:

au ⟶ eu/u/e (eurrera, intxurre, deko)			
ea ⟶ ie (semie)	ua⟶ ue (burue)		
ia ⟶ idxe (ogidxe)	ie ⟶ idxe (ogidxetan)		
iz ⟶ ix (eleixie)	it ⟶ itx (itxo)	io ⟶ idxo (Bakidxo)	iu ⟶ idxu (koidxu)
itz ⟶ tx (aritxe)	tx (itxosoa)	ll (illie)	in ⟶ ñ (soiñue)
ind ⟶ indx (indxarra)	int ⟶ intx (imintxen)	ild ⟶ ill/ildx (billurre, il dxe)	
ts ⟶ tz (aldatza)	tx ⟶ tz (etzie)	z ⟶ s (saspi)	dx (dxoan)
(n, l, r) ts ⟶ (n, l, r) tz (pentzeu, saltzie, bertzoa)			

Agoskera arazo nagusiak oneexek izan dira:
- fonema arrotzak erabiltea
- diptongazino eta silabifikazinoa
- azentuerea eta intonazinoa

Fonema arrotzak erabiltea

Etxeen izenetan jatorrizko fonemen ordez espainierearen eraginez alboko oneek erabilten dira:

tz ---> tx	kurtxikene, urkitxe	**kúrtzikene, urkítze**
ll ---> y	ibiyaurre**ibíllorre**	
dx ---> j	jauregi, jauregizar	**dxáuri, dxáusarre**
x ---> s	musikena	**múxikene**

E

Orrez ganera espainierearen "z" agineen artekoa be agertuten da:

tz ---> z

arza	**ártza**
ardanza	**ardántza**
ormaza	**ormátza**
bidekurzio	**bidékurtzio**
urkizaur	**úrkitzaurre**

s ---> z

azeretxo	**asitxó**
luzarraga	**lúsarra**
zubiaur	**súbidxorre**

Diptongazino eta silabifikazinoa

Beeranzko eta goranzko diptongoen arazoa sano garrantzitsua da. Egon be, berbeta bietan aurkako jokerak dagoz egon, onek batera silabifikazionaren arazoa dakar. Adibiderik argiena erriaren izenak emoten deusku. Bertakoak "ba.ki.dxó" ebaten dabe eta "dx" artean sartuteko ez dauken euskaldun askok **"ba.ki.o"** silabifiketan dabe. Erdaldunak eta erderearen eraginez **"bá.kjo"** ebaten dabe, au da, silaba bi eta azentua 2] arauaren arabera sartuta. Espainierearen eraginez beeranzko diptongoak apurtuteko jokerea egoten da eta baita goranzko diptongoak sortuteko jokera indartsua be. Bakion, barriz, beeranzkoan beti egiten dira eta goranzkoak apurtuteko baliabideak sortu dira. Alboko adibideetan aurkako jokera bi orreen aldeak:

Bakioko euskeraz	**Espainieraz**
sai.txú	sa.í.tu.a
séube	se.ú.ba
bén.gu.ri.dxe.ne	ben.gu.rjé.na
u.dxar.té edo ú.dxar.te	u.rjár.te
má.ku.ne	ma.kwé.na
sú.bi.dxo.rre edo sú.bi.dxau.rre	zu.bjáwr

"**dx**" artean sartzeak silabifikazinoari lagunduten deutso, "i+bokala" daukezan goranzko diptondoak apurtuko dituala:

i+a ⟶ idxa **(óidxaga)** i+e ⟶ idxe **(siídxeta)**

i+o ⟶ idxo **(bakidxó)** i+u ⟶ idxu **(------)**

Beste alde batetik, artikulu singularra bokal amaieradun berbeari geitu ezkeroan ("-ie" sistemea):

-a+a ⟶ -ie (neska) -e+a ⟶ -ie (seme) -i+a ⟶ -idxe (ogi)

-o+a ⟶ -oa (asto) -u+a ⟶ -ue (esku)

Azentuerea eta intonazinoa

Bakioko azentuerea Bizkaiko iparraldeko (Getxo-Gernika) aldaerearen

barruan dago. Aldaera au doinu azentuduna da, ezaugarririk garrantzitsuenak oneexek dirala (Gaminde 1999):

Bereizketa lexikoa: morfemak (erroak eta atzizkiak) [+am] edo [-am] izan leitekez, [+am] atzizkiak azentua aurreko silaban iminten dauala.

Berbeak [+am] morfema bat baino geiago badaukaz, leenengoak erabagiten dau azaleko azentuerearen lekua. Berba orretan eratorpen atzizki indartsurik badago, atzizki orrek oinarri osoaren azentuerea erabagiten dau.

[+am] morfemarik ez badago, talde prosodikoaren azken silabeak artuten dau azentua.

[+am]= azentuduna [-am]= azentubakoa

Izen berbera dauken etxe bi, agozko erabilkeran beintzat, azentuaren bidez ezbardinduten doguz:

udxarté (Uriarte) údxarte (Uriarte Barri)

Berba bakartuetan edo galdegaigunean dagozanean, H*L tonua

agertuten da silaba azentudunean. Tonu orregaz batera bigarren

silaban agertuten da H- tonua eta bigarren silabatik aurrera

zabalduten da arik eta H* tonua jo arte. Azkenean, leenengo silaban %L muga tonua agertuten da. Tonu igokerea lotuta dago azentuagaz.

%L(H-)H*L

Espainieraz, ostera, leenengo %L eta bigarren H- tonuen arteko igokerea azentutzat artuteko jokerea dago (azentuagaz tonu beerakadea lotuten da):

la/gunená\ (sg.) la/gú\nena (pl.) (eusk.)

lagúnena lagúnena (esp.)

Izenen transkripzinoetan azentua silaba azentudunean marketan da eta tonua goiko arau orren arabera agertuten da. (Gaminde 1998)

Bakioko etxe izen batzuk doguz urrengook, agozko erabilkeran, atan be. Silaba kopuruen arabera eta azentubako/azentudun bereizketea kontuan artu dogu emengo onetan. Agertuko doguzanak ez dira diran guztiak:

Izen azentubakoak

o-ó

bastéi	beitxí	goitxí	lorré
mintxú	saitxú	torré	astxó/asitxó

o-o-ó

aldekó	armurú	asutxí	balandá
basarté	basidxó	bekortá	bekotzé
besondá	gabantxó	goiketzé	goikolá
gorrondá	otzatéi	panainé	sabalé
udxarté	ugeldé	urgitxí	usiñá

E

o-o-o-ó

astxokortá	elespurú	inyarrené	kitroyené
landabasó	torresarré	trabensarré	uribarrí

o-o-o-o-ó

errenteridxé	dolapitxiñé

Izen azentudunak

ó-o

árbe	ártza	bénta	bísko
dxáuri	éitza	gárai	séube

o-ó-o

agárre	amétza	ardántza	atxúlo
bartúren	larrábe	olátxu	ormátza
ortúbe	orúbe	saitxútxu	ugérte
urgúru	uríbe	urkítze	

ó-o-o

ártetze	bídetze	búturtze	dxáusarre
gáraitxu	gáratei	górtene	górtene
íntxarra	kátxone	lárrondo	lúsarra
mákune	órbita	óstiñe	pértxene
pósoa	sáitxune	súbita	súmusu
údxarte	úreta	úreta	úsarta

o-ó-o-o

abároa	agárretxu	algórtane	arítzeta
bastérretze	bidékurtze	elórreta	etzébarri
gastáñeta	godxénetze	ibíllorre	itxúrridxa
mendígune	olábarri	talléridxe	

o-o-ó-o

andramíta	bengoléa	errotátxu	mendiálde
mintxuátze	otzatéitxu	sandxoálde	udxartétxu

ó-o-o-o

álardone	gérekane	kátikene	kúrtzikene
múxikene	pórtuondo	súbidxorre	úrkitzaurre

Etxeen izenetan azentudunak eta azentubakoak dagoz.

25 etxe-izen aukeratu genduzan, silaba kopuru ezbardinen arabera eta lekukoei irakurteko emon geuntsezan, azentu ortografikoa eurak uste izan daben lekuan iminteko eskabideagaz. Izenotarik 15 baino ez ziran erabili azterketea egiteko, azentuaren arabera:

Garai, Lorrea, Zeuba, Agirre, Artetxe, Basigo, Bidetxe, Gabantxo, Larrondo, Zabala, Zumusu, Larrabe, Urkitzaurre, Uribarri (Uribarribekoa), Uriarte, Olabarri, Mendiguren, Makuena (Errementeria), Abaroa, Alardone (Aurrekoetxea), Telleria, Gatikene, Kurtzikene (Gaztañazarreta), Benguriene (Ugartebarri), Iturriaga.

Orreetarik ikerketearen emoitzak jadesteko oneexek izan ziran aukeratuak:

o-ó: lorré (azentubakoa)

ó-o: gárai, séube

o-o-ó: basidxó, sabalé, gabantxó (azentubakoak)

o-ó-o: agárre

ó-o-o: ártetze, bídetze, lárrondo, súmusu

o-ó-o-o: abároa, talléridxe

ó-o-o-o: álardone, gátikene

Lekukoak lau taldetan bananduta egon ziran: erdaldunak (6), euskaldun barriak (10), euskaldun zaarrak (18): Abadiño (2), Areatza, Arteaga, Aulesti, Bermeo, Derio, Erandio, Larrabetzu (2), Gatika, Gernika (2), Igorre, Jatabe, Lekeitio eta Mungia (2) eta, azkenean, bertako Bakioko gazte taldea (8), azken talde onetakoak Bakioko euskaldun zaarrak dira 19 eta 25 urte artekoak (4 neska eta lau mutil). Danetara 42 lekuko euki genduzan eta 630 erantzun aztertu ziran.

E

Erdaldunak

Bertako lekukoak 90 aukeratatik 14 ondo erantzun ebezan, au da, %15,5. Espainierearen 2] arau nagusiari jarraituz, o-ó taldean "lorré" aukeratu bearrean, "lórre" aukeratu eben. Beste alde batetik, ó-o taldean 2] arau ori kontuan artu ezkeroan, danak ondo egin bear ebezan, baina, "gárai" izenaren kasuan azken diptongodun silabak astuntzat artuteko jokeragaitik "garái" idatzi eben eta "séube" izenaren kasuan "eu" diptongoa apurtuteagaitik ez eben ondo egin eta "seúba" aukeratu eben. Iru silabako izenetan 2] arau orregaz bat datorren kasu bakarrean "agárre" baino ez eben aparau. Ostera, o-o-ó zein ó-o-o kasuetan ez eben bein be asmau. Lau silabakoetan, o-ó-o-o kasu batzuetan asmau eben eta, barriz, ó-o-o-o kasuan baten be ez eben ondo egin, azentuera azken au espainieraz ezinezkoa da eta. Talde onetan espainierearen 2] araua nagusitu zan.

	Ondo	%
o-ó	1	16,66
ó-o	3	25
o-o-ó	0	0
o-ó-o	6	100
ó-o-o	0	0
o-ó-o-o	4	33,33
ó-o-o-o	0	0



Euskaldun barriak

150 aukeratatik lekukoak 24 baino ez ebezan ondo erantzun, au da, %16. Au da, o-ó taldean 3 ondo erantzun ebezan, ó-o taldean 6 ondo, o-ó-o taldean 10 ondo, o-ó-o-o taldean 5 ondo eta besteetan bapez ondo.

	Ondo	%
o-ó	3	30
ó-o	6	30
o-o-ó	0	0
o-ó-o	10	100
ó-o-o	0	0
o-ó-o-o	5	25
ó-o-o-o	0	0



Alandaze, euskaldun barrien emoitzak eta erdaldunenak alkarregaz alderatu ezkeroan, alde agirikorik ez dagoana ikusi genduan. Beste era batera esanda, euskaldun barriak espainierearen arauak erabilita irakurten dabez izenak. (%tan)

Euskaldun zaarrak

Talde onetako lekukoak 270 aukeratatik 48 ondo erantzun ebezan, au da, %17,77. Bizkai barruko lekukoak izanda, (azpi)euskalkiak daukan eragina ikusteko, emoitzak eskualdeka atondu genduzan. Mungialdeko euskaldunen emoitzak kenduta, bertan arean obetxuak ziran eta, ganerako eskualde eta errietako emoitzak sano makalak izan ziran. Bakio Mungialdeko erria da eta Mungialde osoan sistema berbera erabilten dogu. Antza, euskaldun on-onak diranak be nekez igarriko dabe zein dan toponimo ezezagunaren agoskera arteza.

	Mungialdea	Busturialdea	Lea-Artibai	Txorierri	Arratia	Durangaldea
o-ó	2	1	1	0	1	0
ó-o	4	2	2	4	1	2
o-o-ó	2	0	0	0	0	0
o-ó-o	4	3	2	4	1	2
ó-o-o	2	3	0	0	0	0
o-ó-o-o	0	0	2	1	0	1
ó-o-o-o	1	0	0	0	0	0
Guztira	**15** (%25)	**9** (%15)	**7** (%23,33)	**9** (%15)	**3** (%10)	**5** (%16.66)

Edo beste era batera (%tan):



Bakiotarrak

Bakioko gazte euskaldunen egoerea ikertu gura genduan. Lekukoetan batek baino ez eban %100ean ondo erantzun, osterantzekoen emoitzak, barriz, ez ziran baikor-baikor egoteko modukoak. 120 aukeratatik 55 ondo erantzun ebezan, au da, %45,83. Au da, o-ó taldean 7 ondo,

ó-o taldean 8 ondo, o-o-ó taldean 10 ondo, o-ó-o taldean 5 ondo,

ó-o-o taldean 13 ondo, o-ó-o-o taldean 5 ondo eta ó-o-o-o taldean 7 ondo. (%tan)



Guztiak

(%tan)

	Erdaldunak	Euskaldun barriak	Euskaldun zaarrak	Bakiotarrak
o-ó	16,66	30	27,77	87,5
ó-o	25	30	41,66	50
o-o-ó	0	0	3,7	41,66
o-ó-o	100	100	88,88	62,5
ó-o-o	0	0	6,9	40,62
o-ó-o-o	33,33	25	11,11	31,5
ó-o-o-o	0	0	2,77	43,75
Guztira	15,55	16	17,77	45,83

Edo beste era batera:

Alan bada, ondorioak sano arduragarriak dira. Batetik, erdaldun eta euskaldun barrien artean ez da alderik ikusten. Bestetik, ganerako euskaldun zaarren emoitzak ez dira askozaz obeak. Bertako gazteak be bertako lekuizenen azentuerea galduten asi dira (bizimoduaren aldaketea, bertako berbetearen galdumendia, berbeta transmisinoan etena, …)

Iniaki MARTIARTU



E



Klaretarrak Euskalerrian

1. Karisma baten iraupen istorikoa

Misiolari Klaretarrak, edota Mariaren Biotza Garbiaren Semeak, Aita Klaret (egun San Antonio Maria Klaret) abadearen bidez asi ziren 1849ko uztailaren 16an Vic-en (Bartzelona) eta Euskalerrira **1880ean** eldu. Urte batzuk leenago, 1866. eta 1868. urteetan Klaret-en andik onako ibilkera apostolikuek -Zarautz, Loiola, Gasteiz, Lekeitio eta Donostia zear[1]- ondare au utzi zuten. Isabel II.aren Erreginaren aitor-entzule zenean, eta leen Kuban artzapezpiku izandakoan ainbat misiolari ospetsu eta santu ezagutu zituen: Andoain-go Esteban eta Galdakao-ko Antonio, kaputxino fraideak biak. Baita jesulagun ziren Jose Manuel Jauregi, Eugenio Labarta eta Domingo Olaskoaga. Aita Klaret errialde katalanetan predikuak aldarrikatzen ibili eta, bi monsinore ezagutu zituen: Antonio Fernando Etxanobe Zaldibar, Tarragonako artzapezpikua, eta Pedro Zirilo Uriz Labairu, batera Lerida eta Iruineako gotzaia. Bestalde, Bizenta Lopez Bikuña santaren osaba-izeba ziren Manuel Maria eta Maria Eulalia Madrilen ezagutu zituen, eta garai artan gaztetxo zen Bizenta bera ere. Gainera, gaur santa den Maria Josefa Sancho Guerraren zuzendari espiritual berezia izan zen.Alaber, beste zenbaitena[2].

Euskal Herriko paisaiak zein biztanleen lan eta jaialdiak ezagunak zitzaizkion, an ibili izandakoa bait zen. Berdin itsasoa eta mendiak. Loiolan jesulagun anaidiari egindako ikustaldia, 133 jesulagunez osatutako anaidi ura, gogoangarri suertatu zitzaion. Bestalde, Gasteizen, Lekeition eta Donostian predikuak emanak zituen, eta gainera ainbat komentu, eritetxe, espetxe, eta bestelakorik ikusiak. Arrotz zitzaion euskera[3], bizi-bizian entzuna zuen. Erregeen familiarekin erbestera bidean zioala Iparraldea beetik gora zear-

1.– Ikus Alday Jesus Maria, San Antonio María Claret en el País Vasco, Ediciones Monte Casino, Zamora 1983, 355 orr.

2.– Ikus ALDAY Jesus Maria, aipatutako lana, 194-264 orr.

3.– Bartzelonako Argitaletxe Erlijosoa sortu, eta debozio ariketarako berak idatzitako idazlan bat euskeraz argitarazi zuen: Ceruraco bide zucena eta segurua (1867), Camí dret o Camino recto y seguro para llegar al cielo-ren itzulpen soila. Gerora liburu onen edizio batzuk argitaratu ziren, baita Klaret-ek idatzitako beste idazlanak, orien artean,

E

katu zuen, Irundik Pau-raino. Batikano Kontzilio I.ko parteartzaile izan zen. Erbestean, 1870ko urriaren 26an zendu zen, Fontfroideko (Narbonne) zistertar abatetxean[4].

Claret…, Madrid 1894, 639 orr.; BARROETA K-ARAMBURU B. Maitasun Garretan. Andoni Maria Klaret (Testigo de Amor, San Antonio Mª Claret) Tolosa,1977, pp 169; Fernández Cristóbal, El Beato Padre Antonio María Claret. Historia documentada de su vida y empresas, Editorial Coculsa, Madrid 1946; Berberak, El confesor de Isabel II y sus actividades en Madrid, Editorial Coculsa, Madrid 1964, 517 orr.; Lozano Juan Manuel, Una vida al servicio del Evangelio: Antonio María Claret, Editorial Claret, Barcelona 1985, 608 orr; Viñas José María – Bermejo Jesús, San Antonio María Claret: Escritos autobiográficos, BAC, Madrid 1981, 740 orr. Aita Klaret eta bere Lekaidiari buruz ezagutza-iturri geiengoa Artxibategi auetan da aurkigarri: Mariaren Bihotza Garbiaren Seme Misiolarien Lekaidiko Artxibategi Orokorra, Via Sacro Cuore di Maria, 5. 00197 Roma; St. Antoni M. Claret, Artxibategi Klaretarra, 8, 08500 Vic (Barcelona). Agiri

Euskalerriko leen klaretarrak

Mariaren Bihotzaren Seme Misiolarien Lekaidia biziki asi zen ugaritzen. 1880an Euskalerriko leen klaretarra zenak egin zuen zin: Antonio Sola Alvarez, apaiza, Erriberri -Oliten 1844an jaioa. Martxoan zin egin eta urrengo ilabetean Kuban il zen. Gero Kaskanteko bi erritarren zin egitea: Bernardo Fernandez Irujo, (1917an Txileko Santiagon ildakoa) eta Jorge Soria Romano. Urrengo urtean (1881), Bernabe Armentia Amezkua, Apellaniz errikoa, Anai Laguntzaile gisa sartu zen, bainan osasun gabeziaz "kanporatua izan zen". Ez ordea, Andres Gonzalez Ozkoidi, Rocaforte errikoa, nork zin egin aal izan zuen. Leen klaretar arabarra[5], Kandido Albizuri Mauleon izan zen (Bilar-El Villar errian

Euskerazaintza

4.– Klaret-en bizitza eta ekintza buruz, Ikus: Aguilar Francisco de Asís, Vida del Excmo. e Ilmo. Sr. D. Antonio María Claret…, Madrid 1871; Aguilar Mariano, Vida admirable del Siervo de Dios P. Antonio María Claret…, Madrid 1894, 639 orr.; BARROETA K-ARAMBURU B.Maitasun Garretan.Andoni Maria Klaret(Testigo de Amor,San Antonio Mª Claret) Tolosa,1977, pp 169; Fernández Cristóbal, El Beato Padre Antonio María Claret. Historia documentada de su vida y empresas, Editorial Coculsa, Madrid 1946; Berberak, El confesor de Isabel II y sus actividades en Madrid, Editorial Coculsa, Madrid 1964, 517 orr.; Lozano Juan Manuel, Una vida al servicio del Evangelio: Antonio María Claret, Editorial Claret, Barcelona 1985, 608 orr; Viñas José María – Bermejo Jesús, San Antonio María Claret: Escritos autobiográficos, BAC, Madrid 1981, 740 orr. Aita Klaret eta bere Lekaidiari buruz ezagutza-iturri geiengoa Artxibategi aue tan da aurkigarri: Mariaren Bihotza Garbiaren Seme Misiolarien Lekaidiko Artxibategi Orokorra, Via Sacro Cuore di Maria, 5. 00197 Roma; St. Antoni M. Claret, Artxibategi Klaretarra, 8, 08500 Vic (Barcelona). Agiri orietako batzuk benetazkoak dira, batez ere, Klaretarren Artxibategian dauden benetazko agirien fotokopiak. Karpeta bakoitzaren edukinen aipamen zeatza, makinaz idatzirik, onetan dago: Batikanoren Azaldugabeko Artxibategia, Madrilgo Nuntziatura. 00120 Città del Vaticano. Aita Klaret eta Lekaidiari buruzko agiri kopuru andi bat, kopian ala fotokopian, Lekaidiaren Artxibategi Orokorrean dago: AO. CMF: CF.5.4-7; CF.5.7;15.17.18; Apostoliko Bizitzazko Erakunde Erlijioso eta Elkarteen Kongregazioaren Artxibategia, Piazza Pio XII, 3, 00193 Erroma. Lege-Araudi Nagusiaren onarpen-espedienterako bereziki garrantzitsu suertatu zena, fotokopiaturik dago, AO. CMF.-en: A.A.1.1; Archivo del Ministerio de Gracia y Justicia, Plaza de Antón Martín, Madrid. Han dago Lekaidiaren onespen zibilaren espedientea; bere fotokopia AO.CMF.-en A.A.1.10.

5.– 1863an Simon Pedrosa Plagaro, La Hoz herrikoa, Lekaidian sartu zen. "Afrikako gudatean boluntario aritu eta itzulerakoan Klaret jaunaren bizilekura joan zen, eta handik Eskorial-era, non zortzi hila-

1686an jaioa, 1881ean zin egin eta teologia ikasle zela Vic-en 1887an zendua)[6]. Leenengo bizkaitarra, Sebastian Agirre Larrea, Gordexolakoa zen eta 1887an zin egin; 1889an bere anaia Fidelek autu berdinari ekin zion. 1883an Arronako bi gipuzkoarrek egin zuten zin: Baltasar Olaizola Makazaga eta Juan Zubizarreta Lizasok. 1880-1890 amarkadan 172 euskaldun egin ziren klaretar: 132 nafar, 21 arabatar, 17 bizkaitar eta gipuzkoar 2[7]. 1880an " Iruinean Misio-Egoitza" bat zabaldu zen, eta andik abiatzen ziren misiolariak batez ere Nafarroako erri eta inguruko eskualdeetara "erri misioak" bizkortzera. Ortik sortu ziren leenengo bokaziodunak. Leenengo misiolarientzat izkuntza zailtasun eta oztopo gertatu zen, batez ere Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroa Goialdeko euskaldun ingurunetan aritzean. Orrek eskualde orietatik bokaziodun gutxi sortzea eragin zuen. Bizkaia eta Gipuzkoara zabaltzea errazago gertatu zen Balmaseda (1882) eta Bilbotik (1886). Urte aietan, apaiz batzuk Lekaidian sartu ziren. Ala nola, Adrian Goikoetxea Gonzalez (Andosillan 1846an jaioa, 1883an zin egindakoa), Pedro Urrea Alegria (Murietan 1846an jaioa, 1883an zin egindakoa), Manuel Baztan Goñi (Lodosan 1843an jaioa, 1882an zin egindakoa), Pedro Ruiz de Austri Montoya (Rivabellosan 1841ean jaioa), Pascual Bergara (Maineru) eta abar. Beste batzuk sartu bainan zin egin aurretik egin zuten kanpora: Inozenzio Insausti Diez, Berrioplano-koa; Jose Pinedo Urbina, Abezia-koa; Roman Otxoa Zuñiga, Karakarrekoa, eta beste.

Euskalerrian denboran zear klaretar karismaren jarraitzaile izandakoak mila bosteun inguru izan dira, geiengoa nafarrez osaturik, ango 225 erritatik sortu izan bait dira klaretarrak, bigarrenik Bizkaian 71 erritatik, gero Araba, 44 erritatik, eta Gipuzkoa 22 erritatik. Euskalerrian jaio, azi eta mundu osora zabaldutako euskal semeak. Ez dator bat egoera orretaz Diccionario Enciclopedico Vascok dioena: *"Klaretarren utsune nabaria.* Moderno aroan Euskalerriarekiko urbiltasunik gabeko Lekaidiren bat izan baldin bada, ori *Mariaren Bihotzaren Seme Misiolariena*"[8]. Beste erlijio Orden zein lekaidiak

E

betez sukaldari nagusi gisa egin zituen. Frogazko urte hartan kanporatua izan zen, "ez bait zitzaion benetazko bokaziorik nabaritu" argudioarekin: Ikus. Catálogo de los cmff. en los 20 primeros años de la Congregación, Artxibategi Orokorra CMF, H-C aldea, 1-1. Atala.

6.– 1882an Roque Calleja Albainak, Kripan herrikoa, zin egin zuen Anai Laguntzaile izateko. Rio Benito-n (Ginea Ekuatoriala) zendu zen, 1907an.

7.– Ikus Alday Jesus Maria, Catálogo de los Claretianos de Euskal Herria, Erkidego Idazkaritza, Bilbo 1986.

8.– Auñamendi, Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. A Liburu atala. Diccionario Enciclopédico Vasco, XXVIII liburukia, Mendiz-Mome, Auñamendi Argitaletxea, Estornés-Lasa Anaiak, Donostia



bezalaxe, klaretar Lekaidiak une istoriko batzutako jarrerak eztabaidagarri gerta daitezke, bainan ukaezinezko da misiolari sena eta garra izaten iraun duela. Kontzilio ondorenean egoera bestelakoa izan zen. Orduezkeroztik aurrera klaretarrak Euskalerrian eta alaber munduan egoki zen ekinbideaz jabetu ziren.

Euskalerrian klaretarrek sorturiko leen ezarkuntzak

Leenengo klaretar ezarkuntza **Iruinekoa**[9] izan zen. Lekaidian Nagusi Orokorra zen Aita Jose Xifrek, urte batzuk leenago Aita Klaret-ek emandako aolkua jarraitu naian, sortzailearen gogoa bete aal izateko aalegin guztiak bideratu zituen. 1880ko ekainean, Iruineko gotzaia Jose Oliver Hurtado monsinorea zela, Nafarroako iriburura bost apaiz eta iru anai laguntzaile eldu ziren, bertan anaidi misiolari bat sortzeko asmotan, A. Diego Gavinek zuzendua, nor apostolutzaren eragile trebe eta klaretar anaidien sortzaile bipila zen. Astapenetan, S. Frantzisko Xabier ikastegiko solairu batzutan bizi izan ziren, bainan laister leku ura utzi bearra izan zuten. Aldi batetan etxez etxe ibili ondoren, Aldapako S. Fermin kaperan eta ondoko etxean geratu ziren erabat, katedraleko kabildoaren ondare bat izanik gotzaiari emana izan zen artan, eta gotzaiak, Aita Sainduaren baimenaz, klaretar Lekaidiari gozamen betiraunkorrean xedatua. Au guztia 1883an.

Nafarroan bizi ziren leenengo urte aietan, apaizteko ziren zein elizbarrutiko apaizentzat gogojardunak zuzentzen aritu ziren, nola ere Nafarroako errixka desberdinetan erri misioak bizkortzen, ala nola Tafallan, Lodosan, Kasedan, eta abar, apostoliku aztarna nabaria utziz eta bokazio ugari sustatuz, batez ere apaizgorako bokazioak, zeinak gotzaia bera kezkapean utzi zuten, nork zera adierazi zuen: "Apaizetaz geiago ez saiatu; gotzaia eta bere jauregia zuen esku dago; ez ordea apaizen gaia". Kronikari batek dio:

"Iruineako Misio-Egoitza ori Ebanjelioaren ziape alearekin pareka daiteke; agian Lekaidiak duenetariko etxerik txikien eta estuena izango da; bainan emarietan andi, guztiz andia; gure Lekaidi maiterako soldaduak biltzeko kuartela dela esan daiteke bene-benetan, zeren oraindaino emen 92 Anai Laguntzailek eman dute euren atxikimendua eta Mariaren gudarostean parteartzen asi. Or, Jainkoaren kariaz, gazte ikasleen arrobi bizi bat sortu da, eta Alagon, Segobia, Barbastro eta Balmasedara joan aal izan dute, gero Cervera eta Santo Domingo de la Calzadara ere, suspertu duten multzoagatik Jainkoari eta Lekaidiari eskerrak emateko adinekoa, eta aldi berean etxe orretako diren prediku eta ereduaz Ebanjelio ikaskizunetara nola ta gizakiaren Aita den barrutira pertson mordoa erakartzen dute".

Arrazoi osoz zioen A. Klaret-ek A. Jose Xifre-ri 1863ko martxoaren 6an onako au idatzi zioenean:

" ... atsegin nuke Iruineako Gotzai Jauna bisitatzera joango bazina, eta bertako irian Apaizei eta apaizgaiei predikuak eman; eta bearbada ere egoitza bat sortu, erlijiosogai berriak bezain onak atxiki bait daitezke an: egoki, oso egokia litzateke zeu ara bisitan joatea"[10].

1990, 480-481 orr.

9.– Ruiz Leoncio, I Centenario claretiano. Corazonistas de "San Fermín de Aldapa, Pamplona 1883-1983, 32 orr.

10.– Gil J.M., Epistolario Claretiano, II, 636-637 orr.

Euskerazaintza

Egun, Misio-Egoitza izaten dirau eta aldi berean adineko eta osasunagaitk apostoliku ekintzan aritu ezin duten misioliarientzat atseden egoitza dago.

1882: Balmaseda

1882ko irailaren 24ean eldu ziren Balmasedara leenengo klaretarrak: Aita Pablo Llambés eta Anai Laguntzaile ziren Jose Caraltó, Jose Aliberch eta Francisco Villaró. Astapenetan Erdiko kaleko 36. zenbakiko etxe txiki bat artu eta bertan bi urte egin zituzten, bitartean aintzineko Bizkaiko Jaunen jauregian konponketak eginez. Jauregi au leenik Enparantza Zaarra kokatua zegoen, gero Zezen Enparantza izena artu zuen, eta egun Foru Enparantza. Errira elduala Aita Xifre beraiekin bildu, eta jauretxearen emaile zen Joana Agirre Pagazartundua anderearen etxera bideratu ziren. Jauretxe izandakoa garai artan biltegi eta ikaztegi gisa erabiltzen zen. Urriaren 5an Aita Braulio Sós eta Eusebio Güell, Anai Laguntzailea, eldu ziren. Denak batera, baten batek konponketak zuzentzen, besteak arotz edo igeltsero lanetan, eta ingurumeneko langile batzuen laguntzaz, ainbeste urtez Egoitza-Ikastegia[11] izango zena berriztatzea lortu zuten. 1884ko martxoaren 19a zenean:

"Anaidia bezperan egoitza berrira aldaturik, urrengo egunean egoitza bedeinkatu zuten. Apirilaren 5ean jendearentzako eleizkizun ospakizunetara zabaldu zen kapera. Bitartean, Misiolariak S. Joan eleizan ospatzen zituzten eleizkizunak. Naiz eta bi Misiolari besterik ez izan, eta beraiena ez zen eleizan aritu, eta gainera egoitza berriaren konponketa lanen ardura eraman bear, beren ekintza eta arretagatik erriaren begirunea jaso zuten."

Asieran Misio-Egoitza izan zen, naiz eta laister barru Ikastegia biurtu. Bigarren eginkizun onetan iraun zuen leialki 1973 urterarte, noiz Ikastegia ertsia geratu zen. Ostera, etxebizitza mordo eder bat eraiki zen jauregi bikain, ikaztegi eta ikastegia izandako artan. Dena dela, klaretar anaidiak errian jarraitu zuen San Seberino parrokiaren zerbitzu apostolikuan, nola ta 1925an eraikitako Anaidiaren eleiza bikainaren eleizkizun lanetan, eta bestelako zeregin batzuetan, errian alaber kanpoan. 1993an Anaidia ere ezabatua izan zen.

1886: Bilbo

Bilboko klaretar Anaidia, apaiz ziren Aita Gavin eta Aita Estelak, zein Anai Laguntzaile ziren Puig eta Gurreak osatua, 188ko ekainaren 6an sortu zen, Barrenkaleko 1. zenbakiko bigarren solairuan (egun 35 zenbakia duena), eta Balmasedako egoitzaren eskumende. 1887ko otsailaren 28an Esperanza kaleko 2. zenbakiko bigarren solairura aldatu ziren. 1889ko martxoaren 25ean S. Frantzisko kalean finkatu ziren, 16. zenbakian. Ezarkuntza onetan parte artu zutenak: Epalza jaunaren alargun zen Kasilda Iturriza anderea eta bere ordezkaria Bitorino Zabalaintxaurreta jauna, biak doaintzaren emaile gisa, Aita Xifre ezarpenaren buru gisa, eta Aita Diego Gavin, anaidiburu gisa. Eramangaitza den San Frantzisko auzoan finkatuta geratu ondoren, laister barru hasi ziren klaretar misiolariak euren apostoliku ekinak zabaltzen, iriburuko sermoi garrantzitsuenak beraien esku hartuz.

11.– Alday Jesus Maria, Klaretarrak Balmasedan ehun urte. I Centenario de la presencia claretiana en Balmaseda 1882-1982, 32 orr.

E



Santiago, San Nikolas, San Joan eta beste zenbait parrokiak klaretarren ekinak zirela ta euren eleizak jendez gainezka zituzten beti, ain zuzen iriburura duela gutxi etorritako misiolarien predikua entzuteko jendearen entzunminaz[12].

San Frantzisko-ko ezarkuntza auzoaren onerako izan zen, eta laister eman zitzaion hasiera Mariaren Bihotzaren eleizaren eraikuntzari (1894), eta 1897ko urriaren 24ean Leen Mailako ikastetxeak ateak zabaldu zituen, gerora (1955) arras ezaguna izango zen Mariaren Biotza Ikastetxearen aitzindari. 1976an Leioara aldatua zen, Askartza-Claret izenburuaz. 1966an Mariaren Biotza eleiza parrokia biurtu zen. Egun, Euskalerria erkidegoko teologoen egoitza eta erkidego kuria da.

1910: Beire

Ez Korellak erriak ez Kaskante zuten ase Klaretarrek filosofia ikasketetarako ikastegi nagusi bat eraikitzeko zerabilten egitasmoa, garai hartako Gaztela zen erkidegoko erlijiosogaientzat ikastegi eta hezitoki gisa erabiltzeko. Erriberri aldemenko Beire den erriberako erriak onartu zuen ain desiratutako egitasmoa, orretarako Ezpeleta eta Beireko konteen jauretxe zaarra egokituz, 13 ektareako zabalera zuena, eta Biotz Sakratuen fraide frantziarren nobiziotegi gisa erabiltzen zena. 1910ko uztailaren 21ean fraide frantziarrak klaretar Lekaidiari jauretxe ura saldu zioten, eta leenengo nagusia Javier Preciado nafarra izan zen izendatua. Urte ortan bertan filosofia ikasketen iru mailak jarri ziren abian, eta baita teologiazko 1.go maila. 1950. urterarte filosofia ikastegi gisa erabili zen, eta urte orretatik 1967. urteraino Kantabria erkidegoaren oinarrizko ikastegi gisa. Azken urte onetan guztiz bestelako moldaera artu zuen, nekazal lantegi-etxe, bederen. 1979an bere iragan diztiratsua ezeustatuz klaretarrek Nafar Erriberako leku ura utzi zuten.Istorria zenbaitetan garrazturik geratzen da ainbeste diztirazko lekuen galtzearen berri eman bearrean. Horrelako dira ainbat gertakizun.

12.– Alday Jesus Maria, 100 años de presencia claretiana en Bilbao. Klaretarrak Bilbon ehun urte 1886 -1986, 28 orr.

1914: Tolosa

XX. mende asieran Lekeition ezarkuntza sortzeko ekinaldiren bat egin zen, Aita Klareten jardun apostolikuaren oroimena orduraino bizirik bait zirauen[13]. Gerora, ezarkuntza Donostian egitea asmatu zen, zeazki Herrera auzoan, bainan Aita Zala-ren eginaalak ezin buruturik geratu ziren. Aldi ortan bertan, kostaldeko ain eder den Zumaia errian ikastetxe bat eraikitzeko egitasmoa erabili ondoren, asmoa pot eginda geratu zen. Urte batzuk geroago ezin aal izan zen bideratu Tolosa inguruan, Orendainen, ikastegi bat sortzeko eskeintza eta saioa. Azkenekoz, Tolosan 1914an klaretar anaidi baten ezarkuntza lortu zen.

Iribildu gipuzkoar onetan ezagunak ziren leendanik Iruineatik, Balmasedatik edota Bilbotik Tolosako Mariaren Biotza Artxikofradiako taldeei predikuak ematera joaten ziren klaretarrak, 1831. urtea geroztik Tolosan sortutako Artxikofradiara urreratzen bait ziren. Azkenekoz, Gregoria Mokoroa anderea eta Alegin bizi zen Kasimiro apaiz gaztearen ekinaldi eta saioei esker, klaretar Lekaidian Nagusi Orokorra zen Aita Martin Alsinak Gipuzkoako leen anaidiaren ezarkuntza onetsi zuen. 1914ko apirilaren 21ean, arratsaldea jadanik aurrera zioanean, eldu ziren Tolosara Aita Jose Ertzilla eta Aita Lukas Etxebarria (bizkaitarrak biak) eta Esteban Saralegi Anai Laguntzailea (nafarra), Aita Julian Munarriz erkiburu nafarrak laguntzen zielarik. Gau artan Kasimiro Mokoroaren amaren etxean egon ziren, trenaren geraleku ondoan, burnibidearen nasari atxikitako etxe batetan. Urrengo egunean, ilak 22, igandea, urrutirik gabe zegoen Jesusen Sierben elizatxoan meza ospatu ondoren, Anaidiak Rondilla edota Pablo Gorosabel kaleko 34. zenbakiko etxea artu zuen, alaber ondoko 32. zenbakiko etxearen bee solairua, aurrerantzean jendearentzako bein-beineko kaperatzat erabilitzeko, eta ia ordurarte Aita Sakramentinoek erabilia.

Asieran eta batez ere erriko apaizengandik sortutako oztopoak gainditu bear izan zituzten, eta misiolariak erriko girora pixkanaka egin ziren. Batez ere sendogarri suertatu zitzaion Anaidiari onako kide berrien etorrera: Aita Eduardo Gomez Bayona (nafarra), Aita Tiburtzio Orbe Madariaga (bizkaitarra), Aita Eustakio Bikandi Garaitagoitia (bizkaitarra) eta Angel Lopez Belasko Anai Laguntzailea (nafarra). Laister nabarmendu zen egoitza eta eleiza berezia eraikitzearen bearra. Egoitza 1922ko ekainaren 1ean bukatu zen, eta eliza urte bereko abuztuaren 6an. Ezarkuntza ezkeroztik Anaidia leial aritu da erriko eta inguruetako euskaldunak ebanjelizatzen. Eleizan ebanjelizatze eta sakramentu lanetan, aspaldiko den idazlanak sortzeko ekinean, eta "Poxpolin" Ikastolaren irakaskuntza zerbitzuan. Egun, egoitza ezabatzear dago[14].

1918: Agurain

1918ko azaroaren 21ean Agurainera (Salvatierra) Aita Julian Munarriz, Gaztelako erkiburua, eta Aita Lorenzo Alabert eldu ziren. Ezarkuntza berria aintzineko irin lantegian eta leenago erriko irin-errota izandako tokian kokatu zen, eta Aita Lorenzo Alabert-i eman zitzaion anaidinagusi izateko betekizuna. Bertara etorri ziren Aita

13.– Alday Jesus Maria, San Antonio María Claret en el País Vasco, aip. lana., 127-153 orr.

14.– Ikus En el cincuenta aniversario de la fundación de los Misioneros Hijos del Corazón de María en Tolosa 1914-1964, "Crónica de la Provincia de Cantabria" delakoan, 83 (1964) 149-206.

E

Martin Alsina eta Aita Munarriz (leenengoa nagusi orokorra; erkiburu bigarrena), eta Josefa Bustamante anderearen etxean geratu ziren, kale Nagusiko 23. zenbakiko etxean, bertan zegoen otoizlekuan meza ospatuz. Irin lantegiko eta ondoko orubearen jabe ziren Domingo Azkarraga jaunarekin eta Angeles Bustamante anderearekin salerosketari buruz mintzatu zuten, klaretar Lekaidian zinegindako ikasleentzat ikastegi bat sortu aal izateko, aldez aurretik Leopoldo Eijo Garai elizbarrutiko gotzai monsinorearen baimena eskuratua izan zela. Baimena 1918ko urriaren 7an lortu zen, inguruko apaizek eskatutako baldintza baten pean, au da, jendearekiko otoizlekurik ez ezartzea. Itzarmena azaroaren 21ean notari aurrean gauzatu zen.

Egokitze lanen ardura Aita Alabert eta Anai Laguntzaile ziren Pedro Rubio, Angel Zoraya, Martin Azpiroz eta Manuel Lopez-en esku geratu zen. Bi urte barru, konponketa nagusiak amaiturik zeuden, eta arrezkero 1920ko abuzturarte Segobian zegoen Gaztela erkidegoko eta Betikako nobiziotegia Agurainera aldatu zen, eta ara eldu lehen nobizioak. 1920ko abuztuaren 14ean Aita Martin Alsinak 34 nobizioei sotana eman zien, beraien artean auek zirela: Atutxa Migel, Etxarri Babil, Ellakuria Juan Luis, Gomez de Segura Jose Maria Justiniano, Gordaliza Paulo Buenaventura, Iruarrizaga Kreszentzio, Olabarrieta Rufo, eta abar.... guztiak gerora amerikar lurraldetan misiolari iaio izango zirenak. Aurrerantzean aintzineko irin lantegia gero jendeak deituriko "apaiztegi" biurtu zen. 1965ean nobiziotegi izateari utzi zion, OHOeko 2. aldiko ikastegi izako. 1982. urtetik 1992. urtera Aguraingo ikastolak alokairupean erabili zuen. Egun, gazteentzat elkartegi eta Anaidiaren egoitza da, eta Anaidia Gotzaitegiarekin duen itzarmen baten bidez erriko ta inguruko errixken pastoraltza taldean partaide da.[15].

1920: Donostia

Donostiako klaretarren ezarkuntza 1920ko maiatzaren 13an asi zen. Egun orretan eskuratu zuten Mikel Muñoa jaunarena zen "Koru'ko Andre Mariaren Ikastetxea" Euskal Eskola, Zubigain edota Campanario kaleko 2. zenbakian zegoena. Mikel Muñoa jaunak ikastetxea eta altzairuz ornitutako etxe bat eman zituen, trukean baldintza auek ziurtatuz: bost Apaiz eta bi Anai Laguntzaile irakaskuntza lanetan aritzea, oinarrizko irakaskuntza osoa irakastea, eta Babestzaile Batzorde baten ikuskaritza. Misiolarien leenengo betebeharra zera zen: "kristau eziketa euskeraz ematea. Bere onez, Dotrina eta Istoria Sakratua euskeraz emango da, eta eleizkizunak izkuntza berean izango dira". Baldintza auek leialki bete zituzten garai artako klaretarrek: Juan Antonio Agirre, Gregorio Egia, Eustakio Bikandi, Jose Bidaurreta, Juan Arsuaga, Ciriaco Uriarte, Jose Zabala-Arana, eta bestek. Aita Zabala-Aranaren lan zolia nabarmendu zen, kristau dotrina, geografia, matematika eta beste gaien irakaskuntzarako leen euskal testuliburuak burutu zituelako. Espainiar gudate zibilean erail zuten.[16]

15.– Bustamante Jose Antonio, 75 aniversario de la Casa de Agurain-Salvatierra (1918-1993), honetan argitaratua: "Euskalerriko Albistaria-Noticias de los Claretianos de Euskal Herria", 160 (1993) 27 -32; Alday Jesus Maria, Los claretianos en Agurain-Salvatierra: 75 aniversario de su llegada a la Villa, "El Mundo" egunkaria, 14.11.1993.

16.– Ikus Torres I., Mártires claretianos en Santander, Coculsa, Madrid 1954, 33-393 orr.

Mikel Muñoa jaunarekin bat ezin etorri eta, Anaidiak Euskal Eskola utzi bearra izan zuen, 1924ko apirilean, Carmen Elosegi andereak bein-beinekoz utzitako Karmen-Enea etxealdera aldatuz. Andik oso bertara, Gros-eko auzoan bee solairu bat alokatu zuten, non 1924ko urriaren 1etik aurrera Oinarrizko Eziketa klaseak 85 ikaslei ematen zitzazkien. 1925ko abuztuaren 30ean, Ajuria anderearen laguntza ekonomikoari esker, Gros-eko Egoitza eta Ikastetxe berriaren lanak asi ziren, gaurko leku berean. Dohaintza eman zuen andereak ez zuen eraikinaren amaiera ezagutu, irailaren 27an zendu bait zen, Anaidia egoitza berrira leen aldiz aldatu egun berean, lan guztiak bukatu ondoren. 1926ko urrian asi ziren eskola emanaldiak eraikin berrian, leen solairuko lau gela 80 ikasleentzat erabiliz. Gerora parrokia izango zen Mariaren Bihotza santutegiak ateak leenbizikoz 1929ko irailaren 15ean zabaldu zituen. Orduezkero, klaretar Anaidiak eziketa eta apostoliku lanak arretaz garatzen aritu da, ikastolan zein Mariaren Bihotza parrokian, alaber Mariaren Biotzaren Aur Abesbatzaren musika ekinean[17].

1942: Bilbo-Areeta

Getxoko Udaletxeak eta Guraso Elkarteak bein eta berriro egindako eskariei amore emanez, Bilboko Anaidiaren esku geratu zen Areetan Agustinoek bigarren mailako ezkuntzako ikastetxearen zuzendaritza, banakaritza eta jarduera. Agustinoek ikastetxea utzi beharra izan zuten, euren erkidego banaketan sortutako arazo batzuengatik. Ikastetxea Ramon de la Sota bizkaitar untzigile jaunaren izandako jauretxean zegoen kokatua, Abra-ko kaia-lerro aldamenean, mundura zabalik balego bezela. 1942ko irailaren 4ean Aita Kandido Bajok, Gaztelako erkiburua, San Agustin ikastetxearen zuzendaritza onestu eta Aita Teofilo Ibarretxe bizkaitarra zuzendari izendatu zuen. Klaretarrekin itxaropena suspertu zen: horrela, 1944 -1945. ikasturtean San Agustin ikastetxeak irakaskuntza ertainetan Gaztelako klaretar beste ikastetxeek baino matrikula kopuru andiago lortu zuen; Zamora, Segobia, Gijon, Castro-Urdiales edota Arandakoa baino andiagoa. Ikastetxea aurrera zioan, eskualdean bai Bilbon obetsienetakoa bezala artua zen, eta etorkizunerako abiaduran zebilen. Bainan, Bigarren Gerrate Mundialaren amaiera aldean, Gobernuak jauretxea Sota jaunaren alargunari itzuli zion. Ikastetxeko Gurasoek eginaal guztien bidez Sotaren alargunaren borondate onetik jauretxea ikastetxe eran jarraitzea lortu zuten, eraikitzen ari zen berria amaitu arte. Eraikin berria Areeta -Plentzia burnibide aldamenean izateko zen, Leioako errepide parean, Triano-ko markesaren orube ondoan, bere jauretxetik 200 metrotara. Bainan, Itsasbestaldeko erkidegoetara misiolariak bidali bearrarengatik ezarkuntzak pot egin zuen. 1945ko abuztuan ikastetxea utzi egin zen, Botxerotarren abesti baten esaldiak airean zera xuxurlatuko balu: "Agur Areeta maitea (...) uzten bazaitut ere, aantzirik ez"[18].

70-eko amarkadan sortutako ezarkuntzak

17.– Cinco lustros en San Sebastián 1920-1945… 50 urte… Comenzó hace 50 años. Mariaren Bihotza. Parrokia. Ikastetxea.

18.– Ikus Bodas de Oro de la Provincia de Castilla. Crónica de la Provincia de Castilla en sus bodas de oro 1895-1945. Bosquejo histórico por la Secretaría Provincial, Bilbo 1946, 343 orr.

E

Irunea (1970)

Urriaren 1an eman zitzaion ikasturte asiera "Cardenal Larraona" ikastetxe berriari (Arcadio Maria Larraona, Eleizaren kardinala eta nafar klaretar ospetsuaren omenezko izenekoa), Oinarrizko Eziketan lau maila eta Batxilergoan leenengo bi mailak eskeiniz, guztira 177 ikasle. Asieran xume bainan etorkizunari begira itxaropentsu. Aita Gerbasio Iruarrizagak eta Erromako Gobernu Orokorrak egindako saioek ainbat zailtasun gainditu bear izan zituzten, barnean zein kanpoan sortutakoak. Eginal aien bitartez 1970an lortu zen, besteak beste. Ikastetxe alboan, eta "Larraona" izeneko eziketarako eraikin gunea osatuz Unibertsitari Egoitza bat eraiki zen, 200 unibertsitarientzat. Ikastetxea eta Egoitza Pio XII Etorbidearen amaieran daude kokatuak, iriburuaren zabalgune den "San Joan" aldean, Unibertsitatetik oso gertu. Bere izaera laburrean jadanik nafar iriburuaren liburu istorikoan pasarte diztiratsuak utzi ditu, urrengo amarkadan ere, 80ekoan, klaretarren ekarpenak jarraitu zuelarik. Aldapa eta Larraona Aita Klaret-en egitasmo berdinean anaikidetuak diraute: aal den bitarte guztiaz ebanjelizatzeari ekitea, alegia.

Gasteiz (1972)

Arabako iriburuan ezarkuntzarik sortzeak aspakditik zuen erakargarritasuna, ezen bein eta berriro orretaz itz egin zen, egitasmo baten bitarte zelarik. Bainan ezin izan zen burutu 1972raino. Orduan erlijiosogai gazte talde bat Gasteizera etorri zen elizbarrutiko apaizgaitegiko Fakultatean teologia ikastera. Salesa monjen komentuko alderdi batean bein beinekoz kokatu ziren, eta urte bat barru txalet erako etxe soil bat alokatu zen nobiziotegi izateko, Elvira Zulueta kaleko 12. zenbakian. Andik ona Gasteizko klaretar Anaidia batez ere misiolari gazteen prestakuntzan aritu izan da, bainan naiz eta egoitza

txikian finkatu, elizbarruti eta iriburuko asmoekin bat egina ziarduen, azken bi oriek une istoriko garrantzitsuak bizi izan bait dituzte. 1978an Elvira Zulueta kaleko etxea utzi eta andik metro gutxitara dagoen beste egoitza bat abian jarri zen, Fray Francisco de Vitoria Pasealekuko 13. zenbakian.

Badirudi Arabako klaretar ezarkuntzak misiolarien prestakuntza gauzatzeko erabiliko zirela: lehendabizi Agurainen eta gero Gasteizen. 1920ko nobizioaldi kopurutsua, Gaztelako erkidego andiko erlijiosogaiak biltzen zituena, Euskalerria Erkidegoko Anaidi ezitzaile soil bezain bizian geratu da. Egun, Anaidiak San Pablo parrokiko pastoral lanak daramatza, Ariznabarra auzoan. Alaber, Anaidiearne Egoitzan kokatzen dira Itzaren bizkortze zerbitzua eta *Proclade* (Promoción claretiana al desarrollo) klaretar EGE (ONG)-aren Arabako egoitza.[19].

Leioa (1975)

Bilboko "Mariaren Biotza" ikastetxearen egiturak Irakaskuntza Lege berriak eskatutako pedagogi baldintzak betetzeko ornikuntzarik ez izateak eta bertako eziketa lana jarraitu naiak Euskalerriko Unibertsitate aldemeneko Leioako Askartzako orubera aldatzera bultzatu zuen. 1974ko abenduan lanak asi eta urrengo urteko irailaren 15ean zabaldu ziren ateak 1080 ikasleentzat, gune osoa oraindik eraikuntzaren leen aldian zegoela, eta beste alderdi batzuk -jantokia, egoitza, bigarren pabilioia eta polikiroldegia- 1976an eta urrengoetan amaitu ziren. Neska-mutilentzat eta ikastetxe elebidun izateaz gain, aldamenean egoitza bat eraiki zen, leendabizi BBBko klaretargaiek erabili zutena eta gero teologia ikaskide gazteen anaidiak. Egun, Askartza-Claret Ikastetxe onek bi mila ikasletik gora du. Bere elburu bereziak auek dira: kristau eziketa, eta euskera sustatzearen bidez Euskalerriak dituen bearrei kultur murgilketazko erantzuna ematea. Ikastetxea bi irakaskuntza eredutan banatua dago, A eta D ereduak, azkenengo au erabiliena[20]. Gazteen kristau eziketa osotu eta sakontzeko, Anaidiko batzuk iru parroki auetako gazte pastoraltzan aritu izan dira: Las Mercedes eta Santa Ana, Areeta errian, eta San Joan Bataiatzailea Leioan.

Getxo (1977)

Getxoko parrokiek errialde artako gazte pastoraltzaren jarduera eta girotze zerbitzua eskatu zutenez, klaretar ikastetxe eta parrokien mugaz aruntzagoko Anaidi bat egituratzea erabaki zen -sortzaileak izan zuen sormen zabalari jarraituz- gaztediarengan ebanjelizatze misiolan berri bat bultzatzearren. Asmo au 1977ko irailaren 1ean egikaritu zen, egun artan lau klaretarrek asi bait zuten bide berri ori, Getxoko Unbe kaleko solairu batetan. 1982ko uztailean utzi zen ura[21].

19.– Urte batzutan zehar Abetxuko-ko elizbarrutiar parrokiaren ardura eduki zen, baita herrixka hauen parrokia: Aretxabaleta, Gardelegi eta Kastelu. Egun, beste hiru herrixketako parrokien ardura eramaten da.

20.– Ikus Ideario de la Comunidad Educativa Askartza – Claret. Hezkuntza Elkartearen Izaera Berezia, Leioa 1987.

21.– Ezarkuntza honetaz zein aurrekoetaz: Ikus URKIRI *T., Provincia Claretiana de Euzkal-Erria. Notas histórico-canónicas acerca de su formación, Ediciones Monte Casino, Zamora 1985, 379-401 orr.*

E

Klaretar Misioa Bolibiako Potosi Iparrean (1974)

Euskalerriako klaretarrak, Antonio Maria Klaret-ek izan zuen mundu zabalerako izpirituaren arabera, 1974. urtea geroztik misio eskualde bat beren gain dute, zeazki Potosi Iparrean (Bolibia). 7.000 km^{2}ko edadura du eta 100.000 inguru biztanle, orietatik % 75a indoamerikar, % 20a arraza gurutzatutakoa eta % 5a larru zuri. Batzuen izkuntza aymara da (herrixketan); beste batzuena gaztelania (erri garrantzitsuenetan) eta geiengoarena qhuechua. Lurralde benetan menditsua, Andeetako Goi-Lautada aldamenean (4.000 metroko altueran), mendi batzuk 5.000 gailurra dute eta bestalde ere aran sakon-sakonak. Zenbait lekutan giro otza egiten du, bestetan epel; urteak bi alditan banatzen da, euritsu bata, leor bestea.

Euskalerriako klaretarrek aintzineko Mundu Berria ebanjelizatzearen erronka bereganatu dute, egun Bolibiako eskualderik beartsuenean; sinesmen, kultur eta garapen mailan benetazko misio lurraldean finkatu dira klaretarrak. Misiolariek beren oizko kokagunea irten eta urrunera, mendilerroetan sakabanaturik bizi diren nekazarien bila joan bear dute zenbait alditan. Leku asko errepiderik gabe dago, ala egotekotan euriteak datozenean ibilgaitz geratzen dira, beraz, jeep-a utzi eta mando gainean ainbat kilometro egin bear dute. Noizbehinka nekazari indioak beren errixkatik jeisten dira, "Tatai" edo "Padresito" deitzen duten misiolaria aurkitzeko, eta onek diren bezala artzen ditu, beraienak diren balio, oitura, ezjakintasun eta sineskeriek kontutan artuz. Jaiegunak izaten dira aiek, non euren beartsu eta ixilpeko den bizitz terrenteria (monotonia) dantza eta musika bitartez alaitasuna biurtzen da.

Auek dira misiolariek funtsezkotzat finkatutako elburuak: arbasoen sinesmena egokitzea, aurrak eta gazteak ezitzea, eta kultura eta natur baliabideak sustatzea. Bidaltzen dituzten gutunetan guztien laguntzaz konpon naiko lituzketen bearrak agertzen dira: eritetxeak, eriautoak, eskolak, barnetegiak, jeep-a, sendagiak, arropa, testuliburuak, eta abar. Misioguneak auek dira: *Sakaka*, *Karipuyo, Janqo-Janqo, Bolibar, San Pedro Buena Vista*, *Akacio, Toro-Toro;* euren azken egitasmoa noiz egikarituko den zai izaten dira, iraupenezko bearrean bizi direnez. Dituzten bitartekoak gutxi, bidenabar[22].

d) Gomutagarri diren klaretarrak

Euskal/nafar klaretarren "Gomuta" au asterakoan lau Anai Laguntzaile oroitu nahi ditut ("aaztezineko" beste ainbat artean): *Inazio Meabe Etxebarria* (Igorre 1864-1934), Ginea Ekuatorial-ean igeltseritza eta zurgintza lanetan aritutako misiolaria; *Jose Mendioroz Astrain* (Obanos 1864-1937), bakteriologiko medikuntzan aditua; *Agustin Bandres Usieto* (Zangotza 1865-1936), okulista eta dentista trebea ; *Kandido Torrontegi Bidaurrazaga* (Derio 1926-2001), klaretar jostundegiaren eratzaile eta 24 urtetan erki banakaria. *Arkadio Maria Larraona Saralegi* kardina-

22.– BUSTAMANTE *Jose Antonio, Apuntes para una historia de la Iglesia en Sacaca (Potosi) 1560-1985, (makinaz idatzia), Karipuyo 1985, 312 orr; Berberak., Estudio socio-religioso de la segunda sección de la provincia de Alonso Ibáñez (Potosí). En el bicentenario de la Parroquia. Caripupuyo, (makinaz idatzia), Caripuyo 1979, 175 orr.*



la (Oteitza 1887-1973)[23], gotzai izandako *Florentino Simon Garriga* (Murtxante 1868-1935), *Frantzisko Ozamis Korta* (Gernika 1874-1929), *Joan Jose Maiztegi Besoitaiturria* (Iurreta 1878-1943), *Jose Maria Preciado Nieva* (Kadereita 1886 -1963), *Jose Maria Kerexeta Mendizabal* (Urrestilla 1921-1997)[24], *Markos Zuluaga Artetxe* (Zeanuri 1919), *Karlos Maria Ariz Bolea* (Martzilla 1928). *Iruarrizaga Agirre*-tar sei anaiak, musiko, misiolari eta gobernu gizon izandakoak, Igorren jaioak[25]. Sermoilari eta misiolari ziren *Damaso Fuertes Manero* (La Puebla de la Barca 1872-1928), *Markos Ajuria Gallastegi* (Iurreta 1876-1936), *Juan Migel Atutxa Bustinza* (Dima 1877-1956), *Jesus Morras Ros* (Abartzuza 1911-1978), *Jose Maria Camara Sologuren* (Lendoño 1911-1985), eta beste. Idazle izandako *Tomas Etxebarria Maurolagoitia* (Meñaka 1878-1950), *Timoteo Urkiri Gorostiaga* (Igorre 1920-1993). Euskerazale ziren *Manuel Arriandiaga Gorozika* "Mibisus" (Elantxobe 1876-1947)[26], *Jose Zabala-Arana Goiriena* (Nabarniz 1894-1936), *Gotzon Urrutia Zabalaintxaurreta* (Nabarniz 1890-1975)[27], eta beste. Liturgilari izandako *Grego-*

E

23.– FrisOn Basilio, Cardenal Larraona, Publicaciones Claretianas, Madrid 1979; Berberak, Cardenal Larraona, Navarra. Temas de Cultura Popular, 329 zenbakia, Iruinea 1984, 30 orr.

24.– Pérez Oliver Alfredo María, Un obispo profeta y mendigo. El excmo. y rvdmo. P. José María Querejeta, cmf., Basílica parroquia de Santa Engracia, Zaragoza 1998, 159 orr.

25.– Alday Jesus Maria, Los Hermanos Iruarizaga, Colección "Temas Vizcaínos", 153 zkia, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo 1987, 55 orr.; Berberak., P. Luis Iruarrizaga, cmf. En el centenario de su nacimiento (1891-1991), Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbo 1991, 29 orr.; Ferrero José G., Luis Iruarrizaga Aguire, cmf., Colección "Biografías de Vascos Ilustres", La Gran Encicplopedia Vasca argitaletxea, Bilbo 1977, 283 orr.; Manzarraga Tomás, Homenaje al P. Luis Iruarrizaga, cmf., Coculsa, Madrid 1953, 95 orr.

26.– Alday Jesus Maria, La obra euzkérica del P. Manuel de Arriandiaga, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren dirulaguntzaz egindako idazlana, Bilbo 1984.

27.– Urkiri T., Un claretiano euzkeldun. Semblanza del R.P. Angel de Urrutia, cmf., Editaorial Eset, Gasteiz 1979, 363 orr.

rio Martínez de Antoñana Díaz de Antoñana (Kanpetzu 1885-1971)[28]. Kanonista izandako *Frantzisko Orue-Rementeria Ajuriagogeaskoa* (Muxika 1882-1971), *Siervo Goienetxe Martínez* (Faltzes 1886-1964), eta beste. Bizirik diraunetaz ez dut aipamenik egingo. Biarko istoriak egingo du. Ez nuke zerrenda au amaitu nai eriotz gogor bat oroituarazi gabe, alegia, Aita *Jose Otano Mikeliz*-ena (Lerga 1898 -eta 1936an "nazionalek" eraila)[29], baita zazpi teologia ikaskide gazte eta bi apaiz, Barbastron[30] erailak. Nafarrak ziren guzti auek. Beste 42 gazteekin batera 1992ko urriaren 25ean Dohatsu aitortuak izan ziren[31]. Auexek dira: Aita *Felipe Jesus Munarriz Azkona* (Allo 1875), Aita *Nikasio Sierra Ukar* (Kaskante 1890), eta erlijioso gazte ziren *Xabier Bandres Jimenez* (Zangotza 1912), *Juan Etxarri Vique* (Nuin 1913), *Manuel Martinez Jarauta* (Murtxante 1912), *Faustino Perez Garcia* (Barindano 1911)[32], *Teodoro Ruiz Larrinaga Garcia* (Bargota 1912), *Atanasio Bidaurreta Labra* (Adioz 1911), *Agustin Viela Ezkurdia* (Oteitza 1914).

e) Misiolari Jarduera

Lekaidia "ad gentes" gisako misio eran sortua izan ez bazen ere, Misio lekutan oso asieratik aritu zen. Eta arantza joan zen Euskalerriko klaretar multzo bat: Ginea Ekuatorialera (1883)[33], Kolonbiako Choco-ra (1909)[34], Panamako Darien -era (1926)[35], Brasileko Tocantins-era (1926), Txinako Tunki-ra (1933), Filipinaseko Basilan-era (1951), Japon-era (1952), Honduras-era (1967) eta Bolibiako Ipar Potosi-ra (1971).

1885ko urtarrilaren 27an, Ginearako klaretarren bigarren joanaldian, Meliton Huizi Anai Laguntzailea heldu zen. Hura ezkeroztik 79 euskal/nafar klaretar joan ziren hara (43 apaiz eta 36 anai laguntzaile: Uhartean eta Kontinentean misiolaritzan aritutako klaretar guztien % 21a), beren bizitzaren onena ematen aritu ziren gineatar erriari giza eta kristau sustapena eskaintzen. Gomutagarri lirateke Inazio Meabe, Iturriza, Nieva, Bidaurreta, Bidart, Artieda, Laplana, Arregi, Legarda, Morras, Senosiain eta Marcos Ajuria, azken au anaidiburu eta ibiltari izateaz gain, idazle eta *La Guinea Española* y *El Misionero* aldizkarietako zuzendari.

Euskerazaintza

28.– Alday Jesus Maria, El P. Gregorio Martínez de Antoñana, hijo ilustre de Santa Cruz de Kanpezu, Kanpetzuko Udala, Caja Vital Kutxa, Kanpetzu 1997, 80 orr.

29.– Ikus e.a. Talde, Historia General de la Guerra Civil en Euskadi. El Clero vasco (1), Luis Haranburu -editorearekin batera argitaratua, San Sebastian y Naroki, S.A., Bilbo, 308-309 orr.

30.– Campo G., Esta es nuestra sangre. 51 claretianos mártires, Barbastro, agosto 1936, Publicaciones Claretianas, Madrid 1992, 380 orr.

31.– Alday Jesus Maria, Santoral Vasco. Santos, beatos y siervos de Dios, Klaretar Misiolariak, Bilbo 1994, 513 orr.

32.– Barea E., Un héroe entre héroes. Biografía del Beato Faustino Pérez, Publicaciones Claretianas, Madrid 1995, 308 orr.; Vinci T., Beato Faustino Pérez. Un protagonista del "Seminario Martire", Postulazione Generale Claretiani, Roma 1996, 113 orr.

33.– Pujadas T.L., La Iglesia en la Guinea Ecuatorial. I. Liburukia, Iris de Paz, Madrid 1968, 528 orr.; II. Liburukia, Río Muni, Editorial Claret, Barcelona 1983, 518 orr.

34.– Mesa C.E., La historia claretiana del Chocó: 1909-1959. Cincuenta años de servicio a Cristo y a Colombia, Madrid 1960, 304 orr.

35.– Pujadas T.L., Misión del Darién, Vicariato Apostólico de Darién, Colón-Panamá 1976, 621 orr.

Ez dira aazteko ere Olangua eta Reparado Etxeberria, honek kombeen izkuntzan mintzatzen zekien, eta Natalio Barrena, Annobones gramatika baten egile, alaber katekima bat, Fa d'ambu hiztegi bat eta Uarteko mapa batena, ala nola linguista eta etnografiazko beste idazlan interesgarriren egile. Aipagarri ere egun bizirik dirauten Aita Antonio Abaunza, Morga-ko semea, eta Nicolas Preboste, Aizpun -ekoa. Eta oraindik orain Ginean ari den Aita Bittor Ruiz, arabarra.

Bestalde, Panama-ko Darien-etaz mintzatu ezkero, gomutagarri ain misiolari duin, zoli, trebe eta ekintzale izan ziren Aramendia, Irañeta, Jaurrieta, Otxaran, eta batez ere Jesus Erize, kuna artean berrogei urte egona, kuna hizkuntzan *Bikaritzaren Katekekima, Epistolak eta Ebanjelioak* idatzi dituena, eta orietaz gain ospetsu den *Kuna hizkuntzaren Gramatika.* Arrigarri da Bikaritza orretan euskaldunek izandako jarduera, non leen eta oraingo gotzai guztiak klaretar euskaldunak izan diren: Joan Jose Maiztegi (1926-1934), Jose Maria Preciado (1934-1955), Jesus Serrano (1956-), Markos Zuluaga (1976-) eta Karlos Maria Ariz (1981-).

Gainera, beste auen jarduera: Aita Jesus Gonzalez Sarasketa Japon-en, Kerexeta monsinorea Filipinasko Basilan-en, Kresentzio Iruarrizaga Brasilen, Manuel Atutxa Kolonbian, eta hainbat … eta berrikiago Bolivia-ko Ipar Potosin den misiolari taldea, eta Kuban, Guatemalan, ta beste ainbatetan, "ad gentes" misiolaritza istoriaren orri asko bete aal zituzketenak. Euskalerriako Erkidegoak misiolari edadura du, sekularren ekarpena bilduz eta sustapen egitasmoak elkartezkoekinean landuz.

f) Andrazkoen jarduera

Euskalerriako klaretar karisma ere Aita Klaret-ek eta Antonia Paris Amak batera sorturiko Maria Sortzez Garbiaren Erlijiosa edo bestela deitu izaniko Klaretar Misiolariengan gauzatu da [36]. 1958ko Biltzar Nagusiak aurreko Biltzarrak artutako erabaki batzuk azpimarratu zituen, hain zuzen, gaikideentzat Ikastegi baten ezarkuntza[37]. Abartzuza nafar errian kokatu zen ezarkuntza ori "euskal/nafartar errialdean misiolari bokazioen onerako zegoen kristau bizitza kalitatezkoagatik"[38]. 1960. urtetik 1976. urtera Espainia osoko mojagaitegi gisa erabili zen. Mojagaiak batxilergoa ikasten ziarduten, azterketak Gasteizko Institutoan eginez. Monjen elkarte onek 1983raino iraun zuen, urte orretan ezabatua izan zen, beste erlijiosa, erlijioso eta apaizek apostoliku lanak ain egoki zerazkiten leku batetan jarraitzen geiegizko ikusten zutelako.

36.– Antonia Paris Ama Vallmoll-en (Tarragona) jaio zen, 1813an, eta Reus-en hil, 1885ean. 1841ean hasi zen erlijiosagai gisa Tarragonako Andra Mariaren Lagundiaren komentuan, eta erlijiosa abitua janzkia 1850an hartu, bainan zinik egin gabe. Aita Klaret-ek deituta, beste lau erlijiosagaiekin batera Kuba aldera itsaseratu zen, eta han artzapezpiku eta misiolari santuarekin elkarreko lanean aritu kristau hezkuntzarako zen Maria Sortzez Garbiaren Erlijiosen Lekaimeak sortzen. 1859an Espainiara itzuli zen beste elkarteak sortzeko. Antonia Paris Amaren bizitza eta egintzaz: Ikus Alvarez Gómez Jesús, Historia de las Religiosas de María Inmaculada. Misioneras Claretianas, 2. liburua., Publicaciones Claretianas, Madrid 1980.1999, 493+1124 orr.

37.– Ikus BILTZAR NAGUSIA. 1958, 9. saioa, Artxibategi Orokorra RMI, Erroma, EA, 1.13.

38.– Klaretar Misiolari mojen ehun urtealdiko aldizkaria, 1955, 52 orr.

Ordurarte, Erlijiosak erlijio klaseak eman ziuzten Lizarrako eskola publiko batetan, alaber Abartzuza eta inguruko herrietako andere eta neskei jostun eta jantzigintza klaseak eman zizkieten, aurtzaindegi txiki batez ere arduratuz. Urtean zearreko zenbait sasoitan Espainiko leku desberdinetako klaretar mojak sustatutako gazte taldeen elkarraldi antolatzen zituzen, baita sinesmena sakontzeko ikastaroak ere.

Bilbon 1950an klaretar moja orien elkarte bat ezartu zen, zortzi urte barru ezabatu zena. "Santiago Apostolua" izeneko eta Salletarrena zen Oinarrizko zein Ertainezko Irakaskuntza ikastetxe eta barnetegian aritu ziren. Mojen lana Erlijioso eta ikastetxeko ikasleentzako sukaldaritza zen, eta ia publiko zen kapera zaintzea.

2. Euskalerriako klaretar Erkidegoaren lurralde eta apostoliku egituraketa.

Klaretarrek Euskal errian izandako jardueran izan da *aurreko* bat eta *ondorengo* bat. 1968. urtea aurretik, Kontzilio aurreko giro batean bizi eta ebanjelizatzen zen, lekuko eleizek eta beste Orden eta lekaidi erlijiosoek aritzen ziren modura. Elizbarrutiar apaizgoaren gehiengo bat bere Erriarekiko leialtasunez aritu zen[39]. Baina Eleizaren beste zenbait arduradunek, tartean gotzaiak eta orokorki lekaide/lekaimeak sar daitezke, ez zuten eragin ebanjelizatzeko zuten Erriak bear duen begirune eta maitasuna. Ezagutua bazen ere, ez zen egikaritu irizpide ebanjelikoak suposatzen duen kultur murgilketa. Erlijioso jaurbide bidez bein baino geiagotan euskaldunak Euskalerritik kanpo bidalduak ziren. Ez zen bertoko bokaziodungairik suspertzen, eta beste antzeko. Euskalerriako klaretar Erkidegoa sortzean, egoera au konpontzeari ekin zitzaion.

Euskalerrian kokatutako Anaidien gaineko jaurbide egiturek ez zioten garrantzirik ematen lurralde eta apostoliku irizpideari. Edadura andiko Erkidegotan banatuak izateak zera ekarri zuen: Anaidietako partaideak pentsamolde desberdinak izatea eta ados batekoak ezin izatea. Arrona-ko klaretar bat Kordobara ala Brasilera errazki zitekeen bidalia; oso zail, ordea, Donostiara ala Bilbora[40]. Kla-

39.– Ikus Alday Jesus Maria, La Voz del Clero vasco en defensa de su Pueblo, 2. liburukia., Idatz Ekintza, Bilbo 1986, 421+436 orr.

40.– 1901-1907ko seiurtealdian Balmaseda, Bilbo eta Iruineako Anaidiak Gaztelako erkidegora atxikiak zeuden; erkidego hori honelako herrietara zegoen zabaldua: Almendralejo, Kalagorri, Ciudad Real, Ciudad Rodrigo, Kordoba, Don Benito, Ecija, Jaén, Plasencia, Rioseco, Segobia, Zafra. Eta Hego Amerikan: Txileko Errepublikan, Curicó, Serena, Linares, Santiago, Valparaíso, Brasilen, Sao Paulo, eta abar.

retar gutxi ziren Bilbora[41], Beirera[42], Agurain-go nobiziotegira[43], Balmasedara[44], Aldapara[45], Donostiara ala Tolosara[46] bidaliak. Horrezaz gain, edozein jatorriko klaretar bat izan zitekeen bidalia Tolosara, Donostiara, Bilbo, edo bestera. Euskerazko ebanjelizatzeaz, zer? Erriarekin uztartzeaz, zer? Nazionalismo kutsua luke. "Gure bokazioa mundu osorako da", iardesten zen.

Erkidegoen egituraketa makal eta tirabirazko izan zen[47]. 1895eko Biltzar Nagusian gauzatu zen leen banaketa. Garai hartan Lekaidian 50 Anaidi ziren, eta 1591 lekaide. Banatu ziren Erkidegoak Katalunia eta Gaztela izena artu zuten. Euskalerrian zeuden Anaidiak Gaztela-ra atxikituak geratu ziren[48], eta Bilbon erkidegoko egoitza nagusia finkatu zen. 1906an beste Erkidego berri bat sortu zen, Betika. 1950ean beste egituraketa berri bati ekin zitzaion, oraingoan lau Erkidego, laugarrenari Kantabria Erkidegoa deituz, "edadura au izango du: Nafarroa gei Vascongadas deitzen oi den eskualdea, eta Asturias, Logroño, Santander, Leon, Palentzia eta Burgosko eremu zibilak…"[49]. Erkidego gobernua Aita Agustin Lazkano Lete (Bergara 1892-Bilbao 1977) erkiburuak, gei lau kontseilarik osatu zuten: orietatik, nafar bi, bizkaitar bat, eta erki banakaria. Bigarren erkidego gobernua (1956-1962) Aita Toribio Perez (errioxatara) erkiburuak eta lau kontseilarik osatu zuten; arabar bat, gipuzkoar bat eta bizkaitar bat. Une onetan desadostasunik adierazi zen aurkeztutako bi egitasmoak izan zuten ebazpen desberdinagatik: Iruinean "Larraona" izeneko ikastetxe eta egoitza eraikitzeko egitasmoa, eta Madrilen "Alcala" unibertsitari egoitza eraikitzearena, azken au ebatzi zen, eta baita "jatorriz euskal" bokaziodungaiak eragiterakoan erabilitzen zen jarreragatikk[50]. Jarrera eta pentsalmodea aldatu bear ziren. Ori dela ta, eztabaida nabarmena zen[51].

41.– Adibidez, 1935an Bilboko kuria Anaidian, 22 anaikidetik soilik 4 nafar/euskaldunak: bizkaitar bi, arabar bat eta nafar bat.

42.– Anaidian 30 anaikidetik, 68 erlijiosoberri gazteak zenbatu gabe, soilik 4, apaiz bat eta hiru anai laguntzaile.

43.– 13tik , soilik 2: nagusia, Frantzisko Orue-Rementeria, eta Felix Mariezkurrena Anai Laguntzailea.

44.– 23tik, soilik 7.

45.– 12tik, soilik 3.

46.– Donostian 12tik, 7, Tolosan 15etik, 10.

47.– Ikus URKIRI *T., Provincia Claretiana de Euzkal-Erria. Notas histórico-canónicas acerca de su formación, Ediciones Monte Casino, Zamora 1985, 427 orr.*

48.– Gaztelako Erkidegoaren hedadura honelakoa izango zen: Gaztela biak, Extremadura, Andaluzia, Leon, Galizia, Asturias, eta "Nafarroa gehi Vascongadas", dio 1895ko urriaren 25eko Ordena eta Erlijiosoentzako Kongregazio Sakratuaren baimenezko dekretuak: Ikus Anales de la Congregación…, 5 (1894-1895) 277.

49.– Ikus agiri batetan adierazten dena Annales Congregationis…, 39 (1949-1950) 450-451.

50.– "Izan bada [Euskal] Herrian erlijioso eta apaizgorako bokazio loratze bikain bat. Elizbarrutietako Apaigaitegietan eta erlijioso Elkarte askoren ikastegietan frogatzen dena da bertoko bokaziodungaietaz beterik dirautela. Gure Klaretar Lekaidian eskualde haietan bokaziodungai gutxi sortzen da. Zehazki Euskal eskualdeetakoak banan banan zenbatu daitezke... (Ikus URKIRI *T., aip. lana., 104 orr.*

51.– "Balmasedan gure Ikastegiko Apaiz eta Anai Laguntzaileak bisitatu nituen, dio Aita Gabino Rekaldek garai hartan Nagusi Orokorra zen Aita Pedro Schweiger, germaniarrari. Bokaziodungaiak orduan oporretan zeuden. Zera esaten zidaten Klaretarrek: Hona ez da ia euskaldun umerik etortzen, eta datozten gutxiak, ezeztatu eta etxera bidaltzen dituzte. Bizkaia eta Gipuzkoako herri batzutan

Aurreko eta ondorengo bat. Batikano Kontzilio II.ak kulturmurgilketa irizpidea zeazki azpimarratu zuen, Eliza osoaren bizitzan bearrezko jardunbide bezala. Klaretar Lekaidiak leenengo unetik Kontzilioaren emaitzak leialki bereganatu zituen. Eta ondorengo ausnarketak erkidego erlijioso berri bat eragin zuen: *Euskalerria Erkidegoa*[52]. Ez zitzaion barne naiz kanpoko eragozpenik falta. Bainan sortu[53], 1968an sortu zen[54]. Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lau lurralde historikoetara edatua. Orden eta Erlijioso elkarte gutxi zegoen orrela eratua.

Berregituratua zen *Erkidego* onen asieran betebear eta elburu batzuk begitandu ziren, orain arte bizikera eta lana xedatu dituztenak: barne adostasuna berregitea, erkidego nortasun bereizgarri bat lortzea, gazte pastoraltza suspertzea, Potosi Iparrean (Bolibian) Misio eskualde bat artu eta Bilboko S. Frantzisko auzoan lana sakonduz bazterketan murgiltzea, Euskalerriak bizi duen gatazka eta indarkeria egoeran bakearen aldeko pastoraltza sustatzea, eta Klaret-en erako ebanjelizatze ekinean autuzko sekularrak presta eta geitzea, bokaziodungaiak suspertzea eta ezibide egoki bat eratzea.

Urte guzti auetan iraun duen erronka multzo bat. Lurralde eta apostoliku eraketa berri bat, globalizazioari begira bainan sustrairik duen Erri batean txertatua. Klaretar jarduera sendotzeko bere bizimoldea eta misioa berregituratu bear ziren. Erkidego mailako Bilkura Nagusi eta Biltzarrak sustatu dira[55], Anaidi berriak sortu, Potosi Iparreko Misioan sekular misiolariak lanean jarri dira, Lekaidiaren naiz Eleizaren bearretara gertu egoten saiorik egin da. Guztiau korapilotsu izan diren azken amarkada auetan. Erriarengandik abiatu eta Erriarekin batera. Klaret-en karisma jarraituz, Itzaren zerbitzari eta misiolari.

---

*hauxe adierazi zidaten: Zertarako bidali gure ume-koxkorrak Balmasedara, denak itzularazi egiten dituzte eta…! Hobeto datorkigu beste Euskal Ikastegi batzuetara bidaltzea, horietan pozik izaten bait dira eta ez dute gure hizkuntzarik galtzen… Eta antzeko beste esaerak… Aita Eusebio Orbe, Apaiza oso ona, leial eta fidagarriak Bilbon berarekin hitz egin nuen batetan kontatu zidan bere herriko sei gazte Balmasedara joan zirela bokaziodungai gisa, bainan guztiak ezabatuak izan zirela. Gerora beste Ordenetara joan eta egun garrantzizko mailako apaizak dira. Honako hau ere esan zuen: hiru senditar aukeratuak ditut Balmasedara bidaltzeko, bainan ezabatuko ote dituzten beldur naiz. Familiak ere horren beldur dira…" (*Urkiri *T. aipatua, aip. lana., 105-106 orr.).*

52.– 1980. urteko Erki Bilkura Nagusirarte ez zuen izen hori hartu. Ordurarte 1950ean hartutako deituraz jarraitzen zuen: Kantabriako Erkia.

53.– Ikus Urkiri T., aip. lana, 107-177 orr.

54.– 1993an Erkidegoaren lehenengo 25 urteak bete ziren. Euskal Herriko Albistaria. Noticias de los Claretianos de Euskal Herria albistegiaren 156. zenbakiak urtemuga horri zenbaki berezi bat eskeini zion.

55.– Erkidegoa lurralde erara moldatu zenetik 6 ohizko Erki Bilkura egin dira, sei urteoro: 1968, 1974, 1980, 1986, 1992, 1997; non eta gobernukide berriak eta seiurtealdirako irizpideak finkatu izan dira. Bilkura horien bilera agiriak iragandako seiurtealdi bakoitzeran ikuspegi orokor bat ematen dute, eta hurrengorako asmoak. Aipagarri 1968-1969. urtealdiko Bilkuran bizi izandako eztabaida, eta Bilkuren agiri hauek: Berrikuntza aurrera doa (1986), Hitzaren serbitzari (1992), Gure misio profetikoa Euskal Herrian (1997).

Egun, Euskal Herriako klaretarrak Anaidi hauetan daude:

Bilbo- San Frantzisko kalean, Anaidi bi: Erkidego Kuria (6 anaidikide) eta zinegindako teologia ikaskideen prestaerazko elkartea (6).

Bilbo- Zabala kalean: Bazterketaren aldeko murgilketa ekinean Mariaren Biotza eta San Rafael parrokietako pastoraltza ardura daraman Anaidia (3).

Leioa- Askartza Claret Ikastetxean: ikastetxea daraman Anaidia (13).

Iruinean, Anaidi bi: Aldapa-ko Atseden Egoitza (12), eta "Larraona" Ikastetxea eta Unibertsitari Egoitza (8).

Agurain: erriko eta inguruko parrokien zerbitzurako Anaidia (7), alaber gazteeentzako Elkartegia. Erkidegoaren Liburutegia ere dago an.

Donostia: Ikastolaren eta "Mariaren Biotza" parrokiaren zerbitzurako Anaidia (10), eta alaber Pio V. eta San Inazio parrokietan pastoraltzan laguntzen du.

Tolosa: ezabatze bidean dago.

Gasteiz: Ariznabarra auzoan eta iriburuko kanpoaldean beste iru parrokien ardura daraman Anaidia (5), gei Itza bizkortzearen Zerbitzua eta *Proclade* EGE (ONG)-aren Arabako egoitza.

Bolivia, iru Anaidi (lau anaidikide bakoitzean): orietatik bi Misio eskualdean (Sakaka eta San Pedro Buena Vista) eta bat La Paz iriburuan (Misiorako Bilketa bulegoa eta parrokiaren ardura).

1968an Erkiaren kopurua 135 partaide bazen, gaur egun 95.[56] da; orietatik, 74 apaiz, betiraunkorreko diakono 1, 14 anai laguntzaile, 5 zinegindako teologia ikasle, eta nobizio 1. Euskal errian 74, Potosi Iparreko Misioan 12, Lekaidiako beste erakundeetan 9.

Erkiaren Albistegiak izen au du: *Euskalerriko Albistaria CMF. Noticias de los Claretianos de Euskalerria*[57]. Albistegi onetaz gain 1983. urtetik aurrera aldizkari bat ere zabaltzen da: *Claret Gaur. Noticias de la familia claretiana de Euskalerria*.

Euskalerriko Klaretar Misiolariak, "Eleiz-Artzainak laguntzearren porrokatuak Hitzaren aldarrikatzaile izanik, Erreinuaren Berri Ona mundu zabalera barreiatzeko baliabide guztiak erabiliz"[58] Itzaren Zuzeneko Zerbitzua aukeratu dugu, prediku eran, edota erritar misioen bidez, eta beste, Iruinean, Balmasedan, Bilbon, Tolosan, eta beste. Irakaskuntzaren Pastoraltzan Bilbo-Askartzan, Donostian - "Mariaren Biotza ikastolan", eta Iruinean - "Larraona ikastetxean". Bazterketa giroko lanetan, Bilboko San Frantzisko auzoan eta Ipar-Bolibiako Potosin. Elizbarritiaren parroki laguntza lanetan, Donostian, Agurainen eta Gasteizen. Deustoko unibertsitatean eta Gasteizko teologia fakultatean. Ea Euskal Herriko klaretarrek Klaret berak emandako ondo ezaugarri au egi bihurtzen ote dugun: *"Andre Mariaren Biotz*

56.– 2002. urteko urtarrilaren 1.aren garaiko datuak

57.– 1950ean Cronica de la Provincia de Cantabria izena zuen; eta gero Informaciones CMF. Provincia de Cantabria (1968) izenera aldatu. 1975ean, ordea, CMF Albistaria. Noticias de Cantabria, eta 1980 ezkeroztik, Euskal Herriko Albistaria. CMF. Noticias de los Claretianos de Euskal Herria.

58.– Lekaidi Araudia CMF., 6. zenbakia

Garbiaren semea, maitasunez erretzen dagoen eta nonai ibili, an kiskaltzen duen gizona da. Egiazki nai du eta oroz aalegintzen da Jainko maitasunaren sutan gizadi osoa pizten…"[59].

Klaretar Misiolariak, edota Mariaren Biotza Garbiaren Semeak, Aita Klaret (egun San Antonio Maria Klaret) abadearen bidez asi ziren 1849ko uztailaren 16an Vic-en (Bartzelona), eta Euskal Errira **1880**ean eldu. Urte batzuk leenago, 1866. eta 1868. urteetan Klaret-en andik onako ibilkera apostolikuek -Zarautz, Loiola, Gasteiz, Lekeitio eta Donostia zear- ondare au utzi zuten. 1880ean Euskal Erriko leen klaretarrak egin zuen zin: Antonio Sola Alvarez, apaiza zena, Erriberri -Oliten 1844ean jaioa. Gero beste ainbat geitu ziren. 1880-1890.amarkadan 172 euskaldun egin ziren klaretar: 132 nafar, 21 arabatar, 17 bizkaitar eta gipuzkoar 2. Eta Anaidi auek sortu: Iruña (1880), Balmaseda (1882) eta Bilbo (1886). Geroago sortu ziren: Beire (1910), Tolosa (1914), Agurain (1918), Donostia (1920), Bilbo -Areeta (1942), eta 70ko amarkadan: Iruinea, Gasteiz, Leioa, Getxo, Potosi Iparreko Misioa (Bolibian). Klaretarrek Euskalerrian 1968. urte inguruan *aurreko* eta *ondorengo* bat izan dute, bigarren aldian Euskalerria Erkidego gisa eratua, lurralde zein apostoliku mailan. Erriarengandik abiatu eta Erriarekin batera. Klaret-en karisma jarraituz, Itzaren zerbitzari eta misiolari.

Josu Mirena Alday Otxoa de Olano, cmf.

Arantzazu 2002, Ekainak 27

(*Euskeratua: Patxi Otamendik)*

59.– *Lekaidi Araudia CMF., 9. zenbakia*

Landajuela, ANTON

1.– Arratia deritxon aranean 1914gn urtean lotzaillaren 4an jayo nintzan.

Umaroan amaren ondoan, eskeko epeltasunaren gozoan, auzotegiko giroan, angotzean erriko eskola erdeldunera, erderarik tautik eznenkiala.

Iurre, jayoterri neurea alakoxea zan. Igurumen aretako erri eta biztanleak be, alakoxeak ziran; erderaren kutsurik bageko euskeldun utsak.

Ikas-orduetatik at, arranoak bazen aske gintzazan, eta geroagoko ume ta gaztek aiña ikasbearrik izaten ezgendualarik, abailtu arte jostaturik etxeratzen giñan, lerturik.

Umea beti ta toki guztietan ume; ikasteko gogo gitxi, eta seme-alabaren ikasketatzaz gurasoek be ardura andirik ez. Amabost urte bein bete ezkero, seme-alaben eskola ta jakiteak baiño, gurago irabasten asi eiteazan.

Ni be, ba, amabost urteko adiñera iritxi nintzaneko, aitita-amama ta izeko-osabaren baserrian nengoken lugintza-lanai buru-belarri loturik. Erriko enparantza, eliz-iguruak, erreka-ertzak….danak aiztu nebazan.

Josta ta josta-lagunen artean aziarentzat gogor-latza zan kortatik ganbarara, solotik basora, bedarretan, atxur-lan eta beste zenbait lan goizetik gaua arte egunero esku tartean erabilibearra.

Amazortziko nintzanean eta gizon-itxura jadetsi, alor, baso, bei, txarri, atxur et igitai egozan tokietan lagarik, etxera itzuli nintzan eguneroko alogera irabastera. Itzuli, asi, irabazi, jarrai, ekin… bizkar eta esku-besozko lana. Orreik lanok nire bizialdikoak izan dira.

1979gn urtea da. Joan ziran egun, urte ta aldiak be, beroroitzen diardutanean.

Orduan, nire gaztaldian etzegon orain diran jolastokirik, atezbarruko dantza -aretorik, erriz-erri ibilli al izateko beribilik; ilargiaren gau-argian oyanera neskatillaz joaterik, wiskirik, eskutik eskura dabilkigun labetik atarako diru ugaritzarik. Olakorik orduan etzan.

Norberaren errian, auzotegien bateko jayan, edo urbil-urbilleko erritxuen bateraño joaten ba´giñan, jaya jai egiteko naikorik zan.

Joan-etorria oiñezko zan, txistu tuntun-soñuan espartziñak altzitu eta illunabarreko "aimariak" joten ebaneko, neskatillari etxera lagundu. Euri izanda-ta, edo zer edo zer aiztu egin yatalako ezin etorria izan dot esatea alperrik zan. Orduari utzegiterik etxegoan, iturriek agortzeko ba ziran be.

E

Gizona naiz-ta andreak jo, beti gizon edo gizontxo. Mutillak ezeban izaten illunagaz batean etxeratu bearrik.

Ogerleko bat, txin-txin zolidun ogerleko batekin erregekumek izaten gintzazan. Txistuaz dantzatzea duan zan, baiña bakadakin, auspo-soñu, akordeoi edo zana zalakoan ekin-aldi bakoitza amar zentimo, txakurrandi bat.

Beso bategaz garritik eta beste eskuagaz neskaren eskuari eldurik egiten ziran, dantzaketa lotu areik ziran aldi aretako abade ta gurasoentzat Pedro Botero-ren su-ontzirako dei garratza. Modu artan askorik egin be, ezgenduan egiten ezgenkialako. Askatuan bai, askatuan mutillak giñan, beatzak urratu arte ekinik, zeru eta inpernuaren bildurrik bage.

Zidarrezko ogerleko barria be aitaturik, oar au emon: dantza, txikito batzuk ardau, ogibitarteko be jan eta nai genduan beste jolastu…, ogerleko aren kondarrakaz etxeratzen gintzazan. Gaur egungo gaztientzako ogerleko arek eukan osasun ta indarra siñisgaitza; gogoratu bearra dogu, baita be, gizonaren eguneko aloger -dirua zala.

2.– Aldi artan ene jayoterri

Lau errota, eiera ezagutu nebazan; iru bola-toki, perratzalle bat, iru aroztegi, gizonezko jostun bat eta burdin-arotsez bi; bost abade, lekaimeak eta eskola bi mutillentzat eta beste bi neskentzat. Santa Lutziko auzotegiak be bai eukan beste bat bertako ziran mutil eta neskentzat. Erriko eskola leporaño beterik, beti.

Lurra ta aren inguruak muskiltsu, bideak pista ta makarrez; ulea barriz etxean amak ebagia. Betik goraiño Gaztelugatxe-n aiña mailla burruan be izaten genduan. Garbitasuna gitxi ta argala.

Geroago baten eskola barria beko enparantza zarrean egin eben, baiña obe iduritzen yat enparantza zarra soilik deitu, enparantza bat baiño besterik ezta iñoiz izan-da.



Irakasleak iru ziran. Nagusia ta gipukoar bat euskeldunak, irugarrena erdelduna.

Erderarik ezgenkielako, eta irakatziezo gurarik edo… erderaz egitera beartzen ginduezan. Euskerarik egiten bagendun zigorperatuak izaten giñan. Zigorra; etxera lagunak joan ondoren, idatzi ta idatzi eskolan, edo-ta bizi ziran etxepean, kortan.

Irakasleak; Don Marzelo, don Ignacio (biak giputzak) eta don Jose, au erdelduna. Eraztun madarikatua!

Ikasleak iru mailla ezbardinetan banandurik gengozan. Berengoek 3, edikoek lau edo bost (enaz ondo gogoratzen) eta gorengoek 6pta. ordaintzen genduan.

Oraingo guraso ta ikasleentzat illean 6 pta. ordaintzea, uskeri gorria litzaikie, baiña aldian aldiari dagokion neurriagaz neurtu ba-ginkez lengo ta oraingo auziak, 6 lauerleko areik aitaren egun bateko zortzi orduetako lanaldiaren ordainsaria zala esango leuskigu.

Len eta orain be, beraz, txakurrek ortozik eta ugelazoek ortozik, alde guztietan.

Bideak.

Bilbo-tik Gasteiz-era ta Igorre-tik Dima-n gora Otxadio-rakoa. Santa Luzira -koa ta, Basauntz-era doazanak Gezala-tik nire ollasko aldian egiñak dira, Garikoi -tik Igorre-bekoa zear Garbe-rako nagusia ta auzotegien batzuetarako medarragoak, oraintsuago-koak dira.

Iurrebaso, Basauntz, Santa Lutzi, San Kristobal eta ainbat lekutatik lurrak eta lanak emoniko zitua errira astoz jatsiten eben. Intxaurbizkar (San Kristobal-Santa Lutzi)ko astoak Basauntz-koak baiño andiagoak izaten ziran. Basauntz-koak gizonaren garrirañoko txikiak, ulez estalduak begiak.

Zazpi-zortziren bat taberna edo txiriboga, eta danetan aurkitu geinkean taloburdin, abarka, ikuzkai, txitxirio, urolo, igitai t-abar, danetik.

Lurraren emaitzatatik bizi ziranak larunbatero labekada ogia erretan eben. Asteroko ogia izaten zan, artozkoen bat be bai eta, sagarrik izaten zanean labeak artualeko sagar erre pilla mauka-mauka ogi-koskorraz jateko.

Garitik iru ogi mota egiten ekien gure amona areik; ogia, pamitxa ta tremasa. Egun berean jan ezean pamitxea gogortu ta gauzeztu egiten zan, baiña piti bat otzituten zanean gero, txit atsegiña ta gozo-gozoa izaten zan.

Tremasa barriz, urun eta birzaiezkoa izanik bigunean jan ezean latz eta jangaitz egiten yakun.

Dendako ogia, iturriko ura, eulorria.

Alor-lurrik ezeukienentzat ogia Areatza-tik bialtzen euskuen. Zalgurdi bi goizero etorten ziran, eta geroago baten Bilbo-tik eta Durango-tik be, bai.

E

Kilo biko ogi andiak, bigunean mauka-mauka jateko aukerakoak. Dirua baiña urri, eta ogi gitxiagoz lapikokoa geiago janarazoteko edo ogi bi andi eta iñoiz iru be bai, sendirik geinak erosten ebezan.

Eta bi, ta iru erostea zergaitik izaten zan?. Legorra ta gogorra askoz bere gitxiago jaten genduelako, ume ta umekoskor giñanok. Gosez ezgintzazen azi, miskiriz ok-egin bez.

Eberdia, eta eberdiaz batean iturrietarako bideetan joaten gintzazan. Gorbeialdetik datorren ezkerraldekoek Agarrepera eta, Laurkin edo Leurkin gora eskuman bizi giñanok. Latsiturria be Angelatxunean ba-egoan, baiña ur zatarra, txarra zan.

Udaldian emoi urrikoak ziran, biak, eta belutia izateak ordu oso baten berari egokion txandaren zai egonbearrean izaten ziran.

Mutil-koskorrak iturrirantz aurrelari, etxerantzakoan nagi, ura epeldurik genkarren. Noizean bein belarrondoko ederrik be irabasten genduan.

Uretarako ontzia bustinlurrezkoa. Osorik musturra eukanak kirtenik ez, eta kirtendunak goiertzak akatzez. Osorik bat bera bez.

Ontzia izkutaturik txoriabien billa asten gintzazenetan eta geu lako lukien batek ontzia beste lekuen baten gordetan euskunean, edo-ta gordetan geuntzanetan, larriak eta estukurak onduantxe izaten ziran. Alako egunetan bazkari bi: babalapikoa ta atzamarren txatxamurkadak.

Ardaurik etxeetan ezan edaten eta, jayegunetan be, neke andiz. Ura izaten zan, bada, aoan mamurtzen zanari bultz eta sakaegiten zintzurrean beera joatekoari egiten eutsana.

Eulia, eltxoa, ardia ta zorria udan ugaritzerik ugarienak izaten zira.

Euliek afalorduan eguna illundurik egoalako edo moteldu egiten ziran; eberdietan baiña bero kizkalak, trumoyak trumoi-euri zetorrenetan bizkortu, eztenzorroztu, millaketan askotuten ziran. Galdartean, morokillean, esnean jaki eta edontzi danetan euli ta eltxo. Itorik ezegoana zirkinka igez egin gurarik, eta zirkinka ezegoana illotzik izaten ziran.

Orridun eulorria abartxo bat izaten zan bazkal orduetan euliak izutu eta urrundu arazoteko. Ura eta eulorria, bata baizen bearrezkoa, bestea be

Azpil sakon andia iminten zan maiaren erdian, andik danak jaten egikean. Babalapikoa ustu, eulorria erabilia-ta, alan bere bi eziranean iru izaten ziran azpillean saldatik urten ezinean zirkinka. Maikide batek indabaz beteko zalia aora eroyanean, ezkerrekoa, eskubiko, aurreko, euli zendua azpilletik ateratzen eragion.

Euli-uxatzalle ona zanarren eulorria, txantxagorri zomorrotan beste euli jango genduan, ziur askorik.

Kukusoak (Arratia-n ardiak) izurri naskagarria, odolkiko izurria.

Mutikoen soñekoek lau ale; prakak, arkondara ta oiñetako biak. Pijama ta olako oe-jantzirik izenez bere ezgenduan ezaguten. Praka ta oñetakoek oerakoan kentzen genduzen, atorratxoa baiña, iñoiz bez. Igandetik igandera arkondara bera izaten genduan soñean loi zein garbi, osorik naiz tarratadatsu.

Amak oerakoan: Samako botoiak askatu.

Samako batoiz loturik loeginezkero gela bazterreko ardi, kukusoak ara etorzan, samara.

Ardia txikia ta pitia danaken ezten zorrotzekoa, eztenaren zuloa barriz egunetan be ezabatzen ezan kulatza. Zomorrotxo areik il eikeazan pozoirik, lupudun lobel eta ilgarrik ezgenduan ezagutzen. Mutikoen okospe, idun eta samea belarrietaraiño ardien eztenkadaz zuloturik izaten genduzan ardi madarikatu areik negu-ko otzez ilgo ziran arte.

Zorririk be izaten genduan, ardiak bazen ugari ezbaziran be. Orraztuten ginduezan bakoitzean beti izaten zan aletxoen bat orraziaren ortzetan.

3.– Mizkin eta mizkinkeriak

Ezgenduan ezagutu. Eskolatik etxerantzean ogi-zati andia bat jan eta kitu. Gose andia izatean barriz urdai-zerrendatxuen bat, sagarra….txokolate ta gozokirik iñoiz bez.

Ogi-zerrenda eskuan urtetan giñan, mauka-mauka janez jostatu, neke-neke eta illunabarraz etxeratu. A bai ba zan osasuna, jostatubearra, ezerenganako arduraik eza, lokarririk gabeko zorun mamitsua.

Gizakiak biziera, ondo daroan neurri berean goibelago agertzen da. Jostalluak umeak, umetatik yori, eskuak bete gozoki. Aukeran dau dana, ok dagio inguru -minguruan ikusten dauan guztiak. Ugaritasun andiegia, ume ta mutikoentzan ondamendia.

E

Urtean bein edo birritan gure amak Durango-ra edo Bilbo-ra, eta Santiagito -ren malmabiskokozko esku bete gozokiz itzultzen ziranean, zeruetako oziñetan gotzonak igerian bazen pozkor izaten giñan.

Umetxu barria uguztatzen ebenean be, aitabitxik arrapallo jaurtitzen ebazan gozobilpitietatik ale gitxi batzuk jasotzean; agure urtetzuen batek beko plazarik goikoraiño bialdu eta mandatuaren ordain-saritzat (5ctm.) txakurtxien bat emonten euskanean, pitean-mitean zeru andietan izaten gintzazan.

4.– Urtean birritan dirutsu

Erriko jai nagusi eta txarria ilten genduanean. Jaiak ziranean ba, izeko-osaba ta senditarteko besterik be bazkal-aparia egitera etorten ziran. Izeko batek txakurtxikia, besteak be alako bat, osabengandik bi-iru txakurrandi, egun danean izaten gintzazan, aberats andi.

Erreal bi eta aberatz? Bai orixe, aberatz be aberatz! 1979gn urtean bizi gara, eta oraingo ume ta ume eztiranentzat siñisgaitza.

Baiña goazen arin arian aurrera, geroago aitatu dotan arazo siñisgaitz egitera.

Txakurrandi batekin esku biak bete karamelo; iru txikigaz bonbil bat putzura (limonada), eta enparaua barkillotarako. Gaur egungo neska-mutilloek daben jostaillurik etzegoan, eta jostaillurik ezean ezerikiko bekaitzik ez irrikatasunik be ez.

Emen dogu ba, erreal biren etekiña. Erriko jai nagusia amaitu arte zorun bete -betea.

Bete ederreko bazkaritik izaten dogun asebetea zalakoa izaten dan jakin daigun, gose zorrotzaren ateka ezagutu bear dogu, lenengo. Oñazerik izan eztauanak, miñik ezari eskerrik ez. Egarri gorria zer dan eztakienak, urari utikan. Oraingo umeak ba, neska-mutiko gazteak, jayoten diran une beretik guztia oparotsu, usu, yori dabe. Goserik eztabe izan. Makina bat edaki bakan be, danen aukeran. Belarrian mandauliak ikutu dautsala?. Iradu larrian osagillearengana. Opilgozorik berezienak gosaltzeko. Lotarako, jolasketarako eta ikastolarako, iru mueta ezbardin soin-jantzi.

Ugaritasun geiegiak ok-egin arazoten dautsie-ta, bizi-poza txepeldu bere, bai. Goseak eta ezak bizkortu, zurtu, zalekoitu.

Ugaritza andian jayo ta aziak, urritasunik izan eztaualako, pitxirik pitxienari be, ederrespenik ez.

Larra gorrian bizi giñanontzat, ostera, dana zan ona, begibetegarri, gozo, txeragarri, eder, zoramen. Erreal bi eskuan genduazanean, eun gameluren jabea aiñako andi giñan.

Nire umearoko Igorre-n kaletar giroan biziaz ziran gitxi batzuek, baserriari lanaren lanaz ateraten eutsen etekinetatik besteak.

Alor-lur txikiak, eroso biziteko txikiegiak; eta lurretik jaso ezin ebena salokietatik etxeratzeko esne ta arrautza, ollaskoen batzuk eta oillo zarren bat saldu bear izaten eben.

Oiturazko abia lagarik olloen batek idartean, edo-ta etxondoko aterpean, edo inguru-minguroko sasian aukeratzen ebanean, toki barria arrautzagintzarako, goizeko lanetatik etxekoandrearentzat beñen bat zera izatea zan: beraren ondo-ondoan artalea zabaldu eta, mokokatzen asten ziranean asten ziranean abi barria eukanari zapal buztanetik eldu, ezkerreko besapera jaso, eta eskibuko atz txikiaz tutua arakutu. Urrengo goiz arte lurrean itxiten eban, utsik ba-egoan, eta beterik izatean, ostera, amama aren begi txikiak zelatari, belarriak adi; olloaren kakarakadak, arrautz-saria eskatzen egiten dauzan karaka-makaren zai.

Jayegun andietan bazkari eta aparian, esne gozotua ta ugoloa ontzi baten ta batera egozten ziran, mai-azkenik bere-bizikoana izaten-da. Bera barik ezin eitekean ontzia burutu; eta izena, barriz, (ugolozko zukua, esne gozotua nastatua) etxe danetan da beti-ta-beti "arroz con leche" izaten zan.

Izen arrotz ori leenengoz entzun nebanetik, aunitz urte andi, orain ezkero, urrutian izango dira. Arrezkero be eztot entzun, ez berari legokion euskal-itz berezirik idazkietan urkitu.

5.– Txarria

Ezan izaten neguan etxerik, txarria ilgo ezebanik. Berarentzakoa baserritarrak, berak azi ta gizendu. Solo-sail txikiak ebazanak, maistarrak bat, eta txikitxua loditzea naikorik izaten eben. Ugari artoa jasoten ebanak, ostera, bi be bai iñoiz. Bigarrena baiña saltzeko, eskuarterako dirua lortu ta gauza ta gai barrien batzuekaz etxeko ezak ornitzeko.

Azi ta loditzerik non da zerekin ezeukanak, loditurikoa erosten eban, da il. Baserritar, kaletar zein erdi kaletar, andiagoa edo txikiagoa etxe danetan ilten eben.

Odolostetarako porru-kipulak ilaurreko gauean txikitu eta xeatzen ziran. Kipula-xeatze-lanak artan ziarduenai negar eginerazoten eutsien.

Eta zer egiten eben malko ta begiretako miña uxatzeko, eta biaramonean izango eben odoloste-jayari bizirik eutsiteko?. Bekokian, txapelpean kipularen azala erdi dindiliz sartu, eta dana kitutzen zan.

Kipulazalak gaitasunik ezeukan begiai negarra atertuarazoteko, siñismena ta fedea baiña alan ziralarik, gizonezkoak txapelpean da andrazkoak ulean orratzaz katiguturik egiten zan lana zan, esan daroadan negar-lana.

Ilik dagona bizira ekartea eziña yaku, bizia iltea, ostera, arazorik errezetarikoena. Edozeñek egin daikena.

Txarria ilteko, ba, artara, egokituak, ilten ekianak ibiltzen ziran aterik-ate eta goizean goiz, zorrotz andia ta kako andiagoa eskuan arturik ebezela,

Sukaldean goizean goiz urtean izaten dan surik gartsuena txipriztin-otsetan. Besoaurrekoak garbaldurik okondoraiño odola artu bear daun andrak. Paitar go-

zotik eta ogi bigunetik zurrut eta mauk dagie morroskoak…txarri gaixoa apaldu bage. Kortatxian gozez.

Eguna argiturik dago, ezta euririk. Aititeak, amak naiz edozein morroskok idea, galtsu edo beste errekiñen bat txarria erreko dan tokian gertatuko dau.

Kirrinka, kurrunka ta irrintzika txarria ilten ebenean, beti izaten zan mutil -koskorren bat atzealdean ilten egoanari buztanetik tiraka, etendura eginbaiñik.

Il, garretan erre, barrukiak atara ta eskegi. Amarretakoa gibelaz, odolosteak, buzkantzak eta estegu erako apari oparoa gauez.

Este baltzak otzituten ziranean txikien zoramena izaten zan. Izeko bateri oneik, bestearentzat orreik…, odolosteak etxerik etxe banandu eta, bi-iru erral zakeleratu. A zori ona izaten genduana! Urtearen buruan bigarrenez bere aberatz.

6.– Mixinoyak

Urtero-urtero ta erri danetan mixiñoi-festa ospatzen zan. Iñor ez zan etxean gelditzen. Andrazko ta gizonezko, ezkonduak baltzez jantzirik etozan. Batzuek eperperañoko burrustxoa ekarren, eta besteak ostera berrogei urte aintzina ezkontzerako egiñeko jake ta prakak, etxean eukezan soñekorik onenak, garbi ta txukunik, danak.

Ainbeste urte lenagotik egiñak izan ziran jake ta prakak areitako askorik labur, mirrizturik eta tokien batzuk gorriztaturik eukiezan; baiña jantzirik onenak izaten ziran da, urtean bein edo bider eliz-jai andietan jantziten ziranak.

Korta, ganbara ta etxeinguruko lanak zolirik egiten ebezan. Arratsaldez, irurak aldera, alde batera naiz besterantz begi ta ikusmena luzatu, bidetxior eta landak zearretan beera soñeko baltzez elizarako bideetan, FEDE siñismenez biotza betean.

Itzaldiak egitera geyen baten bi, iñoiz iru be, bai. Bizargeak baiño bizardunak maizago. Buruñurdunak okotzetik zilborrerañoko bizar andidunak izaten ziran.

Elizkizuna asieran abesti tamaltsu goibelgarriz agurtu ondoren, bizardun morroskoak zeruetako eztiaz gozaten eban ona zan dana, eta txarrera joten ebanean barriz, inpernuetako sakoneko su kiskalaz azur-muiñek dardaratzen euskuzan. Lenengoaren itz, atsotitz eta alegiak otzanak izaten ziran ezkero, lokuluzka egiteko beren-begiak, batzuentzako.

Eta bigarrena, bigarrena zelakoa izaten ete-zan? Eperdian piper-miñaz, etorrala esan eikian, bigarrena. Eliz-barrena inpernua bera zan baiño bildurgarriagoa agertzen euskun. Gizon, ume, gaztedi; utzegite, oben eta orbanik zipriztineña, danentzako izaten eban illinti goria, amaika margo bildugarrizko garraren irakiña: Pedro Botero-ren maskillo izugarria. Amabi ertzeko sarda erdoitua, sayetzalde batetik besterañoko luzea. Obendunaren zintzurrean sorbatz zorrotzezko igitai eta, lepoan ozkadun ayotz kupidagea.

Elizako notintza andi arengandik goratz yoian arnas-lurruna ipernutik etorren ke madarikatua zala siñistu arazoten euskun, bizardi sotil ederdun lekaide ark. Gurutz irudian besoak zabaldu, zeruruntz jaso, bularra ikubilaz jo eta beari oñakaz saka-egitean, elizaren ormatzar sendoak ia-ia arrakaldu egiten ziran.

Aste goibeltsu eta gerozko ainbat egunetan itzaiñek be ezeben bear aiña indar ea ausarpenik izaten, idiai arrayoa! esateko bere. Aste otoiztsua, aitarentsua. Garbitokiko arimek, emengo senideen otoiz eta arrentzaen zai egozen, ziur asko, goruntz ibiliz zeruetako ateurreraiño irixteko, aste txit egoki ortarako izanik.

Mixio-astean ba, biotzean kokaturik eta itsaririk egozan oben areik arrakaldu eta lokatu egiten ziran. Arbien loraldia izaten zan eta urtean bein baiño aitortzen ez zana be, gazte ta morroskoa izan arren, onik eta apalik urreratzen zan, aitortokira.

Urtearen barruan bein edo batengo aitortzari, "aritoa, aritoa, entregetea" esaten geuntzan. Urtetik urterañoko baiño labur eta motzagoa izatean barriz; "Artxoa", "Artxoa entregetea". Geien batean ARITODUN ziranak, andi ta adartsu ziralako edo, lekaideakaz bakeztuten ziran, erriko abadeaz lotsa izaten ziran da. Atso eta agurak arratsaldez aitortzen ziran, gaztedi biurria ta gizon elduagoak arratsbera berandutuan, eguna illuntzean.

Jaunartzea biaramon goizez, igandez. Elizkizuna amaiturik geroz paitar eta galletaz barausi eta, txoria bera baiño bere ariñago biotzondoa bareturik, urte dana zearko oben-kezkak aitortokian ustu izanaren goraiñoko poz-girozko betean.

ASTE GUREN:

Aste au txantxatan ta jolasketan ibiltokietan ez zan izaten. Eguenguren, Barikuguren eta berrogeikaro (garizuma) zearko igandetan benetasun bereziena nabaitzen zan, erritarren artean.

Deunaren irudiak lepoan arturik (ia gizonezko bat) bein beko enparantzara, eta beste bein lekaimeen etxeraño eliz-ingurua deituriko ibillaldia egiten zan. Gurutz andi ta astuna iru morroskok ibilten eben.

Elizatik urrun, otziturik, txepeldurik gabiltz. Aldi aretan bai-egoan siñimen eta federik eta, dirua emoten eben irudi areik lepoko an erabilte arren.

Eguen Guren itzal andiko eguna, Bariku Guren goibela ta isiltsua.

Andrazkoek elizkisuna amaiturik, zoli-zolizorik etxerako bidean jartzen ziran, gizonezkoak bere, ugari. Etxera itzultzen ez ziranak tabernatan alkartzen ziran baiña, ardauz betekadarik egiteko ez. Kartajokoa oben astuna izaten zan, ez jakon iñori bururatzen kartetan jokatzerik. Solasean emoten ebezen elizatik gerozko orduak, illunaz batean danak etxera joateko.

7.– AGATE DEUNA

«Zezellearen illean lauan, usua dogu munduan, Deun Agatena kantatuteko, bakoitzak bere moduan».

«Uzaba jauna damotzut pozez, atsegiñezko gau ona, zeure alabai jakin eragin, biar dala Agate Deuna».

Begipean dozuzan goiko bi bertsoz asten zan eskea, naiz-ta beste batzuek, beste era ta tayuz asten ba-eben be.

Bertzozko goralmen errukilariak, Agate Deunari zuzenduak, Andrazko ezkongairik izaten zan etxetan maitasunezko bertso kirikilariak, eta ilbarriaekiko atzekabez ziranean "Aita Gure" bat edo bi.

Dirutan gitxi batzen zan: arrautz, lukainka ta beste txarriki ugari. Abestalde bakoitxak berarentzat izaten, eban batzen ebana, eta jaya gerozko lenen edo bigarren igandez bate ederre-bazkaria, edo-ta aparia.

Agate Deunatzaz beste oitura bat be, emen: Urteazearko eberdietan joale, kanpai nagusiaz amabiak jo; larunbatetan da jaiaurreko egunetan al besteko dilin-dalandak; illeta eta sukanpak, arrikanpai, argikanpai, aimari-ezkilla jo eta, eliza garbitu. Meza ospetzean da bateoetan abadeari lagundu eta zainbat eginkizunen arduradun sakristaua izaten zan.

Sakristauak be, ba, oiturazko eskubidea eban urtean zearko elizlanen ordain -sari, Agate Deunez, atez-ateko eskea egitea.

Eskeibiltean, berak, eskurik, ezeban artzen. Monagillogintzakoak, au da elizkisun andietan, illatetan da abar laguntzalle izaten ziran mutiko koskorrak izaten ziran eskeaz arduraturik, eskean be egiten ebenak.

Mutiko eske-batzallek erriko alde batetik batzuk, besteak bestetik, goizerik asten ziran, eskean. Otzara andia eskuan ebela bikoz ebiltzen.

Egunetan da illabeteetan sakristauaren etxean txarririk il ezarren, ezan gosearen bildurik izaten: arrautz eta txarriki; gari; indaba, intxaur… Lurreko ziturik ezeukanak diruz ordaintzen ekian sakrisauatzazko oiturazko zorra.

Eskiljoteari buruz zerbait geiago

Ildakoa umetxoa izatean txan-txin zolidun ezkilotsez adiarazoten yakon erriari. Umetxua aitatu daroat. Baiña egia esan dagidan: "Aingerua" izaten zan aur zenduatzaz erriaren aotik urtetan zan izena. Eriotz-ezkil zoliaren otsa entzutean ba: "angeru-kanpaia da", "aingeruen bat" ilda esaten genduan.

Aingerua ezanarentzat, andiagoarentzat kanpai-ots astunagoak eta neketsuagoak izaten ziran, kanpai batek din errukitsua, besteak deun itzala, din-daunezko kanpai-otsak. Andrazkoa edo gizonezkoa zan jakin arazoteko deunbada biz, edota iruz amaitzen zan joaldia, Etxetik urtetako orduan asten ziran, eta il-elizkizunak goizez izaten ziran. Orain beribillez egiten dana, orduan lepoz egiten zan.

Kanpaijoterik andiena Agate Deunari eskeintzen yakona izaten zan. Illunabarreko orduetan, ordubete ta geiago be bai batzuetan, kanpai danak batean txintxinlin-txantxanlan, daun da dan morroskoen beroz sakaturik ziarduen.

8.– ILLETA

Auzoko lau gizonek eroaten eben il zana elizaraño eta elizkizunaren geroz, illarrira.

Illeta-elizkizuna iru galga, iru mailla ezbardiñekoz izaten ziran; 3gn, 2gn eta leenengoa. Irugarren maillakoa, txiroena abade batek lagundurik izaten zan. Bigarrena bi-itu ebazan eta. Lenengoak etxaguntza zabaleko izatean erriko, au, errietakoek bere bai, deia izaten eben illetara etorri eitezan. Eta illaren urbil, Pater noster eta kitolis pekatariska, dominus nostrum, susun korda, pekara mundis eta abar, ez illak eta ez biziek tutik ulertzen ezeben milla erdel-itz birresaten erogoien etxaguntza lur emonkorren batekoa illa izaten zanean.

E

Elizarakoan ogidun otzaratxoa buruan jarririk, abadearentzat ogiaz, illaren aurretik, andrazkoa izaten zan.

Aintzin aldien baten, ezagutzen ez neban garaien batean eliz barruan, eta elizari loturik ziran aterpean illobiratzen ebezen illoztuek. Geroengo batean illerriek egin, illotzek eortzeko.

Elizetan baiña, aintzin zarreko oiturari jarraituz, sendi bakoitzak berari egokion arloa, sailtxoa eukan; eta senide edo etxekoen il yakena arlo aretan lurperaturik baegon lez jarraitzen eben igande ta jai etxekoen batek, belaunez belaun, Jaungoikoak daki, zenbait urtetan.

Esan daroadan illobia izeneko arloa oyal zuriaz estaldu eta, oyalaren ganean argizaiolak musturretik garra dagie. Udaldiko egun kizkaletan ainbeste argizai-garretan egotea, ezan izaten giro egokia. Argizaiol, kandela ta besterik be izaten zan izaratxo zuri-zuriaren ganean: dirua, txintxin moteleko txanponak, bost eta amar zentimoko aleak.

Iru-lau, bost-sei, zazpi-zortzi diru ale jartzen ebezen zapi aren ganean illobiaren arduradunek eta, mezaratzen ziran bestien batzuk be emoten ebazan txanponen batzuek il zanaren alde abadeak otoiegin zagian.

Abade bat mezan egoan tartean, beste bat, bi naiz iru illobiaren ondora etozan isopo edo zipriztikai esku batean da bestean buruiña ekarrela; eta dirua emoten eutsoen eskura, zenbait zan zenbaturik buruiñan-eta, zenbait ale ainbat Aita gure otoitzen ebezen. Otoi edo Aita gure bakoitzeko isopoaregaz gurutz bat egiten eben, eta Aita gure bakoitza aida baten egin bere.

9.– UGUZTA, BATEOA

Ume barrien bat jayoten zanean, erri-ertz goreneko auzotegi naiz beste bazter bateko mutil-koskorrek jayotzaren barri danok izaten genduan, jayoten zan lekuan jayoten zala, jayotzaz baño bateoatzaz egunak eta orduak lenagotik arduratzen giñan.

Arratsaldez izaten ziran, uguztatzeak, baiña eskola-orduetan ala eskola-orduetatik at? Neska-mutikoen buruaustea, egoneziña, kezka, urduri, a izaten zan.

Kristautzarako egitekoak amaitu ondoren elizatik urtetzen ziranerako, neska-mutiko-koskorrak zai gengozan, aitabitzik arrapalan jaurtiko ebazan gozo zuri biribilen begira. Lenengo eskukada atzerantz, bigarrena aurrerantz, ala zein aldetarantz izango zan ezgenkiala, abarrik abar dabillen txepetxa baiño be, zurrago genbiltzazan.

Luzetuten eban ba besoa ta eskua, eta gu ollo gosetuak bagintzazan bat bestearen ganetik zeiñek geiago eskuratu, ezti-zuloan erlea baño zoruntsuago. Ordu bateren buruan jai atsegiña izaten genduan.

10.– ELIZAKOAK

Gaixoen bat azkenatsetan zanean, esku batean argia ta bestean txiliñaz elizmutilla aurretik eta aren atzetik abadea gure Jaunagaz gaixoaren etxera.

Txilintxuak txilin, txiklin tilín eta abadeak otoi, odei baltzez Anboto baiño, goibelago ta beneago yoiazan biak atsanka egoanarengana. Eta txilin-otsa entzutean andra naiz gizon, zar eta gazte danak belaunbikotzen ziran egozan tokian egozala, eta egiten ebana egiteari itxirik. A bai ba-zan Jaungoikoarekiko ondo ta lotza eta ilzorian zanarenganako kupira ta errukia.

11.– SAN JOAN-SUAK

«San Juan bagillean, denpora ederrean, sapoak eta sugeak erre, artoak eta gariek gorde».

San Joan-eguna bai-etorrela somatzean, illabete lenagotik asten giñan sasi, ota, abar igar eta sua egiteko gai zan dana ta guztiak pilloak auzotegietan egiten.

Zeñek geiago, zeñek sugarri meta andiago egin emoten genduzan egunak eta egunak al genduan lekuetatik al genduan eragarra egiteko ona zan guztiak metagintzan.

Auztegietako zeingeiagokak, txapelketa bat irudian, eta noiz edo bein besteen metak ikus-mikuz ibilten giñan zalatari gisa, Urbiritxagarrak ia beti ta beti txapeldun, nagusituten ziran.

Norberena baiño andiagoa zala auzokoen batena ikusirik, atxur, kodaña ta igitai zarrak eskuan arturik barrien barri giñoiazen basondo ta baserrietako erregai geiagoren billa.

Beste talde batekoen batzuek ekarriala baiño geiagorik gertuta, ebagirik izten ebanean geroago ekarri asmotan, alkarri ostu eta gero izaten ziran izatekoak: alkarri arrika, lapur deika, belarrondokoak…., eta dana kitutzen zan.

12.– SAÑOA

Eguna igesirik gauabarra etortean da, begiak alde batera naiz besteruntz luzatu, su ibiltariek besterik ezan ikusten, solomun da bazter danetan. Gari-lastozko eskutan izaten ziran, eta su-ta-gar erionean «zuzia» eben izena.

Zuzia eskuan da, San "Joan Bagillean" abestuz, solo ta baratzai inguruka mutilkoskorrak ebiltzazan gein batez, mutikorik ezegoanean baña, etxaguntzetako solo, landa ta alorrak be, ezagutzen eben zuzien gar eta berorik. Seme gazterik ezba-egoan, aita arduratzen zan, eta aitak ezin ba-eban amatxo zarra izaten zan zuzi eta eginkizunaren jabe. Eta ke ta garrez zuzia eskuan, gora beraka besoa: "San Joan bagillean…sapoak eta sugeak… artoak eta gariak…, solo-ertzetan gora ta bera zolirik ibilten zan, mun batetik bestera, sarritan, igaro eziñik be bai; ortzik ez-eta ogi-koskorr gogorra aoan, iruntsi gurarik eta mamurtu eziñik, San joan da zuzi ta soñoarekiko fede ta siñismenez gañezka egiñik.

E

Soloz solo ebiltzazenak noiz etxeratuko ete-ziran begira, urduriturik auzotegiko ume, zar, danak Sanjoan-sua edo saño nagusia zai ta egarriz.

Noiz edo noiz biztuten eben ba, auzotegiko sutzarra eta andi ta indartsu zan artean "San Joan de la Portaletaña", edo zana zalako abestu; eta azken sugarrikondarrak ia errerik ziranean da sua indargetu, txingartzaeren alde batetik bestera poz-jauzika, ikoka, espartiñak eta betulez erre arte saltoka jostatzen gintzazan.

Bigaramon goizean suaren auts, illinti ta txingar ondakiñak ikusirik, auzotegietako nezka-mutiko-koskor eta andiagoak zirenak be, alkarturik asten ziran, arrokeriz eta erronkatsu guzur esate ta amaika auek lako: Gure garrak telleturañokoak. Gureak barriz, areitzaren gorengo orriak, be, kiskali. Gurean ostera, ordu t-erdigarrenean be, gar bizi-bizia. Gurean ziran erretakoak erreta be, illintiak gaur goizean be, su ta ketan.

Egunetako lan, izerdi, sasi-ostute e.a., ordu biren buruan suak jaten ebazan, ezabatuten euskuzan. Gure ondorengo balaunaldi barriek baiño zuruntsuago gintzazan, ziur askorik.

13.– AZOKA, ZEIA

Abelgorri eta txarri-azoka au larubatero ospatzen zan: Igorre-n, Areatza-n, Artea-n, Arantzazu-n. Larunbata batean tokin batean, urrengoa bestean, eta bost larunbateko illabeteetan Arantzatzu-n bi.

Baserritarren zaletasuna azokarako andia izanik, batzuek erdijai eta bestetzuek jai osoa egiten eben. Artarako etxeinguruko lanak zolirik egin lenengo, bizarra moztu, baba-lapikotik lurrezko azpil batean bazkaldu, amaikak aldera; oin-mantar zuriak, etxean bei-narruz egiñekoz abarkaz jantzi, eta belaun gañerañoko burrus baltza be jantzirik, an ioiazen zeia izaten zan errira ollar gaztea baiño txairoago, praka barriakaz mutikoa baiño pozago.

Bei, txarri, txalen bat salgai eukanak berak eroaten eban sal-tokira. Argi ta bedartza andidunak ostera bei zar argala, zuldarrez beterik egoan basabei errape tximela, eperzorrotza, uletsua erosi gura; jan-betekadak emon, loditu, saldu…diru barria kaxan sartzeko.

Zeira azaltzen ziran abere danak salgai eziran izaten. Ipuzturri onaren jabe zana, arrozko samar joaten zan idi bikotea erakustera. Bigantxa eder eta esne-beien nagusiari be laket yakon, ukulluko aziendarik onenagaz feriaratzera. Eta gure aiton baserritarrek eztitan emoten ebezen azoka-orduak beiari begiraka, edo-ta zeinbat alditan eta ainbat lekutatik narrutik eldurik, errapean igurtziak egiñik, atzetik aurrera ta aurretik atzera arretatsu begiratu eta soegiten eutsaelarik.

14.– SALEROSKETA



Saltzalleak, aberearen jabeak goi-goian, jartzen eban salneurria, eroslearen eskeintza beetik asirik eta goruntz igoten eban neurrian, lenengo goiko neurria beera etorren maillaka maillaka; baiña eskaturiko ta agindutakoa alkarrengana urreratzen

ziranarren, ezkontzak beti eziran izaten, bost-amar ogerlekoren arazo ebatzieziñagaiti. Bat ezin zirala etorri ikusi eta entzunik, aldamenan izaten ziran lagunak tartekotuten ziran, eskua-artu, eta salerosketa burutzen bitarteko egiñez lagundu.

Bitarteko batek jaberi aulan: Jatsi yok bost ogerleko, bost ogerleko gaitik belea baltzago eztok izango-ta.

Erosleari beste batek: Iru ogerlekoren goraberagaitik, gu ilda gero be zer eyo izango yuek errotak, bai, eta bei barik ez-adi etxeratu.

Irugarren eta laugarren bat be tartekotuten ziran, albokoaren begira ta egarriz.

"Albokea", batzuetan, saltzen ebanak, bere bizkar artzen eban; bestetzuetan eroslearen lepotik izaten zan.

Egungo gaztediak "albokea" egitea, ete-daki zer dan?

San Antonio-n beia zaindu egian, anaitasunik andienaz eta alkartasun txeratsuenean lurrezko ontzitxo bete ardau danen artean edatea izaten zan, "alboka egitea". Albokarik ezegitean salerosketa koiperik eta gatzik bageko saldea lakoa izaten zan: ez goza, ez gazi, ez gaza.

Azoka-egunak larunbatak izaten zirala esanik dago.

Lau erritan ospatzen ziran, txandaka: aldiz Igorre-n, aldiz Artea-n, aldiz Areatza-n eta bost larunbateko illabeteetan Arantzazu-n bi, bat besteen ondoren.

Baserritarren egun andia zendu zan, larunbata. Lurrik ezta lantzen. Gizonak besoz, atxur eta izerdiz gari-arto-lur biurturiko baso ta oyan andiak lerdoiz, otadi, elordi eta sasiz jantzi dira. Lur-arlo txikiak gorritzen dauz gizonak, eta gorritu eta landuten dauan salla tramakuluen laguntzaz. Lugiña, beraz, ezta ipuzturri bearrez, eta ipuzturririk bear ezean, buztargillerik be, ez.

Zail gertatzen yaku ikustea, solo ta alorretan, bei ta ipuzturri goizean goiz surtzilloetatik lurrunez kea ba-litzan.

E

15.– ERROTAK

Urkitzu-n Urbiritxaga-n, Santa Lutzi-n eta Olabarri-n. Batzuek lurrera eroririk, besteen batzuek oraindiño sutik, ibilte nagizko arritzarrak ixil-ixilik, alerik ezean geldirik.

Non ete-dira astotxu xiki epoak, bolurako bidea buruz ikasiak?. Non doguz Areatza- tik eguneroko ogiaz etorten ziran zaldiak, bidertzeko zein etxetan gel eta itxoroten ekienak?

Solo-munetatik zear argizaiolak otzaratxoan, soñeko baltzez eta burua estalkiz, jai ta igandez meza nagusiratzen ziran etxekoandre zoli, euskeraren mintegi, abi bero, abe sendo, arroin gogor iraunpentsuak? Aida Gorri, apala geldi; aurt…gorago.., oo ots egiten eben aitita eta etxemutillak?.

Belaunaldi osoak eta euzko biziera berexia ezabatu ziran, beti-betirako, Aitor-en Euskal Erri zar ontatik. Layariak, iraebaketak, buztargille, gurdi-irrintzi, etxerik etxe ibilten ziran andra jostunak; eskale, esneketari, labesuak, burdinarotzak, errietako enparatzetan izaten ziran dantzak, oitura berezizko ezkontzak; go-joateak ta eulorriak. Mariaren Alaben eta Luistarren Alkarteak, kristau ikasbideari buruz urtean beingo azterketa eta txartela artzea, edo-ta ezartzea. Atez ate ebilzan arrainsaltzalle, «sardina fresko-freskua» esanez. Galiziar lapikobarritzalle ta aterkin ontzale eta afanlondoko agurtza-otoia. Gasteiz-era joan itzuliak oñez egiteak, etxondoetako irapilloak; lorbideak iratareako ondo, baso tartetako bidetxiorretatik ujuju eta arrentzaz zantzo ta irrintzizko alaitasun loratsuan Urkiola´ra ostera egitealde eta a.a.

Igorrebaso, Basauntz-ako eta Santa Luzialdeko astoak.

Santa Luzitik erbarrenera jasten ziran astoak, bizkarrean ekarren esnea galgatzeko otzarak arriz beteturik, Igorrebasokoak baiño andiagoak ziran, askozaz bere.

Igorrebaso-koak astean bein erbarrenduten ziran, batez be errotara, garia ta arto-zorrak ekarrela. Txikiak izaten ziran, da negu ta uda beti ule andiz jantziak. Gizonaren garriz goragokoak eziran izaten.

16.– JOSTAKETAK

Txirikil, kastor, gartza.

Lau-bost bat atzondo luzez, orkoroa lakoa lodiz eta musturrak bi zorrozturik, txirikillea olakoa zan.

Berari egokion makillatxoa ukondo bat edo geitxoago luze, txirikilla baiño gizentxoagoa.

Makillaren musturragaz "O" andi bat egiten genduan lurrean, ertz barruan bat jartzen giñan. Esku ezkerrean geunkan txirikilla eskuman geukan makillagaz jo eskuan geunkalari, eta albaitik urrunen jaurtitzea izaten zan, joko-asiera.

Txirikilla joten ebana ez, beste jokolagunak aurrea betean eta edaturik izaten giñan txirikilla non jausiko zan begira; eta airean etorrian lurra jo baño len eskuz, edo-ta burruxto zein jakeaz altzo antzerako bat egiñik lurreratu baiño len atxilotu ezkero, asiera egin ebanak galdu eta, txirikilladuna izaten zan, barrienbarri jokoa asiko ebana.

Iñork artu ez-eta, lurreratzen zan tokian lurreratzen zalarik, makilladuna ara yoanik joten eban mustur zorrotzean, jagi arazo, eta aidean egoanean barriro be jo-eta "O"ren erdiko kulatzatik urrutiratzen aleginduko zan. Lurrean iru biderrez jo ekian, aidean al eban oiñetan.

Jokoa paluz neurtzen genduan-eta, aulan izaten zan. Bosteun palutara izatean, txandaren nagusiak, txirikilla eroan eban toki aretatik "O"aren erdiko kulatzeraño-ko bidea, luzera begiz eta arretatsu neurtu ondoren 100, 150, 300…palu iñoian. Jokoan ziran lagunek ontzat artzen eben.

Alan izanik, ba, bera izaten zan txirikilla jo eta jaurtiko ebana. Palu-neurrian utsegiñarte, edo aldean joyala beste batek artu arte, jaurtiz urten zan barrutira beragain egotzirik "barru" egin eutzalako edo-ta beste utsen bategaitik txanda galdu arte ekingo eutsana 500… 200… 400…, onen beste "palutara" izaten zan, eta ebatzitako "paluak" jadetziten ebazan lenengoa, irabazlea.

Txirikilla-aldian etorten zanean, aizkoratxoa eskuan arturik beresi ta sasiarteak arretatsu arakatzen genduzan, txirikilla-paluen billaka. Onaren, politaren eta egokienaren billa emoten genduzan orduak. Eskolara bere, liburuak, idazkiak baliran eroaten genduzan, laguntartean erakutsi eta, esnebeiari baserritarrak errapera so-egiten dautsan lez begiratu, ondo bere ondo ikustatu. Ondoko lagunarena obea edo politagoa izaten, aizkorea eskuan arturik barrien barriz beresira giñoyazen obeagoaren billa.

Txirikillaren izena eta jokatzea noraño edatua izan zan eztakian arren, lanen bat errez egitekoa izatean; «txirikillan egingo dogu, txirikillan etxe ori egin dabe, bidea, goldatu….». Neke barik eta errez egiteko lanak diranean, beraz "txirikillarin" esaten dogu, "aisa egin", giputzak esaten daben lez.

17.– KASTORRAN JOKATZEA

Kastorrean jokatu, kastorrean egin, kastorra emen da, an eta arantzago, intxaurrrekin jokatsen genduan jostaketa izaten zan.

KASTOR izena. Non da noiz sortua, eta euskalduna dan bere, jakin ezarren, noraño zabaldurik eta edaturik egoan eztakitanarren, intxaurgaraia eltzen zanean asten genduan, intxaurrak ondu baño len, ezerik egozala.

Len da orain be, intxaurrak, oskol bi izaten dauz; mamiaren estalki gogorra eta, gogorraren ganean, biguna.

Ganerengoa arrakaldu eta zabaldu, iriki egiten da intxaurra ondutera, eltzera datorranean; onduan, bada, alea berez dator lurrera, garbi-garbirik.

Aleak bein osotzen ziranean, olloa zepelatzari begira legez izaten gintzazan, arriek eskuan eta gora begiraka, eratsileian.

Bein atara iristean, neketsua izaten zan arrakaldu zeitekeazan arte begiraka ta so itxaron bearra, eta egon ziran lez egoten zirala, arri-jaurtika erasten genduzan.

Intxaurrak kastorrerako garbiak izan bear-eta, lenengo eginbearra zera izaten zan: arri latzen kontra igurtziaren igurtziz ganerengo narrua jan eta, oskol gogorra garbirik agiri arte, igurtzikari ekin.

Azal ezeak atzamar eta eskuetan izten euskun zikin-margo garbigaitzak, azken-aleak arrakaldu eta lurrera jausi arteño irauten euskun. Loi kendugaitzaren izena, "orbana" zan.

Kastor-jokoa zer zanatzaza. Iru marra lurrean da lenengo marran jokolari bakoitzak 2, 3, 5… intxar ipintzen ebazan. Bigarrena, erdikoa bat, alerik pitiena ta bere izena "KATXIN".

Intxaurrak jarririk egozan leku artatik 4, 5, 7... urrats urrunetik jaurtiten genduan intxaurrik andiena, batek bestearen atzean txanda artuz.

Jaurti, jo eta katxinaren atzekalderaño bialtzen zan intxaurra irabazirik egoan. Eta nik, ik, ak, jaurtika ekiten geuntsan. Bein bat, bein bi, bein bat be ez, irabazi edo galdu, lenengo lerroan egozanak katxina egoan marran PASA eginazo arte.

Garaipenik andiena katxinetik letorkigun. Txiki pitiena, katxinak atzean eukan marran atzekalderatu ezkero, a egitea lortzen ebanarentzat izaten ziran, jokoan irauten eben ale ondarrak.

Eukazan danak galtzen ebazanari, joko mueta danetan-ki "puztu" egin yoguk, "kipuztu" nabe, "kipuztu" gaitue iñotsegun, "kipuzturik" nago, "kipuzturik" itxi nozue esaten genduan.

Eta KIPUTZA aipatu dodalarik, kiputz itzarekiko azalpenen bat edo beste.

Jokaketetan ezezik, otzez kikildurik izatean be, koldar-aldietan bardin, samar -erruz oguztatzen genduan itza zan, Arratia-n beñikbein, KIPUTZA. Baita be, GIPUTZA.

Adibide lez ta adirazgarri, atzamarrarrak doguz lekuko. Otsak gogor ikututzen gaituenean, da atz-muturrak alkarrenganatu ezin, otzaren otzez "kipuzturik" dotaz eskuak "kipuzturik" nago, "kipuzturik" zagoze….eta zer edo zer egiterakoan koldartzen zan laguna be, KIPUTZA izaten zan.

Noizkoa ta nondik etorria dan, indarri eza ta biotzberatasunaren adierazpen dan KIPUTZ berba au, eztakit.

Giputz anaien belarrietan abegi onik izango leukeanik be, ezin esan neike; baña abegi on, zein aurrera gaizto, kopeta txordotu naiz betartea alaitu, berbatik ortzera aoskatzen dogun berba da, Arratian.

18.– GARTZA

Sail onetara dakardan josta-muetaren izena batzuetan Gartza, bestetzuetan Garza, be, ba-zan. Eta entzunik dot bein da biderrez bilbotarrai, beraiek, eurak be jokatzen ebela. Gurea bakarrik ez zan, beraz.

Arritxu zapal bat eta, arrasta edo posporo kutxatillen azal biak naikorik genduzan, gartzan egiteko.

Laukia lurrean marrastu, laukiaren erdian onenbeste bana, azal bat bestearen ganean ipiñi, neurri artu batean marra egin eta andik arria jaurti laukira, kutxatil -azalak ataratzera.

Arriaren joagaz zenbait atera lautitik, areik irabazi

Jaurtitzen genduan arria gelditzen zan tokian gelditzen zala, berea jaurtin arte azken zanak ezin artu geinkean; eta jasoten bagenduan, gurutz bat eginbearrra izaten genduan, egoan lekuan lukikeririk ez egiteko bigarrenezko jaurtitea, ba, arri zapala geldirik egoan leku bertatik egin bear zan da. Egin eta jarrai, bat bestearen atze, laukian zirenak amaiu arte.

Kutxatillen azalen izenak batarena TXOTA, bestearena SANTO bardiñak etzielako.

E

Gartza-garaian, olloa landan zomorro billa ibilten dan lez ibilten gintzazan gu be: arduratsurik, kutxa utsituen bat non aurkiturk.

Jokoarrien bat, iñoiz, bi be bai, beti genduan praketako sakelean artarako gogorra be, beti gerturik edozelako ordu ta bazterretan jostatzeko.

TXOTA ta SANTO, SANTO ta TXOTA lapiko zar eta txoletetan gerdetan genduazan, ganbarako tellape ta ormazulotan aldi barriaren begira.

Ainbeste arri-takada arturiko TXOTA-SANTOrik asko, asko bere asko, zapuzturik eta baltziturik izaten ziranaren, urre balitzan gordetan genduzan.

Esan daroadan lez, arri zapalak izaten ziran jaurti, jo, atera… gartza-jokorako; baiña arriaren ordezko burdin egokirik eukanak, bakaldunkumea zaldiganean bezain andia eta zoruntsuagoa izaten zan. Alako burdiñaren begira gengozan beti, mokaua jaten diardun nagusiari bekaitzez adi izaten dan txakur gosetia lez.

19.– KINKIN

Orain arteko jokoak aiña sustraiturik ezegoanarren, ordu ederrik emoten genduan onetan be. Geroago besteak beste sustraiturik ezegoala diñot, eta ezaren zioa emen: Kinkin-lurra, joko-lur berenbegikoa izateko lur biguna izanbear, taketa sartuko ba-genduan. Elizpean, onen inguru-minguruan, feri-lekuan, plazan edo beko enparantzan, San Antonio´ren aterpean, ez genduan aukerako leku egokirik.

Lur-mamia bear zan, bustinkia ba-san obe; idor ba-zegoan uraz busti, urik ez´bazan txixa, taketa ondo sartu al izateko.

Arra biko luzeak ziran taketak, mustur bat zorrotz burdin-taketen tajuzko izaten ziran.

Jokoa zertan zan: Taketa egotzi, al zanik sakonen sartu. Bigarren izaten zanak be, bardin; baiña bide batez tente egoana jo, etza arazi ta berea zutik jarri.

Zeinbat biderrez izaten ziran 3, 4, 5...taket, bat bestearen zayetsean, eta azken zanak berea jaurti eta bustiñean sarturik ipintean, lenengo zanak bereari eldu, atera eta tsas barrien-barri lengo tokira zutik egoazenen gañera, eta bidenabar bat edo besteri etzaun arazorik.

Lur egokia aukeratu; busti, jaurti, atera, jarrai eta ekin, a bere jostabidea zan; KINKIN.

20.– TRONPA

Emen aldamenean agiri dan irudia lakoa zan TRONPA izeneko jostagaillua.

Argitasunez esan ezin dotan zera da; salokietan salgai ipineten ebazenean izaten zan tronpa-denpora, edo tronpan ikusten ginduezanean salgai jartzen ebazan. Zan moduen zala, tronpa-denpora.

Tronpa zarra, joan zan urtekoa galdu barik eukenak izaten ziran lenengo asten ziranak, aldiari josketa barriztua, egun gitxi batzuen buruan, danak ez, baiña geientsuenak bai, tronparen egarriaz gintzazan.

Eskolatik berako bidean aurrez Ageda eta Josepa-ren ESTANKOA eritxon saletxea, etxe zarra, illuna, danateriko salgaiez betea; oñetako, taloburdin, argizai,

jostorratz, lurrezko pipak; arkatz, idazkortz, ingurrazti, urolo, tillista, gozoki, kebedar abar eta abar eta milla abar….

Tallista zorroaren gañean katarra lotan, intzigari zorroan, aletartean, katuemea kumeak azten, goiazpian salgaiak dindiliz erosleen burua joteraiño; erakusmaia, mostradora alde batetik bestera erosteko gaitasunik ez euken diruz, erdi-erditik untzez jositako diru "faltsos" beterik, alakoxea zan Ageda eta Josepa-ren estankoa.

Geu giñan baiña nagusiagoak bialdurik zeinbat biderrez izan ete giñan "propina ta pitantzaren" begira. Txakurtxiki bat izatean eta idazteko arkatza bear, bera baiño txikiagoa bialtzen eban estankora arkatza, "propina ta pintantzaren" billa. "Propinarik eta pitantzarik" ez euskun iñoiz emon, egonaldik egiñarazoteko luzeroan euki bai, eta iñoiz belarrondokoen bat be bai.

TRONPA ta berari egokion lokarria kana bat kordel erosteko iru txiki, iru txakurtxiki naikorik genduzan. Gaur egun iru txiki uzkeri utsa, orduan baiño dirutsa andia. Zer egin geinkean? Al ebanak erosi, ezin eikeanak arrausi. Oraingoz baiña erosi ta arrausi itxi daiguzan beste baterako.

Aizkora txikia esku batean eta zur zati bat bestean, an izaten gintzazan mutil -koskorrak, etxaurreko mokor tartean, edo kantoi gabeko leorpean geure tropagintzari loturik, etxegillea etxegintzan baño arretatsuago.

Zurari emendik txiki ta andik txaka, goitik atala kendu, begiraturik begiz neurtu…, kendu egiok emendik….burualdetik be bai piti bat eta zorroztu egiok musturra.

- Mekatxis lamar! Ertzeko balio txikiegia dok-eta.
- Ea, beste egur zati bat. Zuok be, untze bat topeizue
- I, Patxi, zuen aitek etxekok formoirik?
- Bai, gure aitek bai, atzo be ibili yoan-da, kortatxia egiten.
- Ekarrik, ba
- Bai, da gero, yakingo ba-llok yakin?
- Gero diñok! Tronpea egin yeiguan lenen bai, ta gero... otz eztana bero.

Zur-zati bat, beste bat, emendik kenduyak eta ortik ez.

Lengoa txikiegia egin dok-eta, oraingo au ia obeto egiten ba-yoguk. Egundo santa, tronpa bat ezkeinduan egin, dantzarako gai zanik.

Egin, ez; egin ezkenduan egin, baña tronpa-egunetan izaten genduari ordu eztitsurik.

E

Tronpa-kordela.- Txakurtxiki bat, goiti jota bi, naikorik izaten yakun kana bete lokarri erosteko. Baña nork izan bera? Nork artarako bear genduzan sosak? Zer egin geinkean?

Saku zarrak altzitu, atzartean biurtu-eta, lokarria egin.

Danok gintzazan kordelari, baña ondo egin, erosia izaten zan lakoa ondo ta txukun egiten ekienak gitxi batzuk baño ez ziran.

Iru muetakoak izaten zian tronpak; "boa", "dardaxa" ta "erdikoa" (arronta).

Boadunak, norberagaz erabilteko andiegia ziralako edo, gitxi izaten ziran. Boa baña; boa izaten zan, tronpa erregea.

Dardaxa; Luzangatxoa, dantzari ibiltaria, artegea. Artegetasunetik eta dardar ibiltetik etorkorren DARDAXA.

Erdikoa dardaxa baño motelagoa, laburragoa, biribillagoa ta politagoa.

Boaren dantzaldia iraupen andikoa. Lo egitean eukite eban garrantzia, olari josirik ba-legoan; lo-urrumatxua egitean genkian dantza egoala.

Tronpak, aria ta aritik egiten genduzan lokarriak, zaku zarrak, aizkora ta zurak, danak joan ziran nonbaitera,

Leen baño erri andiagoak ez diran errixketan ba-dago non jolasturik. Umeak baña, baña umeak non dira ba, ez da ikusten jostatzeko ume azkorik. Galtzapean ikasgaiak dabezela, goizetik gauara or dabilkiguz etxetik ikastolara ta ikastolatik etxera, udaldiko opor-egunak noiz etorriko diran begira, jolaskontuan ezer gitxi egiteko daukieta.

21.– IZERREAN

IZERKA ibiltean eukan izena IZER, jartze onek.

Izerka egin, edo-ta izerka ibilte onek amar lagun, zein ogei naiz ogetabost artzen ebazan. Batzuetan geiago, bestetzuetan gitxiago, ez egoan zeinbat izan eteikeazan araurik.

Amar bat izaten gintzazanetan, iruen bat izaten gintzazan areitzondoa zaintzen, beste zazpirak igesian joaten ziran jagoleak amar, amabost, ogeien bat zenbatu arte.

Bein zenbatu ezkero, ba-etozan tximistaren aizean arrapatzera, ibilte andiak egiñez arrapaten eben bat eta, areaitzera eroan. Arrapalariak atzilotua jagon bear, ikutu barik, eta atzilotuak esku bategaz areitzari ikutubearra izaten eban.

Eta an egoten zan areitzondoan beste loturiko bat ekarria arte, gero beste bat, eta beste bat, dana areitzondora ekarri arteño.

Lenengoa eskuaz areitzari ikuturik, bigarrena lenengoari eta irugarrena bigarrenari, eta olantxe danak batek besteari eskua emonik.

Areitzean loturik egozenai, azke zanak ezin egin eban "izerrik egin", au zan eskuak ikuttu; baña batzuetan bi, iru ta geiago etorrik, eta jagoleari marro egiñik eskuan ikutu eta "izar" esatean, danak askatzen ziran eta bakoitzak alan igesi. Ba-

tenbat an geratzen zan txakurren aurrean basurda nekatua lez beste bat ekarriarte, eta beste aske zan batek "izar· egingo eutsan arte.

Tronpa izaten zan, jostalluetan erosten genduana, beste jostallurik ezgenduan ezer izaten.

22.– FUBOLA

Egiten genduan fubolik be, pelota ederrik izan ezarren. Soñeko zarrez eta trupu zarrez biribiltzen genduan pelota antzerako zera, baloia.

Gaur aiña arau ezan izaten, ostikopelotan giñanentzak; alde bakoitzean 5, 10, 15 naiz 20 naikoa izaten giñan ostiko -jokoan ekiteko. Atezaña izaten zan zeregiñik egokienduna, besteak pelotea non, an ziran danak.

"Mano", "penalti" eta alboertzetik eskuz ateratzea izaten ziran uts nagusiak. Beste guztia su ta garra zan ainbeste motikoren artean pelotarik be ikusten ez genduala. "Kanbio de campo" be ba-geunkan.

23.– PELOTA

Eskupelotarako toki egokirik ez genduan izaten. Elizpean egiten genduan ateak eukazan edergarriak joaz, azpertu arte.

Amaren gona zarraren zatiz, artuledun kaltzerdi zarrez, beste gaien batez biribilduriko pelotak izaten ziran.

Pelotatzaz kondaira andirik ezin esan naike.

24.– TXORIAK

Udaberria, abiak, txoriak.

Txorrotxio dagi txoriak, zugadiak orri barriz jazten, bedar orlegiz landak, sasietan pilpil biguna, bizitza barriaren sorkundea. Txoriabiatara egiteko eratuten gintzazan bi, iru eta iñoiz lau be bai.

Iturrira joanez eberdietan bidean izaten ziran sasi zuloak arakatzen, mutillak giñan; ez txindorrak eta ez amilutxak ezeben zulo ezkuturik izan. Txoria non ebillan, nora joaten zan eta nondik etorren jakitea garrantzi andiko arazoa izaten zan; baña beste taldetxoa, alkarregaz batean ez giñan bizi izaten da, gu zaintzen orreik, ederto areik zaintzen gu, or izaten zan untzea.

Zalatariak be izaten genduzan. Onein eginbearra zera izan eikian abia non zan jakin, batez bere abi bitzuk eta irutzuk jakitean, ze egunetan ala goizez edo arratsaldez artzeko asmoa eben jakin, ori zan ba, zalatarien eginbearra. Ordain-saria, txorikuma bat.

Bein batzutan, beste iñork jakin ezean, luma-luma egiñik ziranean jasoten genduzan, baña nork noiz artu izaten giñanetan…. zenbaitzuk lumarrotan bere.

Etxaurrean banaketa, eta txoriak etxera egunen bat-bat birako.

E

Artourunezko orea ta esnezukua izaten ziran txorikumen janari zomorroz bizi zirenentzat eta danentzat. Zozo ta birigarroentzat arrak eta marrazkilloak bere bai.

Txori txikiak goren baten jota bere, egun bat, edo-ta birako bizia eben. Zozo ta birigarreoena barriz lau-bost egunerañokoa, eta jaten ikasterañoko bizia eukanaz askoen artean, gitxi batzuk besterik ez.

Etxeinguru-minguruko makatzan batean izaten ba-zan gardan-txori, beste txori txikien batzuk, abia kaiolaraturik eta zugatzetik aldatuz etxeko leioraño ameak ekarten genduzan, eta aita-amakaz azi. Emen bere zori txarrekoak gintzazan. Jaten ondo ikasiz gero, perejilla emoten eutzalako ameak, katuen batek erpea jartzen eutsalako, atea zabalik izteagaitik… Agur gure txorikumatxoak!

25.– KARRAMATOA (GOITIBERA)

Zur utsez egiñekoa izaten zan karramatoa, goitibera. Txirrinkatarako gai zan zuragaz iru txirrinduna, jostallu berezia. Lepoan arturik leurkiburuko basora joaten giñan eta beraren ganean jesarririk aldapan beera jatsi. Gorantz izerditan, berantz aizetan, zeregiñik naikoa izaten gendan geure buruari naitasunak egitean.

26.– TRANBIA (TXIMISTBURDIA)

Zeanuri-tik Bilbo eta Durango-rako joan-etorrian ebillan burditzar andi-andia. Ganean, tellatuan bi buztanduna. Alde baterantz ibilterako buzten bat jasoten eutsion bide danean egozan tximistarietara, bestera egiterakoan barriz, eta jatsirik izaten zana arira goratu.

Gizaldia, aza ta porru, esneak, txarriak, txalak eta iñoiz-iñoiz, beian bat be bai, izaten zan guztientzat toki egokiena.

Beste gauzarik ezan izaten non ibilirik-eta, bertara, tximist-burdira joanbearra izaten genduan.

Igorrebaso-ko asto txikiak gabean azke izanik ea Gezala-ko soloetara jasten ziranak, ainbat izten ebazan lurrean zerraldo ilik.

Izaten ebazan erri baten eta bestean, bere orduak, iritxi baiña ariak jausten ziralako, bidetik urten da indarrik etorten ez jakolako, ez eban izaten ordu ziurrik nora edo ara eltzerako.

Tramakulu onen joan-etorri zaintzen ebenak Igorre-ra, Zeanuri-ra ta beste erri batzuetara deika, urrutizkiñez deika emoten eben eguna, urten ba-eban ala ez jakiten. Eta erri batetik urregorako bitartean galtzen zanean, zer? Eguna ba-zan baioazan, makurgunetan arkar ez joateko oarturik. Gaua izaten be, bai-oiazan, eta makurgune batera eldu baiño lentxoago gelditurik, diruaz ibilten zana, kobradorea jatsi ta makurguna aren bestaldera joanik arrasta, posporoa biztu eta dei egiten eutson, dagiala aurrera, bidean trabarik ez eola-ta. Oarrez eta oar barik, izaten ebazan alkar joteak.

Buztanaren musturreko kirrinak aldatzean bera etorrela aritik urtetan, inpernua argitu eikean an izaten ziran su-tanta eta txatarrez. Ara jausten zanean barriz, txapelaz eldu eta baztartzen eben, su ta garretan, txipriztin da txatarretan.

Gizaldi onen lenen urteetan egin zan tximistburdiaren askundea orain urte gitxi dirala bezterreraturik gorazar andi baten bidez. Eguneroko lana itxi eban Arrati-burdia, urak eroan eban, jayak egiteko izan zan artatik.

Beste jolasketa bat.

Elizako. Jolasa baiño eliz-jaya geiago zan: Judas iltea.

Goizean mai andia elizpean iminten euskuen, eta egunak lenago asten gintzazan bakoitzak al ebana egiten; zurezko maillu txikiak, andiagoak, politak, ganorabakoak, eta karrakak.

Etortzen zan ordua eta danok gengozan gerturik. Judas ilteko. Malludunak maiari malluka su-ta-ke; karrakadunak esku batez bein, eta au nekatzen zanean besteagaz, karraka jotearen abarrotsaz ezer entzuten ez genduala. Txarto egiñaren zorrik artzen eban Judas gizagaioak, oeratuko zan arte gau artan.

Judas bizi ete-da ba?. Oitura ori amaitu zan.

Amaika bagara orain bere, Judas direnak eta eztirenak ilten diardugunak.

Itxi daigun mundu barri obe bat alde batera, eurentzako egiten diarduen orreiri. Oraingoentzat, gerokoentzat, gero bere geroengoentzat izango da-eta, zer apurtu ta zer barririk egin.

27.– MARIA-ren ALABAK ETA LUISTARRAK.

Oitura andia izan zan, oitura garrantzitsua illean bein domiña lepotik dindiliz jarririk, Jaunartzea.

Bai-gintzazan Luistarrak bere, mutikoak, illero Jauna-artzen genduanak. Maria-ren eta Luistarrek, danok gintzazan illeroko oitura bete bear genduanak.

Lenago amaitzen zan Luistar izatea mutillentzat, 17, 18, urteko izatean gizontxo agertzen ziran-eta, ortik letorkien Luistar izateri itxi eta gizonen alderdira, gizonen taldean sartzea.

28.– TXANTELA

Gizonen alderdiratzen ziranak azke egozan illeroko Jaunartzetik, loturik egozan baiña beste lokarri batera: Txantel. Txartela artzera. Urtean bein bider joaten ziran abadearengana, kristau-ikasbidearen azterketa egitera.

Ikasia aztu bayakien, edo-ta geiago ikasi ba-eben eliz barruan naiz elizpean umekeririk barik izaten ziran, batek itaundu besteak erantzun; erantzun da itaundu txantela eskuratzeko aiña itaun izaten zan.

Kristau andia, benetako kristaua izaten zan txartela bereganatzen ebana. Eta lortzen ezebana, zer ete-zan? Aldi artako abadeai, zerua ta inpernua besterik ikusi ez nabaitzen ezebanai argibidea eskatu bearko geuskio.

Len txartelaz eta orain txartelik barik, zeru-inpernuak lengo lekuetan ateak zabalik.

29.– UGER-EGITEA

Janbarritan urreratu zalako, eguzkitan geiegi egoteagaiti, berantzako ta beste naiekotxuen bat izan ebalako, bai itxas-ondarretan ta bai erreka-ertzetan illik eta itorik izaten da.

Gu, ba, orduko denporetan eguzkia pilpil izaten zan egunetan goizetik gaberaño gengozan uretara sarturik: bazkaldubarri, bazkalaurrean naiz bazkalostean; sagarrak jan-da, utsik naiz beterik izan sayetsartea, ugelaxoak ba-giñan lez, beti uretan gintzazan. Gaixotu orraitio iñor bere ez. Izaten genduzan berantzako ta kakapirriak, loratik arako sagarrez etorrenak ziranak, baiña sasipean barrua ustu eta urrengo sagarrondoan barriro bete, olan emon genduan umaroa.

30.– AMAREN AZARIKERIA

Arenbeste uretan ibilteagaitik belarrondokorik artzen genduan, baiña irrintzi batzuek egiñez gero lagunen bateaz alkartzean, dana egoan aizturik.

Urtubi-ko oxinean goizez, Olabarri-ko presan arratsaldez, Olabarri-koa ezanean Manuel Torre-koaren oxinean, da Sigurdui-ko presapean, lau leku oneik izaten ziran erriburuko umeen igeri-tokiak.

Oraingo andrakoak mundurik erdia ikusirik eta beste erdia ikasirik daukielako, ama areiri adarra joteko, ikasiak eta ikusiak birritan geitu bearko.

Amaren malizia, azarikeria atorrea mutikoari zintzurrean jostea izaten zan. Atorrea soñean gorantz biribildurik, eta prakak eta espartiñak erantsirik, uretan da uraren alboan izaten giñan.

Etxean izatean, da ibaietatik ur begiz ondo ikusteko eroan, samakoa ondo ba -egoan edo ez ba-egoan, ez euskun begiratzen.

Ai, baiña, etxeik urrunduten ba-gintzazan… gero etozan eguzkia ta euria; nork igarri euri ba-zan ala eguzkia izango zan?

Korapilloa azkatzen ikasi genduanean amaren begiak beti zur eta ekin andian. Begiratzen euskuen da gero KORBATA geldi. Biar bere bardin, okotzpeko txilibixta lengo tokian.

Egun batean baiña begiraturik ondo, an ikusi eban amak, semetxo aingerukia, okozpean zer edo zer egiñik ebala.

Jausi zan mutikoa astoaren gañetik, artu bear izan ebazan iñork artu ezin eikeazanak. Ikubilkada, ostikada, eta eskuaz emon ekiozan danak eta guztiak. Jostorratza ta aria andik aurrera ixilka norberagandurik-eta, ondo josten be, ikasi eginbear, batek besteari.

31.– NESKATIL UGERLARIAK

Neskatxirik be ba-egoan ugerzalerik, iñon ziran zulo ta abarpean ostentzen ziranak, mutilik izaten ezan uger-tokietara joaten ziranak.

Ganbara bazter txokoan baten amak itxiriko gona zarren batzukaz ornitzen ziran, alboetara so-egin mutilik ba-egoan ikusteko-ta, uretara joaten ziran aratak ba-liran, uretan txipli-txapla egitera.

Andrazkoak burutik oñetara gona zarrez jantzirik, eta mutikoak, ostera, arkondaratxoa, prakak eta oñetakoak arri ganetan lagarik.

Eskenduan izaten ara ta orra begiratzerik. Geunkezanak kentzen genduzan da, esku biakaz ankartea ezer ez erakusteko gorderik, alan joaten gintzazan uretara.

32.– TXITXIBURRUNTZI, BASOKOIPETSU

Egun bateko jaia, arratsaldez izaten zan jai au. Igande bat lenago, edo bi geroago, berrogeikaroaz (garizuma) ebillan baso-koipetsu.

Egunak lenagotik asten giñan nora zergaz joan, zer egin da eguna, arratsaldea zelan emon.

Olabarri ta inguru urbillekoak Montxogan-en egon zan pago bakarrera giñoiazan. Arrautzak, urdai, lukainka ta txistor geugaz eroanik, bakoitzak al ebana.

Sua egin bear zan, su barik ezer ezin egikean, sua izaten zan gatza ta piperra jaiari emoten eutsana-ta.

E

Sua egiten genduan, ba, eta arrautzak suan gogortu, urdai ta txistorrak zotzean erre, ta arratsaldea geure bizkar izaten genduan orain dan fubolari, ostikoketarieiri begira ta so eta itxaroten egonbearrean.

Nagusiak be egiten eben jai au. Oneik mutil-koskorrak baño urrunago batzuetan, urrago be bai bestetzuetan, taberna zuloen batean be bai, eta elizara egun artan iñor bez.

Oitura oni ondoen loturik Arantzazu izango da. Argiñao ganeko Adrian Deunaren basatxanoa izaten jake begiko.

33.– TXIRRITXIRRIAK, KIRKILLAK

Euskerazaintza

Txirritxirriak geure-geurek izaten ziran onein aldia etorten zanean. Agertzen ziranean, ba, Leurki-buruko basomoztura, landararik gabeko basora joaten gintzazan Olabarri ta enparantza zarraren inguru-minguruan bizi gintzanak, zomorro abeslarien billa; zirik berezienak eta ura Leurkin-go iturrian, eta atxurra etxean arturik joan be, egiten gintzazan.

Emea izaten zanean bertanbera izten genduan-eta, arra ba-zan txapelera, banaketa egitean ezpairik gabe beti-ta-beti.

Kirkil abestia entzuten ezan etxerik ezegoan, eta, eskolara betsopelpean eroaten genduzan non gorderik ezgendualako. Eskolara sartzean txapela erantsi bear genduan, txirritxirriak kolkoan zear zabaltzen genduazalarik. Alakoen batean gure maixua don Errafael-ek burura ekarten eban kirkillaren abestia non izaten zan, etorten zan araño eta, artu alekoak artzes orduan izaten ebazan zomorrondunak.

Aldi artan bai-egoan gizon bat, Bilbo -aldean gaixopeturik bere amagana etorria, Pedro abarketeruren etxetik eskola bitartean bizi zana, enparantza zarrean.

Gizon a, gaixo samarra izanik lanerako gai etzan-eta. Siarrustabeti-n eben baratzera joaten zan zer edo zer egiñik eguna emotera. Makiña bat kirkil eta txorikumak etxeko ate inguruak beterik eukazana. Bererengandik gauzarik asko ikasi genduan.

Kañabera arrakalduan sartzen ebezan kirkil abeslariak-eta; guk bere alaxe egiten genduan, egunetan bixi eiteazan uraza ta ardauz bustitako ogia emonik.

Gañeteik eta andi-andika esanik doguz. Igorre-ri buruzko gure orduko zerak, jostakisun eta bizitza. San Antonio-en aterpeak berba egin al ba-leu izango luke ainbat zer esanik. Burruka egitea eskolan ameztzen zan, San Antonio-n burutu.

34.– Bola ta txirlo

Pedro Txato-ren etxean gaur egun jatokia dagon lekuan; Julitxu-nean bere bai, biak egozan enparantzan zarrean. Timoteo Atutxa eta Calistro-ren bitartean be ba-egoan, eta oneik galdurik gero, Txakolintegi-n laugarrena, besteak besteko bizi andirik izan ez baeban be.

Bolan iñarduen danak eziran izaten besotsuak, baiña geienak bai, lanaren lanaz besoak kirioturik eukaezan-eta.

Diru-goserik ezan izaten, diru geiegirik ezan izaten-da. Ardoa, indarra eta lukikerien batzuk izaten ziran jokoaz ebatzi bear zirenak.

Kirtenetik eldurik, besoa betean jaurtizen zan bolea, eta eskubarru bere bai, txirlo txikia jotera.

Ai ene erri ezereztua! Igorrebaso-ko asto txikiak Santalutzi-ko andiak, errotak, kastorrrerako intxaurrak, gartzarao arrota-azalak, txirikillak, zidarrezko ogerleko zuria, kinkin, txirritxirri, bolak eta abar. Auzo errietatik eta auzokoak eztiranetatik biztale barrizko uriolea etorri dala dirudi. Batek bestea eztau ezagutzen. Etxe barriak pilloka egin dabez, errikoentzat baiño askoz bere geiago.

Ule-bizar-moztzallek iru ziran; Basilio, Kasinto, Landajo; geroago baten Elezkano. Iru txikiaz asi nintzan ulea moztuten, eta zazpi bat txakurrandiz espartiñak erosi, txikitoa txakur txiki bat izanik.

Urtubi bekoan egoan labeak, Katalin, Mañesi, Juliana ta Pepa-ri amaika ogi eder erre eustien, larunbatatan, labaondotik igarotzen giñanean pamitxa zatiak guri emoteko.

Agur, agur dagitziet lau labesudun andratxoai, betiraun guztirako, eta altsudun bakarrak bezai erruki ta bemaioe betiko zoriona.

Olantxe joan zan gure mutiko-gaztaroa, azeri txikikeriak alde batera itxirik.

E

Amabost-amasei urtetako nintzanean etorri jatan niri be, etxetik urtenbearra, Artea izanik nire erri barria. Iruen bat kmko. Bidea Igorre-tik Artea-ra, lenik bere ibilirik nengoan bide aretan.

Udako egun kizkalak izan ziran, goizean goizik jagiten gintzazan, esneak eratsi eta jatekoa be emon, eta lanerako norbera be ondo gertuten zanean, buztartu eta danok joaten gintzazan, soloetara. Beiakaz bat ebillanean, atxurraz bestea, eta irugarrenak be izango eban zeri eldu ta zeri ekin.

Erriko enparantzaren ondo-ondoan egoan gure baserria eta, enparantza aretatik igaroten nintzatzuenian, ez neban izaten an ebiltzazan mutiko koskortuekin, jolasteko gogo andirik.

Udako zereginik aukerakoenak, emen batzuk; Idak ebagi, batu, burdia betetan lagundu, eta etxera etortea izaten ba-zan, zeri edo ari ekinbearrean izaten gintzazan, jateko ta lo egiteko gelditzen gintzazan-da.

Ida ebaketa-lanak Baltzola-n da Murga aldapatsuan genduzan. Eta euria zanean, barriz, zugatzperen batean erdi kikili gengozan lañoteak zer egingo eban jakin gurarik. Ez-genduan izaten ez eurirako ez eguzkirako, abarrez da idaz eginiko etxola txiroenik, etorrana etorten zalarik bizkarrean artu bear genduan. Erroi ta belak eta igitaia ziran eguneroko lagunak.

Gabaren illuna etorranean basoan bertan, edo-ta bidean ogi-zatiaz sagar bat jaten genduan eta, Baltzolan bizi ziranai biramon arte agur egiñaz basoa beraka etxeratzen gintzazan.

Etxean be ez-genduan izaten jaia egiteko gogo ta aukera egokirik. Amamak ekarritako astokada andi bat, bi bai zarritan (artoa zan), buruak kendu, zuritu, babak alde batera ta lastoa bestera egiten genduan. Lan au ona etzanarren, zer izaten ete zan gurdia bete ida ustu et metagintza! Ogetaka burdi usten genduzan apaldu baño len, illa beteko kontua.

Uda aurreratuz izaten zan aldirik, ijito edo onein antz andino ziranak, erriz erri dindilindongo egitera etozanik: komedianteak. Berandu apaltzen genuan-eta, areik ikustera joatea nai izaten genduanean, agurtza otoitu bear genduela-ta, makiña bat aitzakirik izaten eban gure amamak. Batzuetan, ba, joan, bestetzuetn ez, alan joaten zan udea ta udagoiena.

Eta igande goizetan zer? Astoa neukan sasian lotorik, bera bete bedar ebagi eta etxeratzeko itxaroten eustala. Lana, lana ta lana, lana besterik etzegoan.

Esanik **bezela** dotan lez emon nebazan 19 urte arteko egunak. Emeretzi urteko nintzanean biurtu nintzan etxera, eguneroko alogera gaur drogeria, karlisten koartela izandakoan irabasten asi nintzan.

Emengo lana amaitu genduaneko, Bidebieta-n, Basauri-n eben lana nire bi nagusiak Jose Mari ta Jose Amorrortu-k, etxegintzan asteko. Ezdakit orain zenbak irabasten nebanik, baiña bazkaria ona ta ederra, mai-ganean erratellu andia indaba, urdai ta lukainkaz bete-betea; aren ondoren okela ta piper ugari arduaz lagundurik. Gozez il bainik izaten dan saiak okela barriaren ganean izaten dauan lakoxe orritza izaten genduan egunero, bosten bat errealen ordezko. Noraño joan geintikez, gaur egun, bost errealegaz, eguna lanean emon goserik bage, eta gabean etxer biurtzeko asmoz?

Idazki Deunak irakurtzean, aintzin batean izaten ziran alatz eta miraririk askogaz jabetzen gara, baña beste bat emon geuk ikusia eta oraingo gizadi barri onek siñistu ezin dauana: bost errealen lapiko-babaz, lukainka ta urdaiz, ardau ta ogiz, okotzeraño betetan gintzala.

Basauri-ko lana amaitu besterik ez, Zornotza-ra neukan deia, Forjas Baltzura joan naitean, da ara joan nintzan. Goizeko seiretatik eberdi osteko ordu biak arte, eta ordu bietatik gabeko amarrak arte izaten zan ango lana,

aste batean goizez eta bestean arratsaldez.

Goizetan ba-egoan tximistgurdia Durango, Bilbo ta Arrati-ra joan-etorriz ibilten zana, eta ni bere, an joaten nintzan goizez nintzanetan. Arratsaldez nintzanean, barriz, ez-neukan etxera non biurtzerik. Zer egin nagikean, alako ordu larrietan, amar km.tro-ko bidean etxera biurtzeko.

Arratsaldez nintzan astelen batez, 40 ogerleko kolkoan arturik joan nintzan lanera, eta izan genduan, langille nagusiari lagun egiztala esanik, txirringuts ba-

E

rri-barria erostera joaterik. 42 ogerleko ordaindu-eta, eskuan nebalarik, bereren ondoan lanera, barriz bere.

Amarrak, gaubeko amarrak urratuten egozan da, ni larriak jota. Etorri izan ziran amarrak, txirrina eskuan arturik 10 kilometroko bidean etxera nentorren, txipi-txapa.

Txirrindun adiskide bat ba-neban, ez-nintzan iñoiz arenaren ganean jezarri, eta ni gixajo andia, txirrina eskuan etxeratu nintzan.

Gaberdiko 12ak ezkero apalduta nengoan eta, txirrinean ikastea amets. Ostiko -pelotarako zelaya egoan etxondoan-da, ara joatea erabagi neban, ortzi argitsuan lekuko izarrak izanik. Ibili ta ibila, jausi ta zutitu, izerdiz bustirik emon nebazan goizalerañoko orduak.

Ala bearrez ikasi neban txirringutsan ibiltea, egunetan eta egunetan ogei kilometrotan joan-etorriak eginik. Zornotza-ra eroan nindun nagusiak Igorre-n lantoki barria eginik, eta lan urritasun andia egon zalarik, Igorre-n asi nintzan lanean gudaritzara joan artean.

(Jarraituko da)

Euskerazaintza

Euskeraren erri akademia
Academia popular de la lengua vasca
Lacademie populaire de la langue basque

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com
www.euskerazaintza.org